Aurkibidea

# Kulturaren Euskal Plana



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA

# KULTURAREN EUSKAL PLANA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA — DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

**Kulturaren** euskal plana. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004
p. ; cm. + 1 CD-ROM
Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: «Plan vasco de la cultura»
ISBN 84-457-2166-6
1. Euskadi-Política cultural. I. Euskadi. Departamento de Cultura. II. Título (castellano).
32(460.15):008

Argitaraldia: 1.a 2004ko iraila

Ale-kopurua: 1.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Rali, S.A. – Bilbao

Inprimatzea: Estudios Gráficos Zure, S.A. – Bilbao

ISBN: 84-457-2166-6

Lege-gordailua: BI-2177-04

# Aurkibidea


**HITZAURREA** . . . . . 7

**AURKEZPENA** . . . . . 9

**1. KULTURAREN ETA KONTZEPTUEN ESPARRUA** . . . . . 13

**1.1. Kulturaren ikuspegi zabala** . . . . . 15
1.1.1. Kultura, heterogeneotasuna eta integrazioa . . . . . 15
1.1.2. Kultura eta identitatea . . . . . 15
1.1.3. Kultura eta erakundeak . . . . . 16
1.1.4. Kultura eta ekonomia . . . . . 16
1.1.5. Euskal Kultura adiera zabalean . . . . . 17

**1.2. Euskal Sistema Kulturala** . . . . . 17
1.2.1. Kultura eta komunikazio gunea . . . . . 17
1.2.2. Gunea eta lurraldea *Euskal Hirian* . . . . . 18
1.2.3. Sistema kulturala eta gune horren erreprodukzioa . . . . . 18
1.2.4. Euskal sistema kulturalaren egituraketa . . . . . 19
1.2.5. Kultur jardueraren katea . . . . . 20

**1.3. Gaur egungo mundua eta euskal kultura** . . . . . 20
1.3.1. Globalizazio kulturala eta zenbait ondorio . . . . . 20
1.3.2. Gure testuingurua . . . . . 21
1.3.3. Zailtasun nagusiak . . . . . 21
1.3.3.1. Sareetan eta truke-katean hartu beharreko lekua . . . . . 21
1.3.3.2. Enpresa globalak eta eremu urriko kulturak . . . . . 21
1.3.3.3. Estatu-nazioak eta eremu urriko komunitate bereiziak . . . . . 21
1.3.4. Kontzeptu proaktiboa . . . . . 22
1.3.5. Barne polarizazio politikoaren arriskuak . . . . . 23
1.3.6. Kultura eta euskara . . . . . 23
1.3.7. Kultura eta immigrazioa . . . . . 23

**1.4. Kultur politika** . . . . . 24
1.4.1. Kultur politikarako ereduak . . . . . 24
1.4.2. Kultur eskubideak . . . . . 25
1.4.3. Kultur politikaren balio eta printzipioak . . . . . 25
1.4.4. Gastu publikoa kulturan: herrialdeen arteko alderaketa . . . . . 26

**2. EAE-KO KULTUR SISTEMA ERAGILEEN IKUSPEGITIK** . . . . . 29

**2.1. AMIA analisia diagnostikoa egiteko** . . . . . 31
2.1.1. Indarguneak . . . . . 32
2.1.2. Aukerak . . . . . 36
2.1.3. Ahulguneak . . . . . 40
2.1.4. Mehatxuak . . . . . 46

**3. KULTURAREN EUSKAL PLANA 2007 ARTE, 2015 ARTEKO JARRAIBIDEEKIN** ............ 51

**3.1. Planaren egitekoa, apustuak eta ildo nagusiak** ............ 53

3.1.1. Egitekoa ............ 53

3.1.2. Apustu nagusia: ezagutzaren eta kulturaren hamarraldia ............ 53

3.1.3. Kulturaren esku zabalduaren bost atzamarrak ............ 54

3.1.3.1. Edukiak ............ 54

3.1.3.2. Kultur integrazioa ............ 55

3.1.3.3. Nortasuna ............ 55

3.1.3.4. Modernizazioa ............ 56

3.1.3.5. Kanpo proiekzioa ............ 57

**3.2. Estrategi pentsamendu partekatua eraikiz** ............ 57

3.2.1. Erakundeen politikan ............ 58

3.2.2. Gizarte kontzeptuan ............ 58

3.2.3. Balio-katean ............ 58

**3.3. Antolaketa alderdiak: erakundeak eta politikak** ............ 59

3.3.1. Planaren egitura-erakundeak eta horien izaera ............ 59

3.3.2. Plangintza eta partaidetza ............ 62

**3.4. Jarduera-ildoak eta jarduerak ardatz estrategikoen arabera zehaztuta** ............ 62

**4. PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ETENGABERAKO TRESNA** ............ 85

**4.1. Tresnaren helburuak eta ezaugarriak** ............ 87

**4.2. Ebaluazio aldiak** ............ 87

**4.3. Tresnaren antolaketa** ............ 88

**4.4. Adierazleak diseinatu eta egitea** ............ 88

**5. METODOLOGIA BERRITZAILEA ETA PARTE HARTZAILEA** ............ 91

**5.1. Aurretiazko dokumentua eta txostenak** ............ 93

**5.2. Faseak** ............ 94

**5.3. Lantaldeak** ............ 94

**5.4. Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra** ............ 95

**5.5. Lan-metodologiaren laburpen grafikoa** ............ 96

**ERANSKINA** ............ 99

# Hitzaurrea

Batek baino gehiagok iritziko dio handiustekoa izenburuari; erokeria hutsa, beste batzuek; gehienek, behar bada, administrazioek sarri ohi duten jokabidearen araberakoa: dokumentu dotore bat, besteri eskatua, itxurak betetzeko balio duena. Izan ere, beldurra ere ematen du, errespetua behintzat bai, gaur egun *kultura* hitza bere horretan aipatzeak, batez ere guk geuk aitortzen dugunean kultura adiera zabalean hartu dugula, eta honela definitzen dugunean: «ingurunea eta gizarte harremanak bere esparru sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean kudeatzeko ematen den erantzun multzo gisa, eta gizarte mailako elkarreragina nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen duen zerbait bezala».

Eta, hala ere, ez da egitasmo handinahia, ez behintzat horrek izan dezakeen zentzurik okerrenean; are gutxiago legealdiko konpromisoetako bat betetze aldera nola ahala jositako orri multzoa. Bi urte luzeko lanaren emaitza da hurrengo orrialdeetan biltzen dena; jende askoren partaidetza izan duen dokumentua, jende askoren ordutako lanaren ekarria barnean daramana. Kulturaren Euskal Kontseilua osatzen duten lagunen lana lehenik, bai herri-administrazioetako ordezkari, bai kultura eragileen ordezkariena; aldi berean, askotarikoa den kultura mundu horretako beste hirurehun bat lagunen ekarpen, ohar eta iritziez aberastu dena.

Hauxe da, beraz, azpimarratu nahi nukeen lehen ezaugarria: administrazioetako ordezkarien eta kultura eragileen arteko elkarlana. Eta, elkarlan horretan egindako gogoeta. Horixe baita, lehenik, plan hau: kulturak bere baitan har ditzakeen hamaika arlori buruzko gogoeta, zertan garen adierazten diguna. Eta «hamaika arlo» erabili dut, bai baitakit oso zaila dela, ezinezkoa ez esatearren, kulturaren arlo guztiak besarkatzea.

Eta honek bigarren ezaugarrira narama, plan irekia da; arlo berriekin osatu beharko duguna. Hor agertzen diren ardatz estrategikoak eta jarduera-ildoak hezurmamitu ahala, ebaluatu beharko duguna, aldatu beharrekoa aldatu eta zuzendu beharrekoa zuzenduaz. Ez da behin betiko plana, behin-behinekoa baino. Goian jaso dudan definizioko bi atalak ardatz harturik harildu nahi izan duguna. Batetik, *sormenaren* ingurukoa, gure arbasoen sormenak utzitakoa (ondarea), gaurko gizon-emakumeena, eta sormen horren gainean sortutako industriena; bestetik, *identitatearen* ingurukoa, talde bateko kide izatearen sentimenduari dagokion ardatza.

Kultura eta identitatea, aipatu nahi dudan hirugarren ezaugarria. Hain kontzeptu labainkorrak izanik, edo, nahiago bada, kulturaren eta identitatearen arteko lotura hain demagogiarako bide eman dezakeena izanik, hainbat iturritako urek osatzen dutela gure identitatea aitortu nahi dugu. Lehen ere, beste askoren zordun eta hartzaile izan gara historian zehar; emaile ere bai, nola ez. Koldo Mitxelenak zioen bezala, gure sustrai guztiak Europan ditugu, Europaren kultura gu guztiona da, nahi badugu eta nahi ez badugu. Mitxelenak 1960an idatzi zituen hitzok gaurkotasun osoa dute, baina gaur Amerikako kulturarekiko zorra ere aitortu beharko genuke; eta etorkinak gure artean ugaldu ahala, beste kultura batzuen hartzaile ere izango gara. Beste hitz batzuetan esanda, gure nortasuna, gure identitatea, gune asko dituen sarean aurkitu behar dugu.

Eta hain zuzen ere Europako kulturaren parte izateko eta kultura horri ekarpenak egiteko, euskara funtsezkoa den ondare material eta inmaterialak ondo zaindu behar ditugu, batetik, eta eremu urriko kultura modura eta gure neurrian, beste kultur-herri batzuk baino sormen eta ekoizpen ahalegin gehiago egin behar ditugu, bestetik. Aipatutakoak –ezagutzaren, informazioaren eta kulturaren aro honetan- kulturan espezializatzera garamatza, hala identitatea berriztatzearen bidetik, nola barne erabilera eta elkartrukerako balioko duen sektore ekonomikoa sortzearen bidetik. Beste era batera esanda, gure berezko kultura indartu eta egokitu nahi badugu, kulturan ere espezializatu egin behar dugu. Eta ikuspegi honetan kokatu behar da *Kulturaren Euskal Planean* eginiko gogoeta.

Eta horrexegatik, eta honenbestez laugarren ezaugarria ekarri nahi dut hona: euskal gizartearen nortasunari eutsiz, heterogeneotasuna aitortu eta integrazioa bilatzen dituen plana da; beste arlo batzuetan ere aurrera doan gizarteak, modernizazioaren alde egiten duen apustua; hartzaile bezala emaile ere izan gaitezkeela konbentziturik, gure kulturaren kanpo proiekzioa bazterrean utzi nahi ez duen apustua.

Eta, azkenik, aurrekoek ereindako haziaren zordun den plana. Aurreko arduradun politikoek sortu baitzuten Kulturaren Euskal Kontseilua, eta oraingo lanaren oinarriak ipini. Baina, hazia landare koskor bihurtuko bada, lurra zaindu egin behar da, landu. Horixe da, kultura munduko hirurehundik gora lagunen lankidetzarekin, Kultura Saileko sailburuorde, zuzendari eta teknikariek egin dutena. Bihoakie guztiei nire esker ona. Hauen lanari, eta ondoren etorriko direnenari esker, lortuko baitugu hiru hizkuntza adierazpide dituen kultura honentzat, Mitxelenak euskararentzat eskatzen zuena: «handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia».

Miren Azkarate Villar

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

# Aurkezpena

## Kulturaren Euskal Kontseilua

Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK), 2000. urtean[1] sortu zenetik, euskal kulturako eragile publiko eta pribatuen topaleku bihurtu nahi izan du.

Bere helburu nagusia lankidetza bultzatzea eta kultur eremu euskaldun bat egituratzea da, gero eta globalizatuagoa den ingurunean. Helburu hurbilekoena *koordinazioa* sustatzea da, hiru norabidetan: koordinazio bertikala kultur gaietan eskudun diren hiru erakunde mailetako organoen artean (Jaurlaritza, aldundiak eta udalak); koordinazio horizontala kultur jardueran gehien eragiten duten erakunde-esparruekin nahiz Nafarroa eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekin; eta, azkenik, koordinazioa hainbat kultur sektoretako gizarte eragileekin.

Kontseilua, beraz, proposamenak egiteko *topaleku* moduan sortu zen, euskal errealitate kulturalaren gaineko sentsibilitate askotarikoek zabalik duten lekua bezala. Erabakiak hartzeko edo kultura kudeatzeko eratutako ordezkaritza organo bat ez denez, ez da beste ezein erakunderekin lehian sartu, eta hausnarketarako, proposamenak eta eztabaidak egiteko, adostasunak lortzeko gune izaten ari da. Hori dela eta, euskal sistema kulturalaren eta kultur jarduerari ematen zaion balioaren ikuspegi orokor batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) esparruan kultur politika jorratzeko baldintza paregabeak ditu.

Era berean, ez da komunikabideen kontuetan sartu, kulturarekiko harremanetan izan ezik eta, beraz, ez *medietako* estrategia –Ikus-entzunezkoaren Euskal Kontseilua abian jartzeari eta edukiei buruzko Lege gai izango litzatekeena–, ez hainbesteko garrantzia duen EITBren eginkizuna –kontratu-programan eta *Ikus-entzunezkoaren liburu zurian* zehaztutakora atxiki beharko lukeena– ez dira Plan honen xede, zeharka ez baldin bada.

## Plana

Bere lan egitasmoaren funtsezko osagaia, oinarrian dagoena, aurkezten ari garen Kulturaren Euskal Plana (KEP) da. Plan horrek EAEn euskal kulturaren gainean ikuspegi estrategikoei, jarduera irizpideei eta lehentasunei buruz eragile publiko eta pribatuen arteko adostasuna islatu nahi du. Euskal herritarren zerbitzura dagoen tresna da, kultur kudeaketaren ikuspegi interbentzionista eta inposatzailea arbuiatzen duena. Talde-lanaren fruitu moduan lortutako adostasuna eta etengabeko hobekuntza xede dituen tresna da.

Plana, zalantzarik gabe, *Eusko Jaurlaritzaren plana* da, eta erakunde horren jarduerak bideratu eta konpromisoak ezarriko ditu. Baina hori baino gehiago ere bada.

Lehenik, *filosofia* bat da, gure herriko erakunde eta eragile guztientzat esparru orokor bat. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, maila horretan, aurreneko bateratze-lan kolektiboa izan da. Gainera,

[1] Aurrekaria Euskal Kulturaren Kontseilu Nagusia izan zen, 1985ean (10 kide, aholkularitza funtzioekin) eta 1987an (22 kide; lehen aldiz adituak sartuko dira, aholkularitzako nahiz erakundearteko koordinazio funtzioekin). Egungo Kontseiluak 35 kide ditu; horietatik 20 hainbat kultur eremutakoak dira, eta 15 erakunde publikoen ordezkariak. Batzorde Iraunkorra du, 11 kidek osatua.

dokumentuek, taldeek, hausnarketek erreferentzia orokor izateko asmo hori ageri zuten, beren aberastasunean erakundeak epel utziko ez dituzten diagnostikoak eta lehentasunak azalera ekarriz.

Bigarrenik, ildo nagusi horiek garatzeko *konpromisoa* ere bada, jarduerak koordinatu eta adostu, baliabideak zentzuz banatu edo sinergiak sortu nahi dituzten erakunde zenbaiten bitartez, beti ere erakundeen eskumenetan sartu gabe eta eragile sozial edo pribatuen erabakietan nahastu gabe.

Eskumenek eta erantzukizunek Planaren aurretik zeuden leku berean jarraitzen dute, baina Planak segurki sektore eta lurraldeko garapenak testuinguru egokiagoetan gauza daitezen lagunduko du.

Denboraldi honetan, Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, idazkaritza teknikorako enpresa baten laguntzaz, Plana egin eta adostea izan du xede bakarra, eta ez da lantegi makala izan: zereginak antolatzea, txostenen enkarguak egitea, lantaldeak deitzea, iradokizunak biltzea, diagnostikoak eta jarduera-ildoak hautatzea, administrazioen ideia-komunitateetatik horiek lantaldeen ekarpen eta iradokizunen arabera hierarkizatu, azpisistemetan eta kontzeptu estandarretan taldekatu eta koherentziaz trinkotzea, lau urteko eperako gauzatze egutegi bat ezartzea eta azken dokumentu irekia idaztea; dokumentu horretan epe luzeko filosofiak eta ikuspegiak –2015. urteari begira–, lau urterako jarduera-ildoek, eta urtebeteko edo biko aldietarako jarduerek eta konpromisoek Plan koherente bat osatu beharko dute.

## Partaidetza

Hasiera-hasieratik, eta Planaren oinarri gisa, metodo parte hartzailea hautatu zen. Era askotako lantaldeak izan dira –Euskal Herriko gizarte eragileak eta eragile pribatuak eta EAEko eragile publikoak eta erakundeak– lehen diagnostikoak lantzen eta etorkizuneko jarduera-ildoak hautematen erantzukizun handiena izan dutenak.

Metodologia horrek guztiz blaitu zuen Batzorde Iraunkorraren egitekoa, elementu komunen hautaketa eta hobekuntzarako ia zuzenketa guztiak onartzeko jarrera irekia uztartzen zituela, testua alde guztietatik kolektiboa izan zedin. Horrek heldutasun prozesu bat islatzen du. Lanari kokaleku ezagun batetik abiatuta ekin ondoren, beste posizio batzuk entzun eta ezagutu ziren eta Kulturaren Euskal Kontseiluan aurkitzen diren sentsibilitate guztiekin identifikatzen diren posizioak formulatzeko gai izan zen. Horrela ulertzen da Kontseiluak aho batez sustengatu izana, horrek posizio partikularrak ukatzen ez baditu ere.

Metodologiak, bada, *abantaila* ugari zituen.

Abantailarik handiena kultura sortzen duten edo alor horretan parte hartzen duten eragile askotarikoek jardueren barru-barrutik ekarri duten ezagutza izan da. Horrek konpromisoa eta interesa eragin ditu gai estrategikoetan, eta ez gai jakin batzuetan bakarrik entzunak eta aintzakotzat hartuak izatea, baita ere administrazioak bestela lortuko ez lukeen informazio aski baliotsua eskura izateko eta ulertzeko moduen trukaketa sustatzeko; horrenbestez esan liteke emaitza, neurri handi batean, adierazgarria dela.

Gainera, etorkizunari begira, ezagutza partekatu hori, kultura komun hori, oinarri sortzailea da berez, eta horrek eragileek erronkei modu bertsuan, lankidetza landuz, aurre egin diezaien lagunduko du, ulerturik sortzaile denaren ekonomian, etorkizuna irudikatzea eta hura posible egitea batera doazela.

Ondoren, eta bildutakoa oinarri harturik, administrazioek, konpromisoak bete eta finantzatu behar dituztenak izanik, beren ikuspegiek eta aurrekontuek eskaintzen dituzten baliabideen aurreikuspenak eman dituzte.

Diagnostikoetan –ez jardueretan– ekarpen kritikoenak ere errespetatzeko joera gorde da –horrek ez du esan nahi ezinbestean ekarpenarekin ados egon behar denik–, eragileen aurrean Planaren egiazkotasuna babestearren eta haiek oro har Plana onar dezaten. Dena den, Plana laburtu eta orokortu behar izan da, eta horrek, ezinbestean, hautatzea, azterketa bakoitzari edo sektoreko jarduera-ildorako proposamen bakoitzari muina ateratzea eskatzen du. Nahitaez, lagungarriak ez diren adierazpenak edo errepikapenak ezabatu egin dira. Proposamen operatiboen alorrean, behar adina landu gabekoak edo adostasun maila handiagoa eskatzen dutenak ez dira jarduera-ildo bihurtu; nolanahi ere, horiek erabat ez baztertzearren, oroitzapen gisa «etorkizunean garatzeko proposamenak» bezala definitu dira.

*Eragozpenak*, aldiz, beste hauek izan dira: kanpoko eta urrunagoko azterketa estrukturalagoetatik egindako gutxi bahetutako interpretazioaren arriskua edota diagnostikoa iritsi den lekutik askoz haratago joan ezin izana, definizio polarizatzaileak saihestearren.

## Kapituluak

Planak kontzeptu eta gaikako sarrera bat du, diagnostiko orokor batzuk eta ardatz estrategikoei buruzko epe luzeko hausnarketa. Hausnarketa horretatik abiatuta, oso epe luzeko jarduera-ildoak proposatzen dira, batetik, eta lau urterako ildo eta jarduera plana, bestetik. Planak, hala, segidako kapitulu hauek ditu.

Lehen kapituluak kontzeptuen esparrua xedatzen du, 2003ko maiatzeko «aurretiko dokumentu markoa»ren gai orokorrei berriro lotzen zaie sarrera moduan; gai horietan areago sakontzen du ordea, sektoreko arazoak hobeto zehazteko. Izan ere, okerra da euskal kultura aztertutako sektoreetan bakarrik dagoela pentsatzea. Zalantzarik gabe, horiek kultur jarduerak egituratzen dituzte, baina ez kulturaren dimentsio guztiak. Planak jorratuko dituen egiturazko arazoak ezin dira alde batera utzi. Euskal kulturaren arazo orokorrak dagokien testuinguruan jarri behar ziren, identitatearen arazoari buruzko eztabaida eta ulertzeko erak zabaldu eta bultzatu, edo euskal kulturaren kontzeptuari buruzkoa, edo euskal kulturaren gaineko pertzepzioei zein hura gatazka politikoetatik gordetzeko premiari edo gaur egungo mundu globalizatuan kokatzeko moduari buruzkoa.

Horrekin zenbait baliza ezarri nahi ziren testuinguru gisa, baina baita Planak dituen mugak agertu ere. Esate baterako, ez du sartu behar Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren alorrean, baina bai, aldiz, kulturaren sektore eta esparru bakoitzean euskarak duen presentzian. Halaber, ez da ahaztu behar Euskal Herriko zati batean bakarrik izan daitekeela erabat eraginkorra.

Alabaina, eta gai horiek labainak direla kontuan izanik, sarrerako hausnarketa hori *bide-erakuslea* baino ez dela adierazi behar da, bultzatzeko, sentsibilitate desberdinak hurbiltzeko saiakera bat, lanerako dokumentu hutsa; beraz, ez du, inondik ere, agindu izaerarik, eta ez du jarrera komunik edo erabakirik agertzen, alderdi horiek hurrengo kapituluetan garatuko direlarik.

*Bigarren kapituluak diagnostikoak* eskaintzen ditu, bai euskal kulturari buruzko orokorra bai kultura hori mugatzeko proposatu diren hiru eremuei buruzkoak: ondarea, arteak eta kultur industriak. Diagnostikoak egiteko, lehenik sektore bakoitzean azterlan bana egin da, gero horiek azpisektoretan trinkotu dira, horretarako balio-katea zein gizarte esparrua eta orain arte eragile publikoek garatu dituzten politikak aztertuz. Sektorekako diagnostiko zehatz horiek, hala nola euskara edo kultura digitalari buruz zeharka egin direnak, web-ean ageri dira eta oso baliagarriak dira.

*Hirugarren kapituluan*, handiena eta mamitsuena, Kulturaren Plana zehatz-mehatz azaltzen da, *oinarrietatik* abiatuta: betekizuna, erronkak, lehentasunezko helburuak eta irizpideak. Plana bideragarri egin dezakeen *antolaketa* sistema azaltzen da eta *ardatz estrategikoak*, *jarduera-ildoak* eta *jarduerak* aipatzen dira, martxan jartzeko egutegiarekin batera.

*Laugarren kapituluan* planaren betekizuna bermatuko duten segimendu eta *ebaluazio* tresnak aurkezten dira.

*Azken kapituluan* jarraitu den *metodologia* azaltzen da. Plana egitea esperientzia parte hartzailea da berez, oso emankorra, eta beste egoera eta eremu batzuetan ere baliagarria gerta daiteke.

*Eranskinean* taldeetan parte hartu duten pertsonen zerrenda jaso da, argi eta garbi izanik beren lankidetzak ez dituela azken emaitzarekin konprometitzen.

# 1. KULTURAREN ETA KONTZEPTUEN ESPARRUA



## 1.1. KULTURAREN IKUSPEGI ZABALA

Kulturak gizadia bera eraikitzen, osatzen du. Esanahi polisemikoa badu ere —buruko egoera pertsonala; talde baten garapen maila; arte jarduerak burutzea, edo bizimoldeen ikerketa—, aldi honetan, kultura adiera zabalean hartu dugu: kultura ingurunea eta gizarte harremanak bere esparru *sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean* kudeatzeko ematen den erantzun multzoa da, eta gizarte mailako elkarreragina nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen ditu.

Azken ikuspuntu horretatik begiratuz, kultura komunitateen bizimodutzat ikusten da eta, ondorioz, bere identitate espiritual gisa. Hori dela eta, iturri kontzeptualak dira antropologian, soziologia eta etnografia kulturalean eta *ikerlan kulturalak* deitutakoetan egindako ekarpenak.

### 1.1.1. Kultura, heterogeneotasuna eta integrazioa

Kultura gizartearen nerbio-ehuna da, baina gizarteak moldatzen ditu kulturaren moldeak. Horrenbestez, funtzio hirukoitza du: gizarte egituraketa, komunikazio adierazkorra, eta esanahien sorrera eta ekoizpena komunitate anitz batean. Horrek ez du esan nahi, gizarte ireki eta pluraletan, beste kultura batzuekin ere harreman iraunkorrak egon behar ez dutenik. Are gehiago, nortasuna hezkuntzan landutako curricula askotarikoei darizkien kultur aniztasunean gorpuzten da, jakintza unibertsala da, atsedenaldia nazioarteratuta dago, eta beste kulturekiko atxikimendu pertsonalak eman daitezke.

Kulturak barrutik *heterogeneoak* dira, gizarteko talde ezberdinei lotuak, eta horrek kultura beraren era askotako adierazpen desberdinak egoteko aukera ematen du. Kultura, kolektibitate osorako estereotipoen arau multzo bat baino gehiago, kolektibitate horren nahasketaren emaitza da. Nahasketa horretatik norberarenak bezala ulertzen diren hari komunak hautematen dira (hizkuntza edo hizkuntzak, balio estimatuenak, bizimoldeak, sinbolo ezagunak, ohiturak, jakinduriak, arteak, mitoak, erreferentziako erakundeak...). Hori guztia, gainera, talde bateko kide izatearen sentimenduaren —nahiz gizabanakoen eta beren erabakien— subjektibotasunak blaitzen du.

Batetik, herrialde bateko herritarren artean kultura komuna izateak, hainbat *elkartasun adierazpen*, elkarren onarpena, gutxieneko adostasunak garatzeko bidea ematen du auzi komunen inguruan. Bestetik, kulturaren kontzeptua ez da ez barea ezta neutrala ere, baizik eta gizarte bateko gatazka orokorrek zein berez kulturalak direnek zeharkatua. Bi gatazka mota horiek kritika eta aurrerabidea bideratzen dute eta positiboak dira, liskarrak suntsitzaileak bihurtzen direneko muga gainditzen ez badute.

### 1.1.2. Kultura eta identitatea

Kultura ez da genetikoki heredatzen. Gizatalde bereizi batek komunean dituen erantzun multzo bezala, belaunez belaun eskualdatzen da ikasketaren bidez, hala bere eduki sinbolikoetan nola bere balio eta erakunde nagusietan.

Osagai horiek barne nahiz kanpo identifikazioa sortzen dute: identitate bat. Kultur identitatea ez da ezaugarri jakin batzuek historian zehar errepikatzea, baizik eta oinarrian dagoen populazio baten, gutxi edo gehiago gorde diren kultur ezaugarriek osatutako muin baten, memoria historiko baten eta etengabe aldatuz doan gizarte dinamika baten inguruan belaunaldiei *jarraitasuneko sentimendua* ematen dien emaitza.

Identitatea modu integratzaile batean erreproduzitu eta eraberritzeko baldintza nagusia —identitatea gizarte esperientzia, berezitasun, auto-onarpen eta bereizgarritasun gisa ulerturik— gizarte aske eta komunikatu bat egituratzea da.

### 1.1.3. Kultura eta erakundeak

Gizarte modernoetan, erakundeen esparrua erabakigarria da kulturarentzat, erakundeek kultura moldatzen dutelako eta haren bideragarritasuna, garapena eta aukerak berma ditzaketelako. Hor kudeatzen dira joera orokorrak eta erabakitzen dira kulturen patuak, berorien bizitasuna, moldagarritasuna, kalitatea eta trukerako gaitasuna.

Behar bezala antolatutako herrialde batek ezin dio kultur garapena norabide batean edo bestean eramango duen *botere autonomo publikoari* uko egin. Norberak erakunde mailako bitartekoak izatea funtsezkoa da, bai kulturaren barne kudeaketarako —kultur politika— bai eraginak orekatu eta beste kultura batzuekin harremanak izateko. Ez da kasualitatea Europako Batasunean (EB) kultura estatu bakoitzaren esku utzitako esparrua izatea.

Botere publikoarekin batera, gero eta garrantzi handiagoa dute *gizarte zibileko* erakundeek (asoziazionismoa, fundazioak, enpresak, sortzaileak eta eragileak).

Alabaina, eragin handiena duten erakundeko sistema espezializatuak hezkuntza, kultura eta komunikabide sistemak dira. Hiruren artean bermatzen da kultura erreproduzitzea eta gizarte aldaketetara egokitzea, eta horri esker ziurtatzen da kulturaren etengabeko berrikuntza.

*Hezkuntza-sistemak* kultur ondarea, ohiko balioak, hainbat gairi buruzko beharrezko ezagutza erreproduzitzen eta hedatzen ditu. Egokitzapen kolektiboa bermatzen du. Bestalde, bizikidetzako esperientzia da, eta gizarteratzeko gunea. Ongizateko gizarte ereduetan, sehaskak dakarren gizarte eta kultur predestinazioari ihes egitea ahalbidetzen duen eremu berdintzailea da, aukera pertsonalak sortzen dituelako. Gainera, gure kasuan, hizkuntzen garapena bermatzen du, komunikaziorako bide gisa.

Gizarteratzea sustatzeko beste osagaiak honako hauek dira: *kultur* sistema (ondare motak, kultur industriak, arte eszenikoak, musikalak, ikusmenezkoak eta antzezpenezkoak), Kulturaren Euskal Planaren jomuga dena; eta kultur industrien alor berezia den *komunikabide* sistema (batik bat prentsa, irratia eta telebista, eta horiei sareko komunikabideak erantsi beharko litzaizkieke).

### 1.1.4. Kultura eta ekonomia

Kultura *input produktibo* bat ere bada, eta merkatu garrantzitsua sortzen du informazioaren, ezagutzaren eta kulturaren gizartea deitu behar litzatekeen aro honetan. Horrela, kulturaren sorkuntza eta produkzio artistiko eta industriala gauzatzeko modua historian metatutako ondareari eta bere balioespenari eransten zaizkio.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak horrela zioen, 2002ko maiatzaren 29an, Kulturaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran:

> Kultura ez da gastua, baizik eta etorkizunari begira egin dezakegun inbertsio garrantzitsuenetako bat, pertsona bezala eta bere identitatea islatzeko zein mundu osotik datozen aldaketa eta berrikuntzetara moldatzeko kolektiboki prestatzen ari den komunitate bezala geure burua eratzeko bidea ematen digulako. Aldi berean, gizarte ikasi eta irudimentsu gisa espezializatzeko, eta beste herri batzuekin trukeak egiteko, dirua eragiten duen sektore ekonomiko bat sortzen dugu, horretarako baliabideak, azpiegiturak, produktuak, sormena, sareak eta abar jarriz.
>
> Egiaz, garapena eta kultura ez dira hitz kontrajarriak; aitzitik, elkar sendotzen dute. Aurrerapen ekonomiko eta sozialak kultura sortzen du batetik. Eta, era berean, kulturak garapen ekonomikoa akuilatzen du.

Beste herrialde eta eragileekiko mailegu eta truke aski oparoak baztertu gabe, kulturek beren moldagarritasuna bermatzen dute edukiak, berezkoak eta askotarikoak, ekoizteko gaitasuna agertuz, beren produkzioa sortuz, eta sentimenduak, balioak, egoerak eta gustu pertsonalak eta taldekoak, berariazkoak edo unibertsalak, islatuz.

Gauzak behar bezala egiteko zenbait baldintza bete behar dira: norbere kultura bereziki elikatzea, babestutako fondo batean oinarrituta; kalitatezko parametro homologagarrietan ekoitzi behar dela sinetsita egotea, bai norbere buruarekiko errespetuagatik bai nazioarteko eta munduko kulturetan txertatuta egoteko; edo eraginetara zabalik egotea.

Kulturan eta sorkuntzan, azkenean, ezagutza instrumentalak (idazketa, hizkuntza, matematika, logika bitarra...) eta gaiari dagozkionak (arteak, ezagutza zehatzak...) zein jarrerak (lankidetza, diziplina, industri tradizioa...) uztartzen dira.

Gurea bezalako herri batek, bere gaitasunarekin eta premiekin, kultura sortzerakoan ez luke *irmoki espezializazioaren alde egiteko* zalantzarik izan behar, hala arrazoi kulturalengatik edo identitatearekin zerikusia dutenengatik nola garapen ekonomiko eta sozialari lotutako arrazoiengatik.

Sektorea, gainera, intentsiboa da eskulan kualifikatu eta sortzaileari dagokionez, eta garrantzi handikoa egungo eta, batez ere, etorkizuneko enpleguen alorrean.

### 1.1.5. Euskal Kultura adiera zabalean

Euskal kultura kultura berezia da, bi kultura indartsuren artean kokatua: espainiarra eta frantsesa, bi estatu-nazioren kulturak, hauek ere, jakina, bereziak. Are gehiago, euskal kulturak, bizi den lurraldearen arabera, bi kultura horiekin harremana du, bai kanpoko eraginagatik bai barruan, euskaldunen kulturaren baitan, duten presentziagatik.

Oinordetzan hartutako kultura nuklearraren, integratutako beste kultura batzuen eta gaur egungo euskaldunen kulturaren *emaitza* bezala hartzen dugu hemen euskal kultura. Lehenengo osagaitik jaso ditugu historia, hizkuntza, sinboloak, erakundeak, artea, bilakaeran dauden bizimoduak...; bigarrenetik, aberastasuna eta beste hizkuntza batzuk; eta hirugarrenetik, berriz, aniztasuna, sintesia eta etengabeko birdefinizioa.

Jatorriei eta sentimenduei begira, oraindik ez dira euskal identitate modernoaren oinarriak adostu, eta euskararen egoera diglosikoaren ondoriozko arriskuak ez dira erabat uxatu. Hortaz, mugaketa eta identifikazio sozialean *arazoak* daude oraindik, euskal kulturaren eraketa bideragarrian dauden bezala.

Nolanahi ere, kultur esparruan komunitatea —euskaldunen herria— eratzen da batetik; eta, bestetik, hein batean, komunitate horren gizarte integrazioa. Herrialde demokratikoetan komunitatea, identitate komuna, herria, gizartetik egiten dira bideragarri, gizarte egituraketatik, herritartasuna eta elkartasuna oinarri harturik, eta kultur politikek mamitu behar duten nolabaiteko kultur proiektuan oinarriturik.

Horrek guztiak bi ondoriotara garamatza. Lehenik, posible da *herritartasun* kolektibotik eta oinarrizko *kultur proiektu* partekatu batetik abiatuta kultur identitate komuna eta gizarte politikoa eraikitzea, sentimendu kultural edo politikoetan norberaren joera edozein delarik ere. Bigarrenik, euskal kultura edo euskaltasuna (euskal identitate orokorra) eraiki behar da oraintxe bertan hasita, baina kontzeptu kultural soil gisa ulertuta, hau da, kultura jarauntsiaren eta gaur egungoaren emaitza gisa; nahitasunarekin eta kultura proiektuekin (euskaltzaletasuna) edo identitate politikoarekin (euskal nortasun nazionala...) lotzen diren kontzeptuetatik bereizirik, alegia.

## 1.2. EUSKAL SISTEMA KULTURALA

### 1.2.1. Kultur eta komunikazio gunea

*Kultur eta komunikazio gune* bezala ulertzen da identitatea eraiki eta erreproduzitzeko eremua, edo talde bateko kide izatearen eta ezberdin izatearen sentimendu orokorrak dituen komunitate baten gizarte harremanak moldatzen direneko irudipenezko esparrua. Ez da, beraz, asmakeria hutsa, euskarri moduan ar-

datz hauek dituelarik: kultur eta hizkuntz ondarea, gutxi edo gehiago komunak diren sinbologia eta autobalorazio identifikagarriak —mestizaje ugariz zeharkatuak, jakina—, erreferentziako instituzionalizatzea, eta produkzio, pertsona arteko eta erakunde mailako harreman sarea. Horrek «gu» bat moldatzen du, «guztiok» moduan ulertuta. Gunearen kontzeptuak, prozesuen, birtualtasunaren eta harremanen baitakoa den heinean, esparru politiko-administratiboak gaindikatzen ditu, baita lurraldeetakoak ere.

### 1.2.2. Gunea eta lurraldea *Euskal Hirian*

Euskal Herria txikia da eta elkarrengandik urrunen dauden puntuen arteko gertutasunak posible egiten du Bernardo Atxagaren *Euskal Hiria* bezala ikustea. *Hiri globala* bezala ere ikus daiteke, pertsonen eta jardueren ezagutza eta harreman hurbila ahalbidetzen duen eta gero eta etekin handiagoekiko harremanen sistema konplexu eta sarri bat ehuntzen duen hiri gisa; edo berezko *euroeskualde* bezala, indarrean dauden egitura politiko-administratiboen gaindikoa; edo *Arku Atlantiko* osoa hartuko duen euroeskualde baten gune dinamizatzaile moduan. Hurbilketa horiek guztiak, bateragarriak ez ezik, beharrezkoak ere badira.

Kultur eta informazio mugarik ez dagoen aro honetan, ez litzateke ulergarria izango euskal lurraldearen barruan euskalduna bezalako kultura minoritario —eta, euskararen alorrean minorizatu— batean eragiten duten gai kultural hutsen gainean mugak egotea. Hemen, Euskal Herria, lurralde garapeneko aldeak dituen arren, ondarea, artea, kultura eta historia partekatzen dituen entitate historiko kulturala bezala ulertzen da. Pentsatzekoa da erakunde politiko-administratiboek osagai horiek lurralde bakoitzaren ondare gisa babestuko dituztela, baina baita kultur komunitate zabalago baten ondare komun partekatu gisa ere.

Kulturaren Euskal Plana EAEk sustatzen du —euskal komunitateen artean zatirik handiena—, eta EAEn bakarrik dago indarrean. Baina Kulturaren Euskal Plana gainerako lurraldeekin eta diasporarekin kultur harreman egokiak ezartzeko pentsatua dago, honako neurri hauen bitartez:

- Erakunde komunak sendotzea: adibidez, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza...
- Lankidetza maila askotan: jarduera eta proiektuetan beste lurraldeetako entitate eta erakunde publiko eta pribatuekin; ondare, arte edo kultur industrien mailako jardueretan kultur elkarte komunekin; zerbitzuetan; enpresen artean; Kulturaren Euskal Plana garatzeko lantaldeetan parte hartuz; sortzaile euskaldunei lagunduz, edozein lurraldetakoak direla ere; erakundeen arteko hitzarmenak eginez...
- Guztion artean duguna sustatzea: euskararen mundua; etnografia, bibliografia eta katalogoak; informazioaren eta ikerketaren esparruak; kultur zerbitzuak...
- Lurralde batzuetan zein besteetan, bertako obraren zabalkundeari lehentasuna ematea, eta, ondorioz, merkatua sortu eta zabaltzea.

### 1.2.3. Sistema kulturala eta gune horren erreprodukzioa

Garaiotan, eta gehiago indarra hartuz doan «informazioaren gizartea» bereizten duen harreman etengabeko kulturen arragoan, kultur eta komunikazio gunea behar bezala erreproduzituko bada, *kultur sistema instituzionalizatu eta iraunkorra* eduki behar da. Egituraketak bakarrik ahalbidetuko du kultur garapen endogeno eta jasangarria, kultura bideratuko duen proiektu edo eredu batez eta jardueren bidez hura eratuko duten kultur politikako bitartekoak direla medio. Sistema horren zati erabakigarriak dira gizarte zibila eta gizarte eragileak.

Miraria da euskal kultura historikoaren zati batek erakundeen sare sendorik gabe bizirik iraun izana, eta kulturaren euskal eremuak aurrera egin izana. Gune horrek iraun dezan, eutsiko dioten egiturak edo sistemak sustatu behar dira. Horien artean garrantzitsuenak honako hauek dira: hezkuntza sistema, sistema politiko autogestionaturen bat, komunikazio sistema eta kultur sistema.

Ildo horretatik, euskal gune kulturala *de facto* onartzea eta eraikitzea, kontraesankorra izan gabe, errealitate beraren alderdi ezberdinak dira: sistema batetik abiatuta kultur proiektu eta jarduera bat eraikitzea, emaitza moduan abiapuntuko gunearen erreprodukzioa, garapena eta aldaketa emango duena.

### 1.2.4. Euskal sistema kulturalaren egituraketa

Euskal sistema kulturala izan dugu aztergai. Sistema hori hainbat eremuk edo azpisistemak osatzen dute: kultur ondarea, sorkuntza eta adierazpen artistikoa eta, azkenik, kultur industriak.

Eremu horietako bakoitzak berezko esparru, helburu eta jardunbideak ditu, harremanetan dauden arren (denboraren joanarekin, arteen zati bat ondare bihurtzen da, ondarea arteentzako inspirazio iturri da, eta, azkenik, kultur industriek arteen beharra dute ekoizteko).

*Kultur ondareak* herri baten memoria historikoa ukitzen du. Inmateriala edo materiala, higiezina edo higigarria izan daiteke. Bere oinarrizko helburua erkidego baten kultur ondarea zaintzea, babestea, zaharberritzea, baloratzea eta hedatzea da. Kultur ondareko zentro edo zerbitzuen bidez kudeatu ohi da (ondare etnografikoa, arkitektonikoa, arkeologikoa, artistikoa, industriala...), eta museo sistemaren, agiritegi sistemaren eta liburutegi sistemaren bidez. Egitura publikoak eta pribatuak dira, zerbitzu publikoa eskaintzeko asmo argia dutenak; erakundeen aldetik laguntza handia jasotzen dute, eta ia beti irabazi asmorik gabekoak dira.

*Arteen* eremuan helburu nagusia sorrera, ekoizpen eta zabalkunde artistikoa da, hainbat alorretan: literatura, ahozko tradizioa, musika, antzerkia, dantza, ikusmen arteak eta eskulangintza. Arte sorkuntza gizarte ekimenari estuki lotutako ekintza da: artea gizarteko kideek sortzen dute, eta ez administrazioak, azken horri sorkuntza eta zabalkundea posible egingo dituzten baldintzak erraztea bakarrik baitagokio. Arteen produkzio moduak (batik bat artisau lana), objektu, adierazpen, ekimen eta esperientzia artistikoen izaera bereziak (industri produkzio masifikatuaren aldean), eta ikus-entzuleen kopuru mugatu samarrak proiektu artistikoen errentagarritasuna eragozten dute. Oro har, arteak erakundeen laguntzarekin eta babesle pribatuekin osatu behar du finantzaketa.

*Kultur industrien* eremuak ekoizpen modu estandarizatuak (industrialak) ditu, kopuru handietan erreproduzitutako objektuekin edo, potentzialki bederen, jende askorengana iristeko produktuekin; horiek, gainera, merkatuaren arauei lotzen zaizkien enpresek eskaintzen dituzte. Ezaugarri horiek biltzen dituzte argitalpen industriak, fonografikoak, ikus-entzunezkoak eta multimediakoak. Arlo horietan sartzen dira, halaber, komunikabideak eta Sareko komunikazio moldeak. Bilbe sozial eta ekonomikoan, kultur industriak dira bizitasun, hazkunde, eragin eta inpaktu handiena dutenak.



### 1.2.5. Kultur jardueraren katea

Ondasun baten kultur balioa, batik bat, haren balio estetiko, historiko edo sinbolikoak xedatzen du, baina, nolanahi ere, merkatuko balioaz haratago doa.

Kultur jarduerak pixkanaka kultur balio hori handitu egiten du, kate moduko prozesu batean; prozesu horretan zenbait *fase* daude, eremuen arabera bereizten direnak.

Kultur politikek kultur eremu handi bakoitzaren balio-kate osoa izan behar dute kontuan.

| Kultur balioaren katea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ondarea** | 1. Heziketa eta ikerketa | 2. Babesa | 3. Zainketa eta zaharberritzea | 4. Balioespena eta hedapena | 5. Kultur kontsumoa |
| **Arteak eta kultur industriak** | 1. Heziketa eta ikerketa | 2. Sorkuntza | 3. Produkzioa | 4. Banaketa eta erakusketa | 5. Kultur kontsumoa |

## 1.3. GAUR EGUNGO MUNDUA ETA EUSKAL KULTURA

Gaur egungo pentsaeran gailendu den paradigmak konplexutasunaren onarpena eta sintesia ditu bereizgarri nagusi. Errealitateari begiratzeko modua ez da garai batekoa bezain erredukzionista —orduan erreferente ideologikoek askoz pisu handiagoa zuten—, baina, bestalde, izaera kritikoa galdu du. Kultur bizitzan eragiten duten eztabaidetan hizpide dira, besteak beste, globala eta lokala, publikoa eta pribatua, tradizioa eta berrikuntza, kultura jasoa eta kultura herrikoia, eta bikote horien arteko barne harremanak. Duela gutxi arte, kontzeptu horiek modu ia baztertzailean eztabaidatzen ziren, gaur, aldiz, jarrera malguagoak agertzen dira, baina baita lausoagoak ere.

Kulturaren Euskal Planak kultura ekoizten, banatzen eta kudeatzen espezializatutako sektoreak ditu jomuga, eta maila operatiboan esparru horietan mugitzen da. Hala ere, arazo orokorren inguruko jarduerak ezin dira baztertu, eta horrek *dimentsio anitzeko tratamendu* bat eskatzen du, eta erakunde publiko eta pribatuen zein eragile sozial, politiko eta ekonomikoen engaiamendua.

### 1.3.1. Globalizazio kulturala: joerak eta zenbait ondorio

Bizi garen une historikoan, ezaugarriren bat beste ororen artetik gailentzen bada, globalizazioa da, pertsonen joan-etorriak eta salgaien, kapitalen eta informazioaren harat-honatak bizkortzearen ondorioz.

Globalizazioaren fenomenoa zenbait *joeratan* islatzen da:

*a)* Eskubide unibertsalak: giza eskubideak partekatzen dituen herri global bateko, gizadi bakar bateko kide izatearen kontzientzia gero eta indartsuagoa.
*b)* Kultur komunitateen aniztasun handia mantentzea.
*c)* Kulturak trukatzeko eta bat egiteko joera; eremu industrializatuetan kulturen uniformetasunerako joera eta mundua esparruetan banatzekoa.
*d)* Kulturaren ekonomia berrian gorantz doazen sektoreak metropoli handietan metatzeko joera.

Joera horiek eragiten dituzten *ondorioetako* batzuk honako hauek dira:

*a)* Kulturaren garrantzi ekonomikoa, aberastasuna eta enplegua sortzen dituen sektore gisa, beste sektore tradizional batzuek baino pisu handiago hartu baitu, gazte hezienen enpleguari dagokionez.
*b)* Konpainia multinazional handiek kontrolatutako nazioarteko kultur merkatu garrantzitsu eta aldakor baten eraketa; multinazional horiek kultura uniformea hedatzen ari dira, unibertsala baino.
*c)* Lurralde jakin baten desberdintasunak eta identitatea islatzeko baldintza kulturalak eta politikoak mantentzen dira oraindik, baina babes hutserako diren politikei mugak jarriz.
*d)* Kultur eskaintza handitu da eta publiko berezituak ugaldu dira; aldi berean, kultura merkatuko produktu huts bihurtzeko joerak desberdintasunak eragin ditu gizartean, eta kultura eskuratzeko aukera berdintasunik eza.

### 1.3.2. Gure testuingurua

Testuinguru horretan, XXI. mendean euskal kulturaren jarduera esparrua oinarrizko lau faktore hauek baldintzatzen dute:

- Kulturaren *merkantilismorako* joera.
- Sorkuntza eta kultur merkatuak *nazioarteko bihurtu* dira.
- Euskal Herria *txikia* da; horrek kultur proiektuen errentagarritasuna baldintzatzen du, eta eskalako ekonomiak sor daitezen eragozten du.
- Orain eta etorkizunean, euskal kulturak *erakundeen laguntza* jasotzeko aukera du, kultur eragileekin hitzartzekoa eta gizarte zibil oso aktiboa konprometitzekoa.

### 1.3.3. Zailtasun nagusiak

Euskal kulturak, dagoen egoera minorizatuan, ez dauka lantegi erraza sare berrien eta globalizazioaren testuinguruan; batik bat, hurbileneko bi estatuetako kultura nagusien aurrean, kontuan izanik horiek, gaur egun, ez dutela juridikoki beren burua nazio anitzeko estatutzat hartzen.

#### 1.3.3.1. Sareetan eta truke katean hartu beharreko lekua

Munduko sare-ekonomian, estatu-nazioetako (beren egituraketa politikoaren eta botere egituraren abantaila dute) eta hiri metropolitarretako (aglomerazioaren abantaila dute) *mundu mailako zentro teknologiko eta finantzariak gailentzen* dira. Horrek guztiak estatukoak baino maila txikiagoko esparruen zeregina eragozten du, baita kulturan ere.

Komunitateek ezin dute informazioko ekonomia eta kulturaren zabalkundearen nahiz mundu mailako joan-etorrien aurrean ezikusiarena egin. Nagusiak izan gabe, beren adierazpideei etekina atereaz zirkuitu teknologiko, sareko, sorkuntzako edo produktiboetan eraginkorki sartzen ez diren kulturek mailakako gainbehera jasango dute. *Aukerak aprobetxatzen* jakin behar dute, dituzten baliabideak eta teknologiak beren premien arabera erabiliz.

Horri EBren ekialderako hedapena erantsi behar zaio. Ekialdeko herrialde horiek kultur tradizo handikoak dira eta laneko kostu mugatuak dituztenak; horrenbestez, nazioarteko esparruetarako kulturan espezializatzeko egokiera ederra dute.

#### 1.3.3.2. Enpresa globalak eta eremu urriko kulturak

Herrialde txikiek beraiek erabiltzeko informazioa biltzen eta lantzen badute ere, informazio, ezagutza, teknologia edo kultur alorretan boteretsuak diren korporazioak kultura bakoitzaren memoria historikoa eta gaien zerrenda partzialki berreraikitzera hel daitezke. Arriskurik handienak honako hauek lirateke: nazioen edo tokian tokiko interesen ordez, enpresa multinazional handiek kudeatutako interes globalak ezartzea; gaiak, formatuak eta ekoizpenak estandarizatzea; eta ikuspegiak, kontzeptuak eta ikusmoldeak ordezkatzea.

Antolatutako herrien multzoan kultur identitate bereizi eta plurala bermatzeko *hartu beharreko erabakiak* ezin dira gehiegi atzeratu. Herri txiki batek erronka horri aurre egiteko, ezinbestekoa da arrazoibide *integratzaile eta positiboak* sustatzea, eta negatiboak baztertzea. Bestela, uholde baten erdian borrokan hastea bezalatsu litzateke.

#### 1.3.3.3. Estatu-nazioak eta eremu urriko komunitate bereiziak

Ohiko estatu-nazioek, joera historikoari jarraiki, kultura bereizi eta onartu bat xedatu dute. Kultura mota horiek estatu-nazio berarekin identifikatzen dira, eta berea gordetzeko nahiz berrelikatzeko mekanismo indartsuak dituzte, kanpoko lehia edo presioa jasan arren. Estatu-nazioen kulturak autoerreproduzitzaile-

ak dira, eta eskuarki ia dena merkatuaren, ekonomiaren esku utzi dezakete. Espainiaren kasuan, Madril aldean indarrean dauden zentralizaziorako prozesu berriak eta ekonomia, botere politikoa eta kultura eskualdeen kontrolpetik ateratzeko joerak norabide beretik doaz. Eta hori guztia gaur egungo teknologiek sare deszentralizatu baten inguruan antolatzeko ahalbideak eskaintzen dituzten arren, eta kulturako eskumena autonomia erkidegoei eman zaien arren.

Nazioek eta eskalako ekonomiarik gabeko komunitateek, ordea, desabantaila nabarmena dute arrazoi historiko, kultural eta politikoak medio nagusi diren erdiguneko kulturekiko. Kulturaren eraikuntza borondatezko prozesua da, *erabaki politiko kolektibo* baten emaitza, eta erabaki hori hezurmamitzeko ekonomia ere behar da, norbere garapena bermatzearren.

Euskal Herriak bere kulturan jauzi bat eman behar izan du, baina bertako mekanismoen mendeetako kudeaketa bere esku eduki gabe. XIX. mendearen amaieran, karlistaden ostean, euskal kultura historikoaren osagai nagusiak —hizkuntza, erakundeak eta autogestioa— narriatzean, identitateari buruzko sentimendu larria eragin zuen. XX. mendeko lehen herenean, larritasun hori leundu egin zen, baina frankismoaren 40 urteetan ostera larrimina ikaragarri sakondu zen, batez ere penintsula aldeko Euskal Herrian. Atzerakada haren aurrean, frankismoaren azken urteetan eta trantsizioan zehar, bi eginkizun nagusiren beharra ikusi zen garbi. Lehenik, kultura berreskuratu eta berritzeko mugimendu kolektibo eta herrikoia abiarazteko premia, zeina aitzindaria, parte hartzailea eta erabakigarria izan baitzen, kultura historikoa eta herrikoia mantendu eta eguneratu zedin (ikastolen mugimendua eta euskararen aldeko aldizkako ibilaldiak, euskara batua, Euskal Eskola Publikoa, Euskal Unibertsitatea, AEK, aldizkariak...); bigarren, eskubide eta aukera pertsonalekin bateragarri izango zen erakunde mailako politika adostu bat abian jarri beharra, inbertsio garrantzizkoak egingo zituena eta, gai batzuetan, diskriminazio positiboak ezarriko zituena. Bi faktore horiek ments historiko hori arintzea ekarri dute batez ere EAEn. Egoera askoz ere okerragoa da Euskal Herriko beste erkidego politikoetan.

Azken 25 urteak igaro ondoren, agonia sentimendu hori ez da jada sumatzen, baina horrek ez du esan nahi errutinarako edo geldotasunerako aukera dagoenik. Izan ere, eremu urriko kultura batek, merkatu txiki baten baldintzetan, zabalkunde eskaseko komunikabideekin eta erakunde mailako esparru mugatu batez, ez dauka kultur automatismoen bidez bere burua elikatzeko gaitasunik.

Ezinbestekoa da *kultur politika aktiboak* garatzea. Horretarako, gaur egun, baliabide ekonomiko eta industrialen alorrean ahalegin handia egin behar da, gure kultur eskaintzen hazkundea eta lehiakortasuna bultzatzeko, eta Espainiarekin konparatiboki ematen ari den atzerakada erlatiboak eragindako kalteak arintzeko.

Hori lortzeko bi dira bideak: garai hauetara egokitutako ekoizpen sinboliko identifikagarri bat sortzea eta enplegua ekarriko duen sektore bat sustatzea. Baina, indarrak eta baliabideak ez xahutzeko, komeni da proiektuak zehaztea eta adostea, eta, ahal den neurrian, kultur jarduerak proiektu politikoen arteko liskarretatik bereiztea.

### 1.3.4. Kontzeptu proaktiboa

Herrialdeen arteko kultur desberdintasunari ezin zaio aurre egin norbera bere kultur esparruan gordeta edo isolatuta. Erantzuna norbere identitatea eraikitzeko hormak jasotzea da, joan-etorrien oreka bilatuz, beti irekita egongo diren ate eta leiho ugariz, norberaren indarraz nahiz kanpotik jasotakoaz aurrera egiteko. Gandhiren esaerari jarraiki, «utz ezazue munduko kultura guztiak nire etxe barrutik gora eta behera ibil daitezen, ni neu etxetik ez botatzeko baldintzapean».

Hori da egiazko jokalekua. Herrialdeen arteko harreman moduak berdintzeko tentsioa utzi gabe, gakoa norbere produkzioaren, lankidetzaren eta lehiaren erronkei aurre egiteko barne prestakuntzan ahalegin kualitatibo handia egitean datza. Batez ere, hori inork ez duelako gure ordez egingo.

Horri dagokionez, gehiengo handi batek sustatutako proiektu baten inguruan *kultur adostasunak* lortu behar dira, jakina, horretarako astia harturik. Memoria historikoa berreskuratzea, norbere produkzio berria, elebitasuna, borondatezko integrazioa, identitate komuna eta aldi berean askotarikoa...; horiek guztiek nahasketa arrakastatsua eman dezakete, beti ere, politikaren esku-hartzea medio, oreka gaitzean egongo den arren. Kulturaren demokratizazioa, kulturara iristeko aukera-berdintasunaren adiera kontuan hartuz, ezinbesteko betebeharra da hori guztia lortzeko.

### 1.3.5. Barne polarizazio politikoaren arriskuak

Kulturaren esparruak duen tempoa esparru politikoak edo erakunde mailakoak dutenaz bestelakoa da erabat, eta askoz luzeagoa. Guri dagokigunez, kulturaren kudeaketak *ez du zuzenean dialektika politikoaren mendeko esparrua izan behar*, bi eremuen arteko loturak ukaezinak diren arren, eta agenda politikoek eta kulturalek elkar errespetatu behar dute.

Hain labaina den gai batean ez dago baldar jokatzerik. Ezinbestekoa da identitate kolektiboa modu aktibo baina irekian eraikitzea, gizartearen erritmoei jarraiki eta askatasun pertsonala nahiz proiektuak garatzekoa gordez. Kultura interes politikoen arabera ikusten bada, identitateen artean hausturak —identitateen arteko inkomunikazioa— sortzeko arriskua dago, eta horrek, denborarekin, komunitateen arteko gizarte hausturak eragin ditzake, gaur egun existitzen ez badira ere. Gurea bezalako gizarte batek, batera bizi nahi duen gizarte heldu batek, arrisku hori uxa dezake denoi erantzukizuna eskatuz.

Elkarrizketa iraunkorra beharrezkoa da komunitate batean elkartasuna eta komunitate horretako kide izatearen sentimendua eragiteko, nahiz eta hainbeste eta hain ezberdinak diren kultur eta identitate proiektuak lehian daudenean, tentsioa saihestezina izan. Ahalegin kolektiboa egin behar da barne identitate kulturalak arazo izan ez daitezen, autoidentifikazio kolektiboa sustatuko duen beste faktore bat baizik.

Ez da komeni presaka ibiltzea, baina urratsak eman beharra dago. Horri dagokionez, beharrezkoa da kultur esparrua modu integratzaile eta ororekiko ulerkor batean, fase luzeetan kudeatzea, eta kultura gizarteko *adostasunera irekien dagoen esparrua* izatea, proposamenen zentzua politizatzea saihestezina izanagatik. Ezinbestekoa da kultur politika bat edukitzea, gehiengo handi batek onartutako proiektua, ahalik eta adostasun handienaz taxutua. Kultura topaleku izan daiteke, eta izan behar du, herriaren normalizazioan ere eragile aktiboa izateraino.

### 1.3.6. Kultura eta euskara

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehentasun moduan xedatzen ditu ahalik eta hiztun gehien lortzea eta euskararen gizarte erabilera areagotzea. Kulturaren Euskal Planean aurreikusitako jarduera-ildoak eta helburuak ere euskararen egoera hobetzeko baliagarriak izatea dute xede (bai corpusari bai estatusari begira). Izan ere, euskararen egoera hobetzea eta hizkuntzaren erabilera normaltzea euskal kulturaren gaineko gure jarduera ardatzen funtsezko elementuak dira.

Euskara euskal kulturaren oinarri nagusietako bat da, euskaldunon berezko hizkuntza izateaz gain, eta, gaztelania eta frantsesarekin batera, historian zehar euskal kultura sortzeko erabili izan den, eta erabiltzen den, tresnetako bat. Euskara eta euskal kultura estuki lotuta daudelarik, euskarak euskal kulturaren etorkizuna baldintzatzen du, eta, hizkuntza edozein delarik ere, kultur garapen orokor baten mende dago, euskal kultura sortu, ekoitzi eta zabaltzeko gai guztietan; esan beharrik ez dago, bestalde, euskararen etorkizunak berak kulturak bere adierazpen guztietan iraun eta indarra har dezan behar duela.

Euskarazko kultur produktuen eskalako ekonomiak oso bestelakoak dira gaztelaniazko edo frantsesezko kultur produktuen ekonomiekiko. Euskarak arreta berezia behar du, eta bere zabalkundean eta telebista, irratia, prentsa edo Internet bezalako komunikabideetan (komunikazio publikorako hizkuntza), produktuetan (produktu edo kultur zerbitzuko hizkuntza) eta ekoizpen prozesu kulturaletan (laneko hizkuntza), euskararen erabilera sustatu behar da.

Horretarako, komeni da legearen aldetik laguntzak izatea (zentzuzko kuota politika batez zerbitzu publikoko komunikabideetan, edo kontzertuen eta zerga pizgarrien bidez) eta hizkuntzaren eta zabalkundearen industrietan garapen teknologikoei arreta berezia eskaintzea.

### 1.3.7. Kultura eta immigrazioa

Urruneko kulturetatik —Europako Ekialdea, Latinoamerika— edo kultura oso desberdinetatik datozenen —Magreb, Saharaz Hegoaldeko Afrika edo Txina— immigrazio berriaren fenomenoa edozein gizarterentzat desafioa baldin bada, gurea bezalako batentzat —kulturalki bermatu gabea— are erronka gogorragoa da.

Iraganean ez bezala, badirudi etorkinak ez direla saldo handietan heltzen Euskal Herriko gune gehienetara; horrek eragina kulturalki mugatua izan dadin ekarriko du, batez ere, bigarren belaunaldian, beti ere iristen diren kultura eta taldeekiko begirunea erakusten bada eta horien integraziorako baliabideak eskaintzen baldin badira (arretako, harrerako, aholkularitza juridikoko... oinarrizko sarea), baliabide batzuetan derrigorrezkoekin (hizkuntza gaitasun berriak lortu, gaitasun akademiko berriak eta adinaren araberako garapen kognitibo egokia lortzeko haurren eskolatzea) eta beste batzuetan hautazkoekin (ikasketa gehiago, hizkuntza...).

Immigrazioa gizarte mailan gai konplexuagoa da, eta horrek kulturan eragina izan lezake. Etorkinak paria berriak bihur ditzaketen ghettoak eta bazterketak ekidin behar dira, bertako biztanleen artean arrazakeria erne ez dadin eta herritar berriek beren burua isola ez dezaten. Oso erabilgarria gerta daiteke bizilekuari lotutako «herritartasun barne hartzailea» kontzeptuaren inguruko parametroak garatzea eta immigrazioa aberastasun ekonomiko eta kulturala dakarren bata bestearentzako aukera gisa hartuko duen ikuspegi integrala lantzea.

Euskal gizartearen jarrera —ez ditu alferrik izan hainbeste emigrazio eta immigrazio esperientzia historian zehar— nabarmenki solidarioa da eta herrialdea aberastera datozenen artean eskubideak hedatzearen aldekoa. Ez da ahaztu behar immigrazioaren fenomenoa, batez ere, lan munduari lotua dagoela eta etorkinen nahia harrera egiten dien gizarteko lan merkatuan modu erregularrean txertatzea dela. Gizarte honek, beraz, eskubideak eta zerbitzuak eman ez ezik, bideak eskaini behar dizkie bizitza publikoan eta politikoan parte har dezaten eta erantzukide izan daitezen.

## 1.4. KULTUR POLITIKA

### 1.4.1. Kultur politikako ereduak

Kultur politika komunitate baten kultur premiak asetzera bideratutako esku-hartzeen multzoa da, kultur ondasunak, beren balio sinbolikoagatik eta gizartean duten eragin nabarmenagatik, bereziak eta meritu handikoak direla oinarri harturik.

Kultur politika orotan helburuak eta estrategiak zehaztu behar dira, kultur jarduera bultzatzeko egiturak eratu behar dira, baliabide ekonomikoak eta esparru horretan lan egingo duten pertsonak eduki behar dira, eta emaitzen informazio eta ebaluaziorako sistema bat izan behar da. Esku-hartzerik eza ere kultur politika izan daiteke, berariazko nahiagatik edo ez-egiteagatik. Kultur politika publikoak irismen orokorrekoak, sektorialak edo partikularrak izan daitezke.

Kultur politikako ereduak bi faktoreren arabera zehaztu daitezke: batetik, kultur jardueraren sustapenean eremu publikoak duen garrantzia, eta, bestetik, politika horren oinarrian dauden helburuak. Bi irizpide horien arabera, kultur politikako eredu orokorrak sei talde handitan sailka daitezke.

*a)* *Mezenas pribatua:* tradizio historiko luzea du erakundeek, botereek, klase eta familia aberatsek arteei eskainitako laguntzak. Hasieran ordain ekonomikorik gabe egiten zen, artista babesteko xede bakarraz, eta berrikiago zerga abantailekin sustatzen da. Babes edo laguntza moduan har daiteke.

*b)* *Mezenas publikoa:* Ilustrazio garaian jaio zen, eta Frantziako Iraultzarekin nahiz estatu-nazio modernoen eraketarekin bermatu zen. Estatu horien kultur politika hasiberriak herrialdeko eliteak zituen jomuga, museo eta liburutegien sorreran eta arteen sustapenean islatu zen, eta kultura nazional bat moldatu nahi izan zuen, estatua bera eraikitzeko prozesuan.

*c)* *Kulturaren demokratizazioaren* eredua: Bigarren Mundu Gerraz geroztik garatu zen, ongizatearen estatuari loturik. Bereizgarri nagusia kultura eskuratzeko aukeraren hedapena eta demokratizazioa bermatzen —birbanatzearen eta guztientzat estandar kultural bat lortzearen ikuspegitik— eta kultur ezberdintasunak murrizten egindako ahalegina izan zen. Horren erakusle garbiak dira irrati-telebista publikoen sistema nazionalak, iritzi publikoak kudeatzeko grina, zabalkundeko politika sustatzea, eta kultura nazionala bermatzea.

*d)* Kultur demokrazia: —doktrina bat gehiago da, egiazko errealitatea baino— 70ko eta 80ko hamarkadetan hedatu zen. Kultur eragileek eta gizarteak berak, kulturaren subjektu aktibo diren heinean, rol garrantzitsuagoa jokatu beharko luketela argudiatzen zuen, eta aniztasuna zein kultura artekotasuna onetsi eta bultzatu behar zirela.

*e)* *Kulturaren ekonomizatzea:* 90eko hamarraldian nabarmendu zen. Kulturaren balio ekonomikoa azpimarratzen zuen. Horrenbestez, kultur hirien birsorkuntzaren, kultur turismoaren eta kultur

industrien bitartez aberastasuna sortzeko aukera gisa ikusten zuen batik bat. Ereduak, ordea, errentagarriak ez diren kultur jarduerak edo kulturaren zentzua bera bazter uzteko arriskua du berarekin.

*f)* *Dimentsio anitzeko garapenaren* eredua: 90eko hamarraldiaz geroztik UNESCOk bultzatutako planteamendua da. Sintesi eredu bat da, kulturaren balio pertsonala, soziala, komunitate mailakoa eta ekonomikoa barne hartzen dituena, ikuspegi naro eta osoagoa ekarriz. Kultura aberastasun pertsonalerako, gizarte kohesiorako, identitate kolektiborako, hirien birsorkuntzarako, norbere burua kanpoan ezagutarazteko, garapen ekonomikorako eta, oro har, bizi kalitatea hobetzeko baliabide gisa hartzen da eredu honetan.

### 1.4.2. Kultur eskubideak

XX. mendera arte, kultura ez zen legeak berariaz babestutako ondasun bat. Berrogeiko hamarraldiaz geroztik hasiko dira ezagutzen kultur eskubideak:

*a)* Kultur eta hizkuntz ondarea babesteko eta norbere identitate kulturala zaintzeko eskubidea.
*b)* Kultura batekoa izate hutsagatik bazterketarik ez jasateko eskubidea.
*c)* Sorkuntza askatasunerako eskubidea.
*d)* Egile eskubidea eta jabetza intelektualaren eskubidea.
*e)* Kultura eskuratu ahal izateko eskubidea.

Hortaz, kultura *oinarrizko gizarte eskubide* bezala hartzea nahiko lorpen berria da, eta nazioarteko zuzenbidean jasota dago (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna; UNESCOren Deklarazio Unibertsala Kultur Aniztasunari buruz; Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna; Eremu Urriko Hizkuntzen Gutuna...), eta baita XX. mendeko azken laurdeneko konstituzio modernoetan nahiz gobernuen kultur politika bideratzen duten irizpideak garatzen dituzten legeria nazionaletan ere.

### 1.4.3. Kultur politikaren balio eta printzipioak

Baliotzat ulertzen bada gizarte mailan desiragarria denari buruz gehiengo handi batek partekatutako oinarrizko ideia, eta printzipiotzat hartzen baldin bada gizabanako, elkarte eta erakundeen jarduera bideratzen duen irizpide multzoa, kultur politikaren ikuspegi desberdinen euskarri diren *balio eta printzipio garrantzitsuenak* taula batean labur daitezke.

| Balioa | Printzipioa |
|---|---|
| **1. Identitatea** | — Memoria historikoa gordetzea.<br>— Kultur jarraipena.<br>— Kulturen arteko elkarrizketa sustatzea. |
| **2. Askatasuna** | — Bertako sorkuntza garatzea.<br>— Kultur adierazpenen aniztasuna.<br>— Gogoeta kritikoa askatasunean. |
| **3. Berdintasuna** | — Kulturaren demokratizazioa (sozializazioa). |
| **4. Partaidetza** | — Demokrazia kulturala.<br>— Subsidiariotasuna.<br>— Lankidetza. |
| **5. Bizi kalitatea** | — Garapen integrala. |

### 1.4.4. Gastu publikoa kulturan: herrialdeen arteko alderaketa

Gure kasuan informazio iturri estatistiko fidagarri ezak beste herrialdeekiko erkaketak egitea zaildu egiten du. Horrela izanik ondoren datozen datuok hurbilpen gisa hartzea komeni da.

Kulturan egindako gastu publiko osoaren estimazioa egiteko edozein erakunderen programaz programako aurrekontuetara gutxienez kontzeptu hauek erantsi behar dira: berariazko programa ez orokorrak, eta programetan jaso gabeko zerbitzu orokorrak, 1. kapitulua barne; lurraldeko edo probintziako gastu publikoa, EAEn modu bereziki garrantzitsuan aldundiek Kulturan dituzten eskumenengatik, tokian tokikoa edo udalekoa kontuan hartu gabe; hezkuntza arautuaz kanpoko hizkuntz politika, bereziki garrantzitsua hizkuntza bereizia duten erkidegoetan; irrati telebistei (ITB) eta beste erakunde edo sozietate publikoei emandako dirulaguntzak.

Faktore horiek kontuan hartzen eta gaineratzen badira, eta Quebec[2] eta espainiar estatuko hiru nazio konparatzen baditugu, ikuspegia aski ezberdina da.

Gastu publiko kulturala erakundeen aurrekontu publikoetan eta biztanleko.

| | Gastu publ. kulturala guztira (*) milioi euro | Gobernuaren GPK (*)/ GP % guztira | Gobernuaren eta diputazioen GPK (*)/ GP % guztira | GPK /biztle. euro |
|---|---|---|---|---|
| **Quebec** | 1.146 | 2,80 | – | 180 |
| **Katalunia** | 608,8 (ITBren defizita barne) | 3,70 | 3,57 | 83,12 |
| **Galizia** | 324,34 | 4,10 | 3,90 | 118,50 |
| **EAE** | 258,97 | 4,17 | 1,68 | 123,23 |

*Iturria*: balioespen propioak 2003ko Gobernu eta lurraldeetako administrazioetako aurrekontuen datuekin, Quebecekoak izan ezik, horiek 2002-2003koak baitira.
(*) Beste programa batzuk barne hartzen ditu —hizkuntz politika, diputazioak eta ITB—, baina ez informazioaren gizartea.

EAEren kasuan, 2003ko taula honela labur daiteke:

Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien gastu publikoa kulturan (udalak gabe). Milioi euro

| | Milioiak | Milioiak | Milioiak | Guztiarekiko % |
|---|---|---|---|---|
| EUSKO JAURLARITZA | | | **168,22** | **64,96** |
| Arkitektura eta arkeologia ondarea | 3,56 | | | |
| Museoak, arte ederrak eta erakusketak | 13,61 | | | |
| Agiritegiak | 1,03 | | | |
| Liburutegiak | 2,09 | | | |
| ONDAREA GUZTIRA | | 20,30 | | 7,83 |
| Musika | 8,55 | | | |
| Dantza | 0,47 | | | |
| Zinema | 4,21 | | | |
| Antzerkia | 1,81 | | | |
| Arte plastikoak | 0,52 | | | |
| Liburuaren sustapena | 0,83 | | | |
| KULTUR SORKUNTZA ETA ZABALKUNDEA | | 16,42 | | 6,34 |
| EITB | | 98,60 | | 38,07 |
| HIZKUNTZ POLITIKA | | 32,90 | | 12,70 |
| ALDUNDIAK | | | **90,70** | **35,03** |
| – AFA | | 19,00 | | |
| – GFA | | 24,09 | | |
| – BFA | | 47,60 | | |
| GOBERNUA ETA ALDUNDIAK GUZTIRA | | | **258,92** | **100** |

*Iturria:* balioespen propioak 2003eko Eusko Jaurkaritzako eta aldundietako aurrekontuen datuekin.

[2] Oharra: 2002-2003ko Budget de Dépenses delakoak 504,085 milioi dolarretan jartzen du Quebeceko Gobernuaren gastua kultura eta komunikabideetan. Baina Quebeceko gastu publiko kulturala askoz ere handiagoa da Kanadako Gobernuak zuzenean bereganatzen duen gastu kulturala (Quebeceko Gobernuarena baino askoz ere handiagoa) kontuan hartzen badugu. Alabaina, holakorik ez da gertatzen Espainiaren kasuan, Espainiako Gobernuak gure Erkidegoan duen esku-hartzea oso txikia baita. 1998-1999 bitartekoan, Kanadaren ekarpena 898 milioi dolarrekoa bazen ere —horietatik 516,6 ITBrako ziren—, 534,6 milioikoa zen Quebeceko Gobernuarena. Bi partida mota horien batuketa eginez, Quebeceko gastu publiko Kulturala, eurotara ekarriz 1.146 milioi euro ingurukoa izango litzateke 2002an, eta biztanleko gastu publiko kulturala 180 eurokoa izango litzateke biztanleko. 1€=1,25 $ 2004ko otsailean.

Datu horietatik zenbait ondorio atera daitezke:

*a)* EITBri emandako dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzaren Kulturako aurrekontuaren % 58,6 hartzen du; dirulaguntza hori Jaurlaritzaren eta EITBren arteko programa kontratuz ematen da. Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien kultur aurrekontu guztiaren ia % 40 hartzen du (% 38). Ahalegin kolektibo handia da hori, eta EITBri erantzukizun handia dakarkio euskal kultura osoarekiko.

*b)* Jaurlaritzaren hizkuntz politikak erakunde horren gastu publiko kulturalaren ia % 20 hartzen du. Portzentajea kultur programetan (ondarea, arteak eta kultur industriak) egindako berariazko gastua (% 21,65) baino apur bat txikiagoa da. Horrek Jaurlaritzak kultur programetan ahalegin berezia egitea eskatzen du, berariazko gastu kulturala hobetzeko (programaka).

*c)* Aldundien gastua programetan oso garrantzitsua da kulturarentzat, Eusko Jaurlaritzak ondare-, sorkuntza- eta hedapen-programetan egindako berariazkoa (36,72 milioi euro) baino handiagoa; hortaz, erakundearteko koordinazioa bereziki garrantzitsua da.

*d)* Kataluniako diputazioen gastua kulturan askoz handiagoa da proportzioan (712 milioi eurotik 64,8, hau da, % 9). Antzeko zerbait gertatzen da, neurri txikiagoan bada ere, Galiziako diputazioekin (aurrekontuen ia % 4 kulturara bideratzen da). EAEko hiru aldundiek, hiruak batuta, kulturari ematen dioten dirukopurua % 3koa da.

Nolanahi ere, EAEko aldundien aurrekontu orokorrak eta eskumenek ez dute zerikusirik Katalunian eta Galizian dituztenekin: 9.163,2 milioi euro Kataluniako eta Galiziako aldundien 712,8 eta 393 milioi euroekin, hurrenez hurren, alderatuta. Alabaina, EAEko aldundien kulturako gastu osoa 90 milioikoa da, Kataluniako diputazioek gastatzen dutena baino handiagoa, alegia. Galiziako diputazioen aurrekontua 15,33 milioi eurokoa da.

Horrek azaltzen du Kataluniako Generalitat-aren eta diputazioen gastu kulturalak, batera, horien aurrekontu bateratuaren % 3,5 hartzea, eta Galiziako Gobernu eta diputazioenak % 3,9, EAEn baino bi halakotik gora —% 1,68- portzentaje urria kulturan espezializatu nahi duen herri batentzat.

*e)* Arazoa ez dago aldundietan edo Jaurlaritzan. Bakoitzak bere funtzioak ditu. Nolanahi ere, badirudi herri honetako erakundeek hezkuntza, osasungintza, gizarte zerbitzuak, industria edo segurtasuna kultura baino sendoago sustatzen dituztela, EITBren eta hizkuntz politikaren sustapen irmoa salbuetsita.

*f)* Baina badago datu esanguratsu bat. Erakusle garrantzitsuenean, alegia biztanleko gastu kultural publikoa ITB kontuan hartuta, gastua 123,23 €-koa da EAEn, eta Katalunia eta Galizia gainditzen ditu. Hiru kasuetan gastu publikoa kulturan % 40 (Euskadi eta Galizia) eta % 45 (Katalunia) bitartean dago. Quebecen bi gobernuena % 36a da.

# 2. EAE-KO KULTUR SISTEMA ERAGILEEN IKUSPEGITIK



## 2.1. AMIA ANALISIA DIAGNOSTIKOA EGITEKO

AMIA analisi deskribatzaile hau egiteko, laburtua eta orokorra, azpisistemen balio katearen araberako azterketa xeheak hartu dira oinarritzat. Azpisistema horiek, era berean, lantaldeetan zehaztutako sektorekoenen laburpenak ziren, eta erantzukizuna lantalde horiena bakarrik zen. Horrenbestez, edukietan koherentzia mantentzeko eta edukiekiko konpromisoari eusteko, Kulturaren Euskal Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak analisiak hobetu zituen eta ondorioak, gutxi gorabehera eta orokorrean, bere egin zituen, xehetasun kritiko guztiak nahitaez bere gain hartu gabe, nahiz eta, gardentasun ariketa batean, bere horretan utzi diren.

Kulturari oro har —hiru azpisistemen sintesi gisa— eta azpisistema bakoitzari (ondarea, artea eta kultur industriak) AMIA analisia (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) aplikatzeak hainbat abantaila ematen digu: barne izaerako (indarguneak eta ahuleziak) zein kanpoko testuinguruko (aukerak eta mehatxuak) faktore positiboz eta negatiboz osatutako argazki panoramiko moduko bat eratzen baita, guztiz adierazgarria, hautespen eta hierarkizazio handiagoa eskatuko lukeen diagnostiko doi bat baino areago.

Diagnostikoan jasotako informazio kopuru eskergaren gainean —sektoreen balantze orrialdeak 300 baino gehiago ziren hasieran— egindako hautespen aski zorrotzak jarduera guztietatik ohikoena eta, Batzorde Iraunkorraren iritziz, funtsezkoena nabarmentzen du, eta beharrezkotzat jotzen diren sektoreei buruzko ohar partikular batzuk baino ez ditu biltzen.

Diagnostiko orokorra nolabaiteko ordenaz aurkezten da, azpisektoreen ordenaren oihartzun moduan: gizartea, heziketa, sorkuntza edo babesa, sektoreetako ekoizpenak edo zaintza, balioespena, banaketa eta zabalkundea, teknologiak eta politikak. Sektoreko eta azpisistemakako diagnostikoak —askoz aberatsago eta zehatzagoak, eta balio katetik zorrotz deskribatuak— eranskin gisa eskuragarri daude webean.

### 2.1.1. Indarguneak

| KULTUR SISTEMA | INDARGUNEAK |
|---|---|

- Kultura propio eta bereizia dugu; kultur sistema indartsu samarra ere bai EAEn, nahiz eta ez oso homogeneoa; eta ondare bakana, gizarteak positiboki baloratzen duena. Oro har, identitate kulturaren aurrean gizarteak duen jarrera abegikorra da, eta zenbait sektore garrantzitsutan parte hartze handia dago.
- Euskararen ezagutza eta erabilera asko hazi da azken 25 urteotan.
- Konparazioz, heziketa maila handia dago, biztanleko kultur kontsumo aski handia, zenbait kultur alorretan ohitura sozial eta amateur aktiboak, eta etxeen informatizazioan eta Interneten erabileran aitzindaritza. Hainbat jardueretan maila ona ematen dugu: prentsa irakurtzen eta irratia entzuten; liburu, fonograma eta ikus-entzunezko materialen eskarian; jaialdietara, koruko jardunetara, talde jakin batzuen kontzertuetara, dantzara... joaten eta jarduera horietan parte hartzen.
- Hainbat alorretan tradizio artistiko eta sortzaile oparoa dago: arteetan (ikusmenezkoak eta plastikoak, musika, dantza, herri antzerkia), ondarean (arkitektura, ondareak...) eta kultur industrietan (zinema, saiakera, literatura...), eta hori jendeak euskal sortzaile kutunenei (literatoak, musikariak, zinemagileak) dien leialtasunean islatzen da.
- Euskal Herrian zentroak eta ekitaldiak elkarrengandik hurbil egoteak *Euskal Hiria (Euskal Herria hiri handi bakar bat bezala)* eta, gutxienez EAEn eta Nafarroan, azpiegituren oreka ahalbidetzen ditu.
- Herri kultura tradizionalaren eta ondare etnografikoaren aurrean dagoen gizarte sentsibilizazioa gero eta handiagoa da. Bestalde, ondareari eta arteari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie, azken urteotan Euskadiri erakargarritasun eta indar turistikoa gehitu dion kultur turismoaren baliabide gisa. Globalizazioaren beste alderdia aniztasuna eta kulturen arteko komunikazioa da.
- Gure merkatuaren berezitasunek eta euskararen presentziak sorkuntza eta ekoizpen eremu autonomo bat bultzatzen dute, eta horrek beti bertako merkatu kuota bat gordetzea ahalbidetzen du, korporazio ekonomiko handiek pisu nabarmena duten arren.
- Euskal komunitate «global» bat dago, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bai kanpoan, kultur edukiak eskatzen dituena. Kultura digitala indartsu heldu zaigu, eta distantzia geografiko edo administratiboak ezabatzeko eta baliabideei probetxu ateratzeko modu bat da.
- EITB kultura osoaren eragile aktiboa da, eta izan behar du. Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren artean sinatutako kontratu-programan telebista publikoaren eginkizuna birdefinitu da esparru guztietan.
- Bilboko Guggenheim apustu arrakastatsua izan da: nazioarteko irudia hobetu ez ezik, harrotasuna, negozioa eta zerbitzuak sortarazi ditu eta kulturarako akuilu bilakatu da. Nolanahi ere, gehiago da elementu bakan eta tematikoa, kultur sistema orokorraren erakarlea baino, nahiz eta, sistema horren laguntzaile papera jokatzen duen.
- EAEko Administrazioa ohartzen da kulturaren auziak eragin eta erakarpen ahalmen handia eta kultur politikako tradizioa duela, biztanleko gastu publikoa kulturan Europakoaren mailan dagoelarik.

| ONDAREAREN AZPISISTEMA | INDARGUNEAK |
|---|---|

- Duela gutxi arte behar bezala balioetsi ez den ondare aberats eta askotarikoa daukagu (arkeologikoa, etnografikoa, arkitektonikoa, artistikoa eta industriala), mendeetako tradizioa duten liburutegi eta artxiboen egitura zabala, eta museo sare garrantzitsu eta askotarikoak, nazioarteko mailako artista garaikideen lanekin.
- Interesgarriena da heziketa sistema horrek, itxurazko kultur maila duen gizarte bizi batean, kultur harrobi itzela sortzen duela, egile berriak, kultur ekimenak edo kultura eragiten duten enpresak agerraraziz.
- Etnografian eta arkeologian, esate baterako, ikerketa, erakunde, elkarte, argitalpen eta aditu sare egituratua dago, eta gaitasun maila tekniko eta profesional handia liburutegi, artxibo eta museoetako zerbitzuetan.
- Administrazioa aktiboa da ondare kontuetan, eta, Kataluniarekin batera, bere industri ondarearen ikerketa, zabalkunde eta zainketa prozesuetan aitzindari izan da; bestalde, artxibo eta liburutegietan tratamendu teknikoaren modernizazioan aurrerapen nabarmenak egin dira.
- Zenbait bilakaera kontzeptual ere ari da gertatzen: ondarezko osagai bakunetatik multzoetara pasatzea, eta ondarea kultura bezala ulertzea; dimentsio anitzekoa dela ikustea (kultura kolektiboa, memoria, identitatea, aktiboa, ondarea eta balio ekonomikoa).
- Hirigintza eta lurralde antolamendua kontrolatzen dira, EAEko lurraldearen planeamendu eta antolamenduko aldaketa guztiak aztertuz eta ondare eta arkeologi material babesgarriak modu koherentean kudeatuz.
- Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak (IKTB) ezarriz dokumentazio, artxibo eta liburutegi zerbitzuak nabarmen hobetu dira, liburutegietako katalogoak informatizatzeko egindako ahalegin handiari esker, horrek herritarren sarbide aske eta demokratikoa bermatzen baitu.
- Lurraldearen egiturak —alor soziokultural eta turistikoan balioa handitzen doazen euskal hiri handiak barne— bizi kalitatea, lehiakortasun ekonomikoa, identitatearen balioen sendotzea, aniztasuna eta batasuna lagunduko dituen kultur sarea ezartzea ahalbidetzen du.

| ARTEEN AZPISISTEMA | INDARGUNEAK |
|---|---|

- Artearen aurrean garai batean baino sentsibilizazio handiagoa dago, eta horrek prestakuntza mailako eskari handiagoa ekarri du: prestakuntza artistiko ez arautua (arte eszenikoen zentro pribatuak, musika eskolak), arautua (kontserbatorioak, batxilergo artistikoa), birziklatzekoak (dantza ikastaro edo lantegiak EAEn edo kanpoan) eta goi mailako lanbide espezializazioa (Musikene zentroa; matrikulazioa beste erkidego batzuetako Goi Mailako Antzezpen Eskoletan) edo ezagutzakoak (Musikako Euskal Artxiboa -ERESBIL).
- Sorkuntza maila ona da hainbat alorretan: ikusmenezko artista itzaltsuak; egile ugari literaturan; musika tradizio bat eta musika klasikoko kalitatezko bakarlari ospetsuak; askotariko eta kalitatezko abesbatzak; izen handiko antzerki taldeak; dantza konpainiak eta talde amateur ugari.
- Arte sorkuntza sustatzeko eta ekoizpenerako baldintzak hobetzeko balia daitezkeen arte azpiegitura eta zerbitzu garrantzitsuak daude: akuilu funtzioa betetzen duten museoak (Guggenheim, Bilboko Arte Ederren Museoa, Artium...); arte plastikoak bultzatzeko egitura arinak —Arteleku, Bilboarte, Montehermoso eta abar—; grabazio estudio funtzionalak; Bilborock moduko musika zentroak; euskarara itzulitako atzerriko lanak; ARTEZ aldizkaria, euskal antzerkia hedatzeko tresna bezala...
- Zabalkunde eta banaketako eskaintza nahiko handia da.
- Eragile gisa, bi orkestra sinfoniko profesional egonkorrak nabarmentzen dira —Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS)—; eta maila handiko egitura artistiko batzuk, pribatuak, Erkidegotik kanpo eskari handia dutenak (Donostiako Orfeoia, Bilboko Koral Elkartea...); talde eta produkzioen presentzia antzerki erakustoki garrantzitsuetan (Leioa, Donostia, Gasteiz edo Tarrega); udal musika banda batzuk berreskuratzea; musika moderno edo gazte taldeen ugalketa.
- Jende askorentzako lokal handietan (Euskalduna, Kursaal...) aurkeztutako programazio erregularrak gero eta onartuago daude; lokal horiei Sarea antzoki egitura eta antzoki txikiak gaineratu behar zaizkie. Elkarte pribatuak badira operan (OLBE) edo kontzertuen alorrean (Bilboko Elkarte Filarmonikoa), publikoak (Araba Kulturala), eta erakusketa areto zein arte galeria asko, gehienak Bilbo aldean badaude ere... Berebat, denboraldiko ekitaldi garrantzitsuak badira, hala nola jaialdiak (Donostia, Gasteiz eta Getxoko Jazzekoak, Donostiako Musika Hamabostaldia, Errenteriako Musikaste, Bilboko Musika Garaikidea...), musika garaikideko zikloak edo Gasteizko musika elektroakustikoko jardunaldiak.
- Horrek guztiak fruituak eman ditu: abesbatza, artista eta orkestra itzaltsuak; izen handiko ikusmenezko arteak; arte eszenikoetako konpainia eta produkzio etxeen egitura profesionala, eta enpleguak sortzen dituen barne eta kanpo merkatua.

| KULTUR INDUSTRIEN AZPISISTEMA | INDARGUNEAK |
|---|---|

- Prestakuntza teknologiko tradizionala, artistek eta kultur industriak eragindako ondarea zein kultur eta arte edukiak, herritarren kultur maila, horiek guztiak kultura digitalean espezializatzeko nahiz eskulangintzako lanbideak transmititzeko oinarri egokiak dira.
- Kalitateko egileen belaunaldi berri bat bada, bai idazketaren alorrean bai musika eta ikus-entzunezkoenean. Kopuru eta hazkunde handieneko sektorea ikus-entzunezkoarena da, eta hor biltzen dira zuzendari, sortzaile, antzezle, teknikari eta enpresa ospetsuak; EITBk eragin duen giza baliabideen harrobia; animazioan dagoen tradizioa... Eskulangintzaren esparruan oraindik «ofiziorik» bada.
- Argitalpenaren alorrari dagokionez, produkzio kopurua garrantzitsua da —eta itxurazko kalitatea duena— liburuen argitalpenean (urtean 4.000-5.000 liburu), musikan (180 produktu) eta ikus-entzunezko produktuetan, batik bat telebistarakoetan. Zineman produkzioa mugatuagoa da (4-5 film urtean), eta baita multimediaren eta eskulangintzaren eremuetan ere. Tirada txikiko produktu berri asko argitaratzeak ez du arlo ekonomikoa sobera sendotzen, baina kultur aniztasuna bermatzen du.
- Industria txikia, zalua, moldakorra da, teknologikoki gaurkotua, ekimen autonomokoa eta gertuko merkatua ongi ezagutzen duena. Egitura ahulenekoa zinemaren alorrekoa da, baina nolabaiteko entzutea mantentzen du. Enplegua batez bestekoa baino erritmo biziagoz sortzen duten sektoreak dira, eta lanbide eta ezagutza berriak ekartzen dituzte, baina oso ezegonkorrak ere badira.
- Euskarazko sorkuntza aipagarria da, eta abantailaz jokatzen du, hizkuntz berezitasuna dela eta lehiarik ez duelako eta merkatu desberdinetan aritzean bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, osagarriak direlako (egileen ezagutza, tradizio gurutzatuak eta abar), batak bestea sustatzen du eta biek ere egitura produktiboa sortzen dute. Euskarak espezializatzeko aukera ematen du, bai berariazko produktu digitaletan (merkatu gatibua) bai hizkuntzaren eta eleaniztasunaren industrietan (ekarpenak teknologia adiskidetsuetan, edo hizkuntza gutxituen behatokiari laguntzea...).
- Ikus-entzunezkoen alorrean, EITB programa eta emankizun publikoak eskaintzen dituen ondare kolektibo bat da. Telebista tematikoa ugaritzen ari den garaiotan, kalitatezko programen ekoizpena bermatzeko funtzioa bete dezake, telebistaren funtzio kultural eta demokratikoak segurtatuz. EITB oinarri sendoa da, eta sektoreak beste batzuentzat ere ekoitzi ahal izateko abiapuntu gisa ulertu behar da.
- Kultura digitalean eta multimedian ahalegin handiak egiten ari dira dokumentu historikoak digitalizatzen, egungo edukiak sareratzen eta ekoizpen multimediak moldatzen.
- Zinea edo antzerkia eskaintzeko erakusketa aretoak eta sareak badira, enpresariek abiarazitakoak edo publikoak.
- Era berean sorkuntzaren esparrurako, berriz, zinemaldi sare antolatua dago, Donostiako Zinemaldia, Gasteizkoa, Zinebi, Biarritz, fantasiazko zinema, publizitatea eta abar.
- Eskulangintzari dagokionez, sektorearen benetako indargunea ekoizten den produktuaren izaera berezitua da.

### 2.1.2. Aukerak

| KULTUR SISTEMA | AUKERAK |
|---|---|

- Herrialde txikia izan arren, bere ezaugarriak direla eta tarteko tokia izan dezake Europan, baina horretarako kalitatea, zinezkotasuna, ideien produkzio arretatsua eta kanpo merkatuetan espazioak bilatzea erabakigarriak dira arte plastikoetarako, musikarako eta eszena-arteetarako, edizio, musika, ikus-entzunezko eta multimedietarako bezalaxe.
- Euskal kultur esparrua deskribatzen duten estatistiken bilduma zehatza eskuratu behar da, kulturaren behatoki baten bidez.
- Internetek zabalkunderako erakusleiho gisa dituen aukerak erabili beharko lirateke gure literatur eta eszena sistema, arte plastikoena... eta liburuak, musika, ikus-entzunezkoak eta multimedia materiala beste merkatu batzuetan saldu eta esportatzeko. Informazio-sare berrien balioa gero eta nabarmenagoa da, Euskadiren eta euskararen presentzia eta ospea bultzatzeko eta nazioartean ezagutarazteko.
- Uneren batean sarea ukitzen duten eskaintza berrietan, badirudi komunikazio masibo samarra ezartzen dutenak ditugula nagusi; horrelakoetan komunikazioa zatikatua da, interaktibo samarra, ez derrigorrean aldi berekoa, eta gustu, denbora eta erosteko ahalmenaren arabera antolatua.
- Euskal produktu kulturalentzako sustapena oinarrizkoa da, erabiltzaileen ordaintzeko jarrera eta ahalmen ekonomikoa oinarrizkoak diren bezala.
- Etorkizunera begira indarturik ageri diren kultur erabilera sozialak honako hauek dira: ikus-entzunezkoa, musika, pantailako irakurketa laburra, informazioaren berrerabilpena eta nahasketa, esperientzia aktiboak, kultur irteerak... Beste kontu bat da sustapena funtsezko elementua izatea, bai euskal kultur produktuentzat bai erabiltzaileak ordaintzeko eta baliabide ekonomikoak horretarako bideratzeko prest egon daitezen.
- Egin dira mestizaje diskografikorako esperientzia onartuak —zinematografian ohiko kontua izan da—, halako kultur aniztasun baten adierazpen gisa, eta gurearen antzeko arazoak dituzten beste kultura batzuekiko truke akordio globalak ere egin daitezke.
- «Euskadi Informazioaren Gizartean Planean», behar-beharrezkoa da ondarearen, arteen eta kultur industrien aldaera guztien garapenerako ildo bati jarraitzea.
- Eduki digitalak, funtsean, testuan eta ahozko hizkeran oinarritzen dira. Guk abantaila dugu prestakuntzan eta hizkuntzalaritza arloko jakintzetan (edukien kudeaketa, ontologiak, indexazioa, etab.). Herrialde elebiduna gara, eta oinarri profesionala eta eskarmentua badugu hizkuntzaren industrien/teknologien hainbat arlotan nazioarte mailan lehiatzeko moduan lan egiteko (aplikazioak, hiztegi elektronikoak eta beste), bai euskararen bidez baita beste hizkuntza batzuen bidez ere.
- Aukerak sortzen dizkigun elementutzat hartu behar dugu euskara, orokorrean horrelaxe baita alderdi askotatik begiratuta, hala nola kulturan, ekoizpenean, merkatu propioari begira, hizkuntzaren teknologiari dagokionez... Elebitasunak itzulpena errazten du, eta euskal enpresei kanpoarekiko hartu-emanak izaten eta etxeko merkatuan toki egokiak eskuratzen laguntzen die. Sortzaile berrietako askok bere lana euskaraz egiten dutenez, literatur eta musika funtsak handiagotzeko aukera sortzen da, oraindik ere airean dagoen «Zinea Euskaraz» kontuari heltzeko bezalaxe.
- Masiboa izan gabe hazten ari den kultur turismoarekin lotutako potentzialtasunak ere badira.
- Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen esparrua estrategikotzat jotzean zabaldutako bideak (Ikus-entzunezkoen alorraren liburu zuria) aukera ematen du kulturaren beste esparru batzuetan arian-arian sustapen-ildo berriak garatzeko.

| ONDAREAREN AZPISISTEMA | AUKERAK |
|---|---|

- Pertsona, erakunde eta herriak sentiberatzen ari dira, eta ikusten historia eta ondarea oso loturik daudela identitatera. Hau garbi ikusten da, baserriak eraberritzen ari baitira, arkeologi, etnografi, dokumentu eta monumentu ondarea zaharberritzen, genealogiak areagotzen, edota, besteak beste, elizbarrutien eta parrokien agiritegiei zein pribatuei berriz balioa ematen.
- Industri edo etnografi ondareko elementuetako batzuk berrerabiltzea funtsezkoa da elementu horiek iraun eta balio dezaten.
- Zerga-pizgarrien bidea aztertu behar da —edo diru konpentsazioena— higiezin kalifikatuen edo arkitektura, paisaia edo gizarte balio aitortua duten industri instalazioen jabeentzat, edota arte-ondarea berreskuratzera edo azaleraztera begira.
- Kultur marka berri bat eta kultur, ondare eta museo zirkuitu berrien garapena finka daitezke. Turismo berdeak ondare etnografikoa bultzatzen lagundu dezake.
- Euskadiko Agiritegi Nazionalaren, Euskal Museo Sistemaren, Euskal Bibliotekaren eta —biblioteka sistemarentzat— katalogo kolektiboaren garapena aukera onak dira.
- Ondareak duen balioaren inguruko kontzientzia orokorra hedatzeak eragile pribatuen eta jabe txikien partaidetza garrantzitsua eragin dezake, ondare arkitektoniko, artistiko eta etnografikoari balioa emateko proiektuetan.

## ARTEEN AZPISISTEMA | AUKERAK

- Indarrean dagoen hezkuntza sisteman heldu egin behar zaio arte-irakaskuntzari, eskola eta institutuetan.
- Arte eszenikoetako eskaintza arautuari buruzko hausnarketa ere premia-premiazkoa da. Mahai gainean dugu hiru lurralde historikoetan lehen ikasketa-fase bat bideratzeko aukera (erdi-mailakoa edo lanbide-hezkuntza mailakoa), eta goi-mailako ikasketak, berriz, balizko Arte Dramatikoaren edo Arte Eszenikoen Goi-Eskolan eskaintzekoa.
- LOGSEren ezarpena eta musika eskolen garapena aukera ematen ari dira bere trebetasuna instrumentu bakar batean edo musika estilo bakar batean biltzen duten musikariak prestatzen hasteko, eta musika jotzen dutenen errepertorioak eskarietara egokitzeko. Euskadiko Musikarako Goi-Eskolaren (Musikene) sorrera eta honen pixkanakako finkatzea eta proiekzioa aukera onak dira, musika-ikasketa profesionalen inguruan sakontzeko.
- Errepertorio gaztea azalera ateratzen ari den alorra da, musikari gazteentzat garapen aukera handiak dituena, bai autodidakta direnentzat bai prestakuntza instituzionalizatua dutenentzat.
- EITBk hainbat konpromiso har litzake antzerki konpainiekin, ikuskizunei buruzko informazioa emateko, antzerkia sustatzeko, are ikuskizun eszenikoak ekoiztera begira ere.
- Museo sistemak —Guggenheim da ezagunena— ezartzen duen marka berezia baliagarri izan daiteke kalitateko euskal kultura nazioartean sustatzeko eta ezagutarazteko.
- Marka-irudi bat sortu behar da artearen esparru guztietan. Kalitate maila handia ezinbesteko baldintza da. Eta Euskal Herritik kanpoko merkatuko arrakastak ere bai. Euskal merkaturako egokiak diren produkzioek gai izan behar dute merkatu horretatik kanpo ere ateratzeko, geure eskakizunetara ere egokitzearren.
- Herrialdearen neurriak, eta honekin batera musika jarduerak eta jarduera eszeniko batzuk garatzen diren hiriak elkarrengandik hurrean egoteak, hurbiltze handiagoa ahalbidetu beharko luke, eta baita koordinazio handiagoa ere ekitaldien antolaketan, truke handiagoekin batera.
- Epe ertainean, Sareak bertan sartutako konpainien bira jarraituak lor litzake.
- Literaturaren, eszenaren, ikusizkoen zein musikaren esparruan epe labur, ertain eta luzeko jarduera-planak defini eta adostu ditzaketen sektorekako erakundeak finkatu beharra dago. Kulturaren Euskal Kontseiluak bultzada bat eman lezake, eragileak lantaldeetan elkarlanean aritu daitezen, hain zuzen merkatua erregularizatzera eta erabakiak hartzera begira eta clusterren dinamiken antzera.
- Europako hainbat herrialdetan eta eremutan dauden ereduak azter daitezke (*benchmarking*). Izan ere arte eszenikoetan badira eredu hauek (hitzartutako konpainiei dirulaguntzak ematetik kudeaketa publikoko antzokiei lotutako konpainia egoiliarretaraino helduz), edota arte plastiko eta ikusizkoetan (proiektuen bulego moduko baten bitartekaritza, laguntza-sistema batez osaturik berau, eragileak inplikatzen dituzten proiektu zabalak aurkezteko aukeraz).
- Mezenas formulak eta beste batzuk ere aztertu behar dira, enpresa pribatua sar dadin, hain zuzen ere, ikusizko, literaturako, musikako eta eszenako arteen obra edo proiektuen produkzioan.

| KULTUR INDUSTRIEN AZPISISTEMA | AUKERAK |
|---|---|

- Behar eta kanal ugalketari lotutako eskari handiak balio berria ematen dio eskaintza interesgarriari, eta aukera bat da, halaber, herrialde, eragile eta enpresa sortzaileentzat, eskaintzak sortaka bideratzen dituzten eragile berrientzat bezalaxe. Ohiko eskaintzarekin batera «prototipoen industria» baten kalitatea eta sortze-arriskua duen ospe oneko ildo bati eustea interesgarria da. Halako *label* edo marka bat lortu behar da euskal kultur produkziorako, eta horretarako nortasun propioaren alde egin behar da, kalitatez, *label* horri koherentzia emateko ahaleginaz, eta espazioak bilatuz.
- Badugu sortzaile belaunaldi berri bat (film laburretan abiatutako zinegileak, eleberrigileak, musika taldeak...), baina gehiago dira aukera bat benetako indargunea baino, baldin eta mass-medien errekonozimendua, erakundeen laguntza eta enpresa arriskua iristen ez bazaie. Edukietan espezializatzeak enpresa eta profesional egiturari laguntzea eskatzen du, produktuen gainetik. Euskal industri tradizioak eta elkarlanerako clusterretan dugun eskarmentuak egun dauden baliabideetatik probetxua ateratzea ahalbidetzen digute.
- Oso interesgarriak izango lirateke barne zein kanpo aliantzetarako politikak, eta are interesgarriagoa bazkide estrategiko kanpotarrak izatea.
- Hedabideek funtsezko eginkizuna dute zabalkundean, kultur edo literatur programen bidez edota musikari zabalkundea emanez, film laburrak eskainiz eta kultur agenda egonkorra mantenduz. Bidezkoa litzateke hedabide publikoetan eta emakida autonomikoko FM pribatuetan kultur proposamenetarako emisio kuotak finkatzea, alor honetan beste hedabide pribatuekin ere hainbat akordio lortzearekin batera. Telebista-kanalen kopurua areagotzean, asko zabaltzen dira produktuak banatzeko eta erakusteko aukerak. Herrietako telebistak, publikoak eta pribatuak, garatzeak indar handia emango lioke ikus-entzunezkoen produkzioari, komunikazio-sistema hobetzearekin batera.
- Nazioarteko proiekzioa duten programak finkatzea (Niniak, Kimuak...) edo taldeak ferietara joatea (literatur eta musika ferietara, elkarrekiko katalogoen edizioa...) edo nazioarteko proiekzioa duten ekitaldiak baliatzea (Donostiako Zinemaldia) edo munduko euskal etxeen sarea erabiltzea, erakusleiho bikainak dira Euskadin egindakoaren sustapen lana egiteko.
- Alabaina, merkatuetan banaketa-egiturak finkatzeko bertako banatzaileak prestatu behar dira, «esportaziorako partzuergo» edo antzekoekin batera.
- Zineari dagokionez, euskal kapitala duten aretoen sareak epe luzeko akordioak ahalbidetzen ditu, bertako eta euskarazko zinearen onerako.
- Eskulangintzaren industriari dagokionez, lan eta produkzio prozesuak hobetu behar dira, eta eskulangintza aisia-turismo-kultura estrategietan txertatu. Banaketa komuna interesgarria litzateke.
- Software libreak (Linux) —Eusko Legebiltzarrak bidetzat aitortuak— aurrezki eta harreman aukerak eskaintzen dizkio herrialde txiki bati. Era berean, *copyleft* espazio bat sortu behar da —zerbitzu publikoko sarrera libreko edukiak—, laguntza espezifikoak banatuz edo deialdi arautuak antolatuz; eta hori beste egoera, produktu eta zerbitzuetako jabetza intelektualeko eskubideekin batera daiteke.
- Sareari lotutako merkatuak (deskargak, salmentak, sustapena...) pixkanaka-pixkanaka ari dira zabaltzen, baina denborak aurrera egin ahala merkatu-kuota irabaziko dute. Honek argitaletxe, fonografi eta ikus-entzunezkoen alorretarako balio du, zer esanik ez multimediarako. Eskulangintzako eskarietarako ere garrantzitsua izango da. «Banda zabalak» orain arte ezagutu gabeko aukerak eskainiko ditu, esate baterako *off line* eta *on line* produktu mota berriak, deskargakoak, *streaming* erakoak (biltzerik ez dagoen fluxu etengabea) edo *pull* sisteman (informazio pertsonalizatua) edo *push* gisa (puntutik masarako zabalkundea) jasotakoak.
- Finantzaketarako eta inbertsioari laguntzeko lanabesen beharra dagoen kontzientzia sortu da; lanabes horiek kulturarekin eta eskulangintzarekin, «ekonomia berriarekin» eta ukiezinekin lotuagoko alorretara egokituta egon beharko dute.

### 2.1.3. Ahulguneak

| KULTUR SISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Oraindik ere ikuspegi komunik ez dago euskal kultura zer den, zein eduki dituen eta bere garapenaren beharraren inguruan.
- Araututako hezkuntza sistema arruntean idazketak oso presentzia aktibo eskasa du; hezkuntza plastikoa eta artistikoa atzeraka doaz; eta dantza eta arte eszenikoak agertu ere ez dira egiten ikasketa-planetan. Ez dago gure musika edo ikus-entzunezko kulturaren hezkuntza bidezko transmisiorik. Eskulanak oso balorazio gutxi ematen zaion ikasgaia dira.
- Akats larriak daude hastapeneko prestakuntza espezifiko, profesional eta jarraituaren eskaintzan eta arte eszenikoetako lanbide-multzoan (sortzaileak, interpreteak, teknikariak, jantzi-diseinugileak, argiztatzaileak, eszenografoak...) eta dantzan. Defizit garrantzitsuak daude, halaber, museo, biblioteka eta agiritegietarako prestakuntza teknikoan eta birziklatzean. Eraberritze, eraikuntza-teknika eta abarretan, profesionalen heziketa-maila eskasa da oraindik ere. Ondare, arte edo kultur industrien enpresa-kudeaketarako prestakuntzan ere hainbat defizit dago.
- Prestakuntza-zentro espezializatuak eta espezializazio egokituak —idazketan, musikan, ikus-entzunezkoetan, eskulangintzan eta multimedietan— ez daude maila egokian, eta horien garapena eta eragimena hobetu beharra dago. Prestakuntza-sistema berrikusi behar da, sortzaileen eta teknikarien prestakuntza bultzatzeko.
- Sarritan ematen da plantillen ezegonkortasuna biblioteka eta agiritegietan, espezialista gutxi, diru-hornidura mugatuak, ordutegi desegokiak eta denbora falta zerbitzuaren administrazio-kudeaketa hutsetik aparteko eginkizunei ekin ahal izateko. Arteetan eta kultur industrietan, lansarien maila eta enpleguaren egonkortasuna edota gizarte-segurantzako sistemak oso prekarioak dira gehienentzat.
- Sortzaileei (literato gazteei, musikariei, dantzariei...) ematen zaizkien laguntzak edo pizgarriak, edota egiturak, ez dira behar bestekoak. Musika klasikoan, interprete gisa, zinegintzan edota dantzan ari diren gazte askok kanpora jo beharra dute, ezinbestean, bere lanean arituko badira.
- EAE ez da aurreneko postuetan agertzen irakurketa eta musika entzutea jasotzen duten azterketetan. Egiten diren inkestek erakusten dutenez, irakurketa-indizeak beherantz doaz. Nerabe gehienek ez dute irakurtzeko ohiturarik, eta euskarazko irakurketaren egoera are larriagoa da.
- Merkatua hain txikia izanik, ez dago behar adinako eskala-ekonomiarik. Euskarazko produkzioarentzat izan ezik, kanpoko eskaintza da nagusi, eta honen sorburua, sarritan, multinazional edo estatu mailako korporazio handietan aurkituko dugu. Euskal kultur eremuak hainbat hizkuntza ditu, eta horixe du, hain zuzen ere, ezaugarrietako bat. Biztanle gehienak elebidunak ez izateak areagotu egiten ditu eskala-desabantailak.
- Euskal produkzioak eginkizun periferikoa betetzen du espainiar estatuko kultur merkatuetan (arte eszeniko, liburu, disko eta ikus-entzunezkoetan, besteak beste).
- Euskararen merkatuak mugatuak dira, eta lurraldeka zein kultur politiken arabera banatuta daude. Gai batzuetan —zinean, hedabideetan...— euskara arloko jakintzaren eta gizarte erabileren atzetik doaz.
- Euskararen unibertsoaren garapenean argiuneak eta itzalak ditugu. Iparraldean gertatzen ari den atzerakada sozio-kulturalak eta Nafarroan burutzen ari den euskararen inguruko politika oso kezkagarriak dira.

| KULTUR SISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Sorkuntzari laguntzeko politiken arloan, herri administrazioen artean oso koordinazio gutxi dago, eta horrenbestez ahaleginak sakabanatu egiten dira. Kultur politikan hutsune handiak ere izan dira: Euskal Herrian diren administrazioen arteko harreman bizirik eza; estatuaren politikaren ondoriozko zailtasunak, batez ere komunikazioari dagokionez; erakundearteko koordinaziorik eza, lurraldeka bereiziriko politika izaten baitute batetik eta, gai batzuetan, baita definiziorik eza ere bakoitzari dagokionari buruz; nagusiki produktura eta ez autoretza edo enpresara begirako politika; prestakuntza, finantza, zerga eta industri baliabideen erabilpen mugatua; duela gutxi arte ez zegoen liburuari, ikus-entzunezkoei edota, besteak beste, fonografiari buruzko politika integrala garatzeko inolako bokaziorik...
- Euskal finantza sistemaren, pribatu zein erdi-publikoaren kultur mezenasgoa, babesa eta parte hartzea eskasak dira.
- Euskalduntze neurri sorta bat prestatzeko dago oraindik; ikus-entzunezkoen, aisialdiaren eta informazio eta komunikazioaren teknologia berrien industriarako oinarrizko plan baten itxura izan beharko du sorta horrek, eta adin goiztiarrenetatik hasita, lehentasun argi gisa.
- Erakundeek alde bakarreko joera erakutsi dute sare, azpiegitura, teknologia, plataforma eta lanabesekiko, eduki, aplikazio eta erabilera errealen kaltean, bai maila orokorrean bai, are modu nabarmenagoan gainera, kultur arloan ere. Honek estrategi definizio falta arriskutsua eragin diezaieke bai gutxiengo baten kulturari baita funtsean balio inmaterialen inguruan baloratuko den indar biziko sektore bati ere. Kultur eremuei buruzko edukietako ikerkuntza, edota gizarte erabilera errealei buruzkoa, ikerkuntza teknologiko edo aplikatuarekin bateragarriak izan arren, bigarren mailakoak dira. *Euskadi Informazioaren Gizartean Planak* ez ditu biblioteka eta agiritegiak kontuan hartu jakintza gordetzeko eta zabaltzeko oinarrizko eragiletzat.
- «Konekta Zaitez» bezalako programei esker izandako hazkundea garrantzitsua izan bada ere, sarea erabiltzeko kultura maila baxuan dago. Interneti dagokionez, are eskasagoa da produktu propioak banatzeko eta erakusteko duen gaitasun handiaz egiten den aprobetxamendua.

| ONDAREAREN AZPISISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Euskal ondare etnografiko higigarri zein higiezinari buruzko jakintzan eta beronen sailkapen eta katalogazioan oso hutsune larriak daude, ondare etnografiko, industrial eta arkitektonikoan bezalaxe; honek hondatze eta desagertze arrisku latza dakar berarekin. Argitara atera ez den arte ondare asko dago, eta pizgarri-sistemak ez dira behar adinakoak izan. Ondare etnografikoaren (eraikin berezi, aztarnategi, baserri eta abarren) eta industrialaren suntsipen bizkorra gertatzen ari da, industria, hirigintza eta etxegintza planak direla eta.
- Indusitako materialak tratatzeko finantzaketa-baliabide eskasak daude, ikerkuntza *arkeologiko* proiektu askotan tratamendu zatikatua gertatzen da eta, horrenbestez, behar bezala kontrolatu gabeko arkeologi esku-hartzeak ere bai. Erakunde publikoek finantzatutako arkeologi esku-hartzeetatik sortutako agiri grafiko zein idatzien pribatizazio arazo batzuk ere ageri dira.
- Ondare *etnografikoari*, beste ondareekin alderatuz gero, erakundeek balio txikiagoa aitortzen diotela dirudi.
- *Ondare eraikinen* kasuan, zentzuzko erabileraren kaltean nagusitzen ari dira erabilgarritasun eta forma irizpideak. Eraikin baten barnealdea suntsitzeak edo soil-soilik fatxadari eusteak ez du zerikusi handirik zaharberritze eraginkor batekin.
- Ekipamendu, zaharberritze, katalogazio, pertsonal eta kudeaketa estandarrak homologatzeko oinarrizko betekizunak ezartzen dituen *museoen* erregistrorik ez dago, eta homologazio hori behar-beharrezkoa da baliabide publikoak eskuratzeko. Akats ugari dago (ordutegiak, ez atzera ez aurrera gelditzea, itxitako museoak, autofinantzaketarako ezintasuna eta babesteko zailtasunak...).
- Era berean, oraindik ez dago museo plan nazionalik eta museo publikoen lurralde-koordinaziorako mekanismorik. Erakundeen arteko koordinazio ezak hainbat defizit eragin ditu museoen eta dauden baliabideen, araudi espezifikoaren eta hainbat bilduma interesgarriren museo-estalduraren arloan. Interes handiko hainbat museotan utzikeriaz jokatu da, eta gaur egun oso kontserbazio egoera kaskarrean daude.
- Merezi luke Guggenheim museoaren eta euskal kultur ingurunearen arteko harremana berrikustea.
- *Agiritegi* pribatuen bilduma eta kontserbazioari dagokionez, Euskadin gabeziak eta hutsuneak handiak dira; honek erakunde pribatu zenbaiten (garrantzi eta tradizio handieneko enpresa, alderdi politiko, elkarte, familia eta abarren) oroimen historikoaren zati diren elementuen galera eragiten du. Era berean, ez dago tradizio dokumentalari buruzko ikuspegi orokorrik.
- Biblioteka zentroen arteko koordinazio ezaren eta lankidetza urriaren ondorioz, ez dago baliabide eta zerbitzu optimizaziorako sistema integraturik. Bibliotekei buruzko araudi orokor zein berariazkorik eza eta euskal biblioteken sistema gorpuzteko zerbitzu zentralik eza izan daitezke sakonean dagoen azalpena. Gauza bera gertatzen da agiritegi sisteman. Oraindik ez dago euskal bibliografia nazionalik. Katalogoen euskalduntze maila eskasa da (oso gutxi dira katalogoa euskaraz edo ele bietan duten bibliotekak). Biblioteka kudeaketarako informatika-programa ez homogeneo gehiegi dago.
- Ahalegin handiagoa egin behar da pizgarri eta laguntza ekonomiko eta finantzarietan, ikerkuntza, kontserbazio, berreskurapen, babes, zabalkunde, planeamendurako laguntza eta abarrei eta ondare mota guztiei begira.

| ARTEEN AZPISISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Azpiegitura nagusiei lehentasuna emateko joerak hainbat arrisku ditu. Inbertsio ahalegin handi hori artearen eta artisten kalterako izan daiteke.
- Era guztietako proiektu plastiko, ikusizko eta eszenikoetan gehiegizko kopuruak gerta daitezke, eta euskal merkatuaren sare komertziala edota sare instituzionala ezgai ager daitezke hain obra kopuru handia hartzeko. Merkatuak erregularizatu beharra dago.
- Konpainiek berehalako ustiapen-emaitzekiko duten mendekotasuna oso handia da. Atomizatutako konpainien *antzerki* produkzio eta birek hainbat arazo izaten dituzte zirkuitu koordinazio, banaketa eta formatuetan, errentagarritasuna bilatu behar dutelarik. Laguntza publikoa gehiago bideratzen da zabalkundera begira produkzio, sorkuntza eta ikerkuntzara baino.
- ETBn oso oihartzun txikia izaten dute gaztelaniazko zein euskarazko ikusizko arteen zein arte plastikoen edukiek, literaturakoek, edo musika-kritikakoek. Dantzaren kasuan, informazio eskasarekin eta agendarekin batera, bakar-bakarrik dantza tradizionala eskaintzen du, hainbat errepikapenekin eta zeharo muturreko orduetan gainera. On litzateke EITBk edukiontzi erako kultur programazioak zabaltzea, edota espezifikoak bestelako ordutegi egokiagoetan.
- *Musikan*, ia ez dira programatzen konpositore gazteak, eta musika-editoreak ere (dirulaguntzarik gabekoak) oso gutxi dira. Ezegonkortasuna sumatzen da ganbara-taldeetan, noizean behin eskaintzen baitituzte kontzertuak, eta horren ondorioz, plantillak aldakorrak dira eta entzuleen leialtasuna ere hala-moduzkoa izaten da.
- *Dantzari* dagokionez, batzuetan pertsona batek berak egin behar izaten ditu sortzaile, produktore eta interprete lanak bere dantza-sorkuntzan. Laguntza eskasegiak daude haur, gazte zein ikusle helduentzako ekitaldiak eta Euskal Herriko zein kanpo alderako banaketa lortzeko. Ez dago dantza edo eszena lengoaia berriei eskainitako feriarik edo lehiaketarik.
- Erakundeen laguntzaren oso-oso mendean dagoen arlo pribatua da. Inolako jarduera diruz lagundu aurretik, kanpo edo barne ebaluazio bat egin beharko litzateke.
- Gaurkotasunezko kultur zabalkunderako aldizkari baten falta sumatzen da, batik bat eszenikoak ez diren arloetan.

| KULTUR INDUSTRIEN AZPISISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Euskal merkatua txikia da, batik bat kanpotik heldutako produkzioek dute hartua, eta ez da erabat elebiduna (gaztelania-euskara); beraz, urrunago ere begiratzen ez duten sortzaileentzako aukerak txikiak dira. Gainera, sorburu multinazionaleko atzerriko produkzioa nagusitzen da disko eta zinean.
- Gehiegizko eskaintza edo gain-produkzioa dago —beste toki askotan bezala— edizio eta fonografian, tituluak asko baitira, nahiz tirada txikikoak, defizit handirik sor ez dadin. Ikus-entzunezkoetan, multimedian eta eskulangintzan egoera doituago dago. Gabezia nagusiak honako hauek dira: enpresak produkzio lokaletara gehiegi mugatzea, enpresa-integrazio txikia eta elkarrekiko proiektuetarako lankidetza urria.
- Ez dugu besteetatik tira egiten duen alorrik, esate baterako Madrilen ikus-entzunezkoak edota Katalunian liburuarenak egiten duten moduan. Lankidetzarako enpresa arteko sareak gutxi dira.
- Euskal enpresek neurri arazoa dute. Gehien-gehienek neurri txikiegia dute: mikroenpresak eta banakako enpresariak dira (ikus-entzunezkoak, eskulangileak); eta espainiar merkatuan oso pisu txikia dute. Tirada txikiak egiten dituzte, eta merkatu txikian zaila da horiei errentagarritasuna ateratzea —EAEra besterik begiratu ezean—; are gehiago merkatu txiki horretan bertan ere zati txikiena eskuratzen badute. Euskarazko edizioari arazoa larriagotu egiten zaio. Zinearen kasuan, ia-ia erabat galaraziko luke euskaraz produzitzea. Produkzioen kostu finkoak handiegiak dira, eta gainera barne-merkatuan oso promozio handiko produkzio kanpotarrekin lehiatu behar dute. Horrek guztiak autofinantzaketa eta inbertsio ahalmen eskasa dakar, eta finantzaketa publikoaren mendekoegia izatea.
- Kultura eta aisiako espainiar enpresa sendoen produkzio-sukurtsalen presentzia txikia da, eta hutsaren hurrengoa talde multinazionalei dagokienez.
- *Euskarazko* produkzioa adierazgarria da liburu eta musika edizioan; ikus-entzunezkoetan eta multimedian dezentez txikiagoa da; eta batere ez dago zinean. Urtean filmen bat egin beharra dago euskaraz, eta haur eta gazte merkatua sortzen joan behar da, euskarazko film bikoiztuak edota bertakoak onar ditzan. Euskarazko ikus-entzunezkoak erabilera soziolinguistikoen atzetik doaz, oso atzetik, bai eskaintza arazoak bai eskari arazoak, baita ikus-entzunezkoen gizarte-praktikak ere tarteko direla.
- Estatuan, kultur eduki eta zerbitzu digitalen azpigarapen larriak, kable bidezko sare digitaletan eta Lurreko Telebista Digitaletan (LTD) gertatzen denarekin batera, zaildu egiten du informazioaren gizarteranzko benetako igarotzea. Ia ez dago sarean zabaldutako obrarik, artikulu eta azterlan batzuk izan ezik. Euskarazko *software* produkzioan ere gabezia handiak daude, euskaraz argitaratutako artxibo edo material bildumen kasuan bezala. Euskarazko corpusa txikia da.
- Oso multimedia proiektu gutxi dira, historialari eta arkeologoz, narratzaile eta eduki sortzailez, eta eragile teknologikoz osaturiko diziplina anitzeko lantaldeek parte hartzen dutenak.
- Euskal eskulangintza arloa oso txikia da enpresa, enplegu eta produkzioan, beste komunitate eta herrialde batzuekin alderatuta. Eskulangintzako hainbat lanbidetan belaunaldi berririk ez sartzeak, batetik, eta enpresa gisako kudeaketako eta banaketako arazoek bestetik, etorkizuna ilundu besterik ez dute egiten.
- Hedabideetan ez dago musika produkzio propioetarako inolako emisio-kuotarik.
- Estatu mailako irrati eta telebista kate pribatu eta publikoek, EAEko ikus-entzule kopuruaren % 75 bereganatzen dutelarik, produkzio ez-euskaldunari ematen diote lehentasuna. Estatu mailako kateen programa espezializatuek —*top 40* bezalakoek— gaztelaniazko musika eta masa-kulturari ematen diote lehentasuna; eta *Major*ek banaketa kontrolatzen dute, eta indar handiz sartu dira zine-emanaldien arloan Euskal Herri osoan, lehia librearen aurka doan sorta edo zerrenda itxien sistemarekin jarraitzen dutela.

| KULTUR INDUSTRIEN AZPISISTEMA | AHULGUNEAK |
|---|---|

- Banaketa da euskal kultur industrien hutsunerik handiena. Merkatu eta marketinean estrategia eta kokatze arazoak daude. Banaketa-enpresen gatibu den alorrean banaketa-kostuak gero eta handiagoak direla, zaila da bertako produktuak Euskaditik kanpo agertzea.
- Oraindik ez zaie duten garrantzia aitortzen produktuen abiatze, sustapen eta publizitate estrategiei, produkzio ororen kostuaren zati gisa; eta ikuspegi komertzialari ere ez kreazioak aukeratzeko unean. Eskulangileak ere produkzio prozesuan biltzen du indarra, banaketa eta merkaturatzea bazter samarturik lagata.
- Hipermerkatu handiek (Eroski, El Corte Inglés, Carrefour eta abarrek), ez dute euskal kultur produkzioaren aldeko ahaleginik egiten, inolako ataletan.
- EITBk sustapenaren arloan duen eginkizunak, bere aukeraketa-irizpidetik abiaturik ere, eta kultur industria guztiei begira, funtsezkoa izan behar zukeen.
- Nazioartekotzeko bokazio kaskarra dago. Laguntzarik ez dago euskal liburu, disko edo filmak Latinoamerikara esportatzeko.
- Hainbat esparrutako errealitatea ezezaguna da (esaterako disko, eskulangintza eta kultura digitalari dagokienez), eta horrenbestez zaila da horiek berrantolatzeko bideak zehaztea. Kasu batzuetan, estrategi planak edo liburu zuriak prestatzea oso lagungarri izango litzateke.
- Digitalizazioaren erronken aurrean Kultura Sailak ez du inolako jarduera planik indartzera eta dinamizatzera begira.

### 2.1.4. Mehatxuak

| KULTUR SISTEMA | MEHATXUAK |
|---|---|

- Indarrean dagoen hezkuntza sistemak ez du irakurzaletasunik sortarazten. Eta irakurketa are baxuago ageri da ikasketa teknikoen arloan. Prentsa irakurketa salbuetsita, maila baxuagoa da, bai irakurtzeko ohiturari bai liburuak erostekoari dagokienez, Madril eta Bartzelonan baino. Euskarazko liburuen erosle militantea beherantz doa —esate baterako, seme-alabentzat erosten duten gurasoak—, eta horrenbestez editoreek zuhurtzia handiagoz jokatu behar dute proposamenetan.
- Gazteenek (hamabost eta hogeita bost urte bitartekoek) musika gehiago kontsumitzen dute, euskal musika gutxiago ordea, eta gero eta disko gutxiago erosten dute. Musika dohainikoa den ideia da nagusi gazteen artean. Pirateriak eta kopia pribatuek gora egin dute, baita euskal produktuetan ere.
- Sareko kulturarekin irakurketa laburrerako eta idazketa ezin murritzagorako ohiturak sortzen dira.
- Musika-praktika atzerantz doa etxeko giroetan, eta mantentzen dena haur adinetan garatzen da.
- Telebista zatikatu eta tematikoarekin ideiak, identitateak eta kezka kolektiboak ere zatikatzeko arriskua dago; eta baita kalitate txarreko telebista sortzekoa ere.
- Telebista programazio jeneralistaren kalitate jaitsiera populismoaren bidetik; telebista tematikoarekin eskaintza zatikatzea; ikus-entzunezkoetan ordainketa bidezko kulturaren hedapena... hauek guztiek arazoak sortzen dituzte gizarte guztietan, baina arazo larriagoak izaten dira oraindik beren nortasuna finkatua ez dutenetan, euskal gizartean, esate baterako.
- Prestakuntza arloko gabeziek eta derrigorrezko autodidaktismo gehiegizkoek mugatu egiten dituzte sektorea hazteko aukerak, eta proiekzio aukerak eragozten dituzte. Profesionalizatze bidean ere hainbat akats antzematen da.
- Eskala-ekonomiak dituzten beste toki batzuetan sortzaile eta interpreteek igurikapen profesional hobeak edukitzeak kultur basamortu bihurtzen du herrialdea. Musikari, idazle, musika talde eta zinegileek Madril edo Bartzelona aldera jotzen dute, beren lanaren zabalkunde handiagoa lortzeko aukera baten bila; izan ere, Euskadiko hasierako edizioa tranpolin bat da. Musikaren kasuan, multinazionalek eraman egiten dituzte interprete eta talde nabarmenak, zigilu independente edo txikiekin hasi ostean.
- Teknologia berrien erabilera eta aprobetxamenduaren ezarpen baxu samarra ikusten da, eta gizarte-segmentu berrien sarerako sarrera, hazten doan arren, moteldu egin da. Nabigazioaren ordez, *gune* (site) egonkorretarako sarrera baliatzen da. Sarearen eta eduki askotarikoen erabilera trinkoa izan arren, oraingoz, ordaintzen duen merkatu txikia dago edukien produkziorako, eskari publikorik tartean ez denean behintzat.
- Pirateria eta Interneten erabilera desegokia dira egiletza eta interpreteak ordaintzeko mehatxu behinenak.
- Kultur eduki propio, erakargarri eta erabilerrazen eskasia dago, edota horrelakoen zabalkunde egokia falta da. Halaz, internauta gazteek beste kultura batzuetako edukietara joko dute, bererako interesa galdurik. Aisia jardueren eskaintza handiak zaildu egiten du egoera.
- Sareko komunikaziorako —edukiei dagokienez— erabiltzen diren hizkuntza nagusiak ingelesa eta gaztelania dira, gehienbat; honek bazterketa egoeran ezartzen ditu eremu urriko hizkuntzak.
- Edukietarako sarrera izateko unean, mehatxu garrantzitsuenetako bat gizartearen zati handi baten prestakuntza digital urria da, eta honek eten digitalaren arriskua dakar , belaunaldien artean, batik bat.
- Beste mehatxu handia ordainketa bidezko kultura finkatzea da, indibiduala baita, ez-sozializatzailea eta pribatiboa; honek barrena joaraziko lieke ongizatearen gizartearen ereduak dituen abantailei.
- Eten digitalari promozio handiagoa duten kulturen kolonizazioa gehitu behar zaio, horrelakoek aukera gehiago baitute garapen hedakorra izateko. Hau da, gizarte batek bere nortasunetik informaziorik eskaini ezean, informazioa eskaintzen dutenen informazio-bolumen horrek xurgatuko du kulturalki.

| ONDAREAREN AZPISISTEMA | MEHATXUAK |
|---|---|

- Ondare kognitibo etnografikoaren zati bat (ahozko tradizioak eta gutxi dokumentatutako lanbideenak, etab.) mehatxatuta dago, adineko pertsonak pixkanaka-pixkanaka joaten ari baitzaizkigu; beraz, ikerkuntza lanak bizkortu beharra dago.
- Mehatxatuta dauden industria ondareko milaka elementuen babesa erabat ezinezkoa da. Gehien-gehienak orain artean sailkatu ere ez dira egin, gutxi baitira horretan ari diren teknikari gaituak. Giza baliabiderik ezak eragin negatiboa du Jaurlaritzaren Kultura Sailak duen babes politikan. Ia-ia premiazko kasuak dira lantzen diren bakarrak, eta ez da inolako babes lan programaturik zertzen.
- Jabetza pribatuko industri eta higiezin ondarearen zati handi bat desagertzeko arriskua oso handia da, bai interes ekonomikoak bai lurraren ingurukoak direla tartean, zeren eta orain artean ez baita horiek babesteko eta gordetzeko mekanismo egokirik abiarazi.
- Sorburuan digitalak diren agirien sorkuntza gorantz joatea proba bat da, dokumentazioaren aukeraketa, kontserbazio eta etorkizuneko sarbidera begira.
- Ondarearentzako mehatxuak dira, halaber, kultura tradizionalaren atzerakada, industri kulturaren higadura, arkitektura ondarearen hutsaltzea edota bakar-bakarrik masa-kontsumo ludiko eta turistikoari begira zertzen diren esku-hartzeak (baserri-turismoa, natur espazioak, ekomuseoak).

| ARTEEN AZPISISTEMA | MEHATXUAK |
|---|---|

- Esperimentatzea bultzatzen duten sorkuntza-tailerrak falta dira idazketa, musika edo irudirako. Eskulangintzaren kasuan, gehienei kosta egiten zaie bere diseinuak gizartearen etengabeko bilakaerara egokitzea.
- Musika-tresna tradizionalak jotzen dituzten musikari gazte eta oso maila onekoak izateak erronka latza du, gizarte eta lanbide kokapenari begira.
- Musika-erakunde batzuetan ez da gure autore eta interpreteenganako eskuzabaltasun handirik ikusten.
- Antzoki publiko batzuen programazio irizpideak ikusirik, badirudi antzoki pribatuak direla.
- Atzerriko merkatuetara iristea ikaragarri zaila da laguntzarik izan ezean.
- Pirateria eta Interneten erabilera desegokia azpia jaten ari zaizkie gazte musikaren arloko profesionalek finkatzeko dituzten aukerei, nahiz arlo hau besteak baino askoz egituratuago eta antolatuago egon funtzionalki.
- Egun dauden udal musika banda urriek (nahiz bat edo beste birsortu den, Bilboko Udal Musika Banda, esaterako) zailtasun izugarriak dituzte grabatutako musikarekin eta herri musikaren egungo beste forma batzuekin lehiatzeko. Musikari afizionatuen banden kudeaketa eta zuzendaritza erdi-profesional bihurtu ezean, banda hauek nekez iraungo dute.
- Musika klasikoko kontzertuetan ikusizko alderdien berrikuntza falta da, eta horrek urrundu egiten ditu egungo entzule potentzialetako asko.
- Belaunaldi-ordezkapen arazoa dago epe ertainera begira, hain zuzen orkestra sinfonikoen entzuleen batez besteko adin altua dela eta; hala, premiazkoa da etorkizuneko entzuleria sortarazteko bideak aurreikustea. Oraingoz eraginkortasun gutxikoak dira entzule berriak erakartzeko baliabideak eta sistemak.
- Sozializazio moduen bilakaerak partaidetza bidezko musika jardueren, hots, abesbatzen, afizionatuen musikaren eta abarren balio sinbolikoaren pixkanakako galera aurreikustea ahalbidetzen digu; horri erantsi behar zaio, inondik ere, soinu aldetiko kalitatean gero eta gehiago eskatzen dela.

| KULTUR INDUSTRIEN AZPISISTEMA | MEHATXUAK |
|---|---|

- Euskarri anitzeko produktuak estandarizatzeko joera dago (eduki bera edo oso antzekoa hainbat euskarritara egokitzekoa).
- Enpresa txiki eta ertainen (ETE) iraupena eta eskaintzaren aniztasuna —euskaraz eginiko literatura, fonografia eta multimedia produkzioa barne dela— kolokan dago, nazioarteko merkatuan eta Espainiakoan gertatzen ari den argitaletxe eta diskoetxeen gero eta kontzentrazio handiagoaren ondorioz; telebistako operadoreak zineko enpresen bazkide gisa agertzea eta *puntu-com*-en goitik beherako integrazioa ere norabide berean doaz.
- Industria diskografikoaren eta zineko balio-katearen zati baten transnazionalizazioak merkatuaren kontrola dakar berarekin, konpainia multinazionalen eta neurri handiko enpresa independenteen eskutan baitago; horrenbestez, euskal publikoaren arreta bereganatzen dute, publiko gazteenarena batik bat. Globalizazio efektuak munduko merkatu guztiak hartu ditu mendean, eta salmenta handiak produktu gutxi batzuetan egiten dira, gehien promozionatuak baitira mass-medietan, eta salmenta bera hipermerkatu handietan-eta gauzatzen da. Konpainia txikien eta gutxiengoen kulturen posizioa gero eta zailagoa da.
- Enpresak Madrilen biltzeak banaketa, eskubideak eta ikus-entzunezko edukien produkzioa monopolizatzea ekar dezake.
- Teknologia eskuratzeko egin beharreko inbertsio garestiek —ekipamendua, konexioak eta lanabesak behar dira— hainbat muga eragiten dute zenbait kultur industriatan edukiak ordaintzeko unean.
- Arlo diskografikoa —ordaintzen duten merkatuei buruzko zalantzaz beterik dagoela— eta eskulangintza birmoldaketa prozesuan daude; azken honi, sarritan, balio handieneko produkzioen kostuen eta sarreren kontuak ez zaizkio ateratzen, eta prezioek ere ezin dute beti islatu lanak eta materialak duten benetako balioa.
- Produkzio digitalari dagokionez burutu den «denak balio du» politikak produktuen kalitatea murrizten du, baliabideen aukerak ez aprobetxatzea dakar, bakar-bakarrik kultura testuala bultzatzen du, eta ez da lengoaia berririk sortzen. Adostasuna dago, «hobeto gutxi egitea, baina kalitatezkoa»-aren bidetik. Zailtasunak daude negozio digital berriei errentagarritasuna ateratzeko.
- Eragile globalak eta eremu handiko agenteak egotea, merkatu edo publiko handiak eta inbertsio gaitasuna dutela, egiazko mehatxua dira ikus-entzunezko produktu eta eduki propioak banatzeko eta erakusteko. Balio-kate osoan zehar bertikalean egiten duten talde editorialak daude (Planeta-ren kasua) eta komunitateen barne-eskaria prezio hobean ase dezakete. Bokazio globaleko eskubideen liburutegiak dituzten enpresak badira gaur egun.
- Zine-areto kopurua biderkatzeko fenomenoa dugu (multiplex eta megaplex aretoak) eta liburudenden kateena; zine-enpresek edo editorialek, berriz, txikiak izaten jarraitzen dute. Halaz, txikiak eskaria kudeatzen dutenen mendean geratzen dira. Kontu hau larriagoa da euskarazko liburuaren kasuan.
- Pirateria, P2P fitxategien trukea, hirugarren batentzako kopia pribatua eta legez kanpoko salmenta mehatxu handiak dira gaur egun, mundu mailan, batez ere fonografiarentzat; eta sektore hau sekulako krisialdian murgilarazi dutelarik, orain ezinbestekoa izango du egokitzea eta diskografi produktuaren balio-katea birdefinitzea; izan ere ulertu beharko du epe ertainean negozioa ez dela disko-salmenta izango, baizik eta musika-salmenta, beste bide batzuk baliatuz horretarako. Hipermerkatu eta antzeko denda-sareek gero eta espazio txikiagoa uzten diote tokian tokiko produktuari, eta sareok gero eta handiagoak dira eta gero eta salmenta ahalmen handiagoa dute. Honek guztiak euskal herrietako txikizkako saltzaileen sarea desagertzea ekar dezake.
- Irrati eta telebista zerbitzu publiko jeneralistentzat ere bada arriskurik, bai ordaindutako telebistaren lerratzeagatik bai bere eginkizunen hondatzeagatik.
- Gida elektronikoek eta sareko bilatzaileek oso promozio handia egindako produkzioei ematen diete lehentasuna.
- Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak, gaur egun, ez dira sektore editorial eta fonografikoarentzako aukera bat, mehatxua baizik. Izan ere, IKTBen merkatuak gehiago dira zerbitzu, dokumentazio, entretenimendu eta biblioteka lanerako, edota erabilera erabilgarri eta aldi baterakoa zertzeko, erabilera iraunkorrerako baino. Dena den, oraindik ezagutza askorik ez dago teknologia berrien erabilpenaren inguruan, edukiei eta formatuei dagokienez.

Aurkibidea

# 3. KULTURAREN EUSKAL PLANA 2007 ARTE, 2015 ARTEKO JARRAIBIDEEKIN



## 3.1. PLANAREN EGITEKOA, APUSTUAK ETA ILDO NAGUSIAK

Planak kontuan hartu behar ditu bai ekin beharreko sakoneko kontuak eta jarduerak bai beharko diren bitartekoak, hain zuzen jakinduria, koordinazio eta politika publikoen bermetik burutzearren. Dena dela, proposatutako Planak *dokumentu amaitu gabea* izan nahi du, bizia, eraikuntza eta hausnarketa etengabean dagoena, errealitatearekiko eta ekintzarekiko solasean ari dena, eta analisi eta akordioen etengabeko gaurkotzea behar duena. Azken batean, herria egiteko baliabidea da, euskal gizartearen premia eta kultur erronkei hobeto erantzuteko.

### 3.1.1. Egitekoa

Abiatzeko egitekoa *euskal kultura*, euskaldunon kultura, *XXI. mendearen kultur erronka handiei* ekiteko egoeran jartzea da.

Gainera kulturak duen garrantzi sozialaren kontzientzia hartu behar da. Kulturari kontserbazio, sorrera, ekoizpen eta zabalkundearen bidez duen balioa emateak bertute bi ditu: batetik, gure gizartearen integrazio, egokitze eta garapena ahalbidetzea; eta, bestetik, kulturak gure garaiotan duen potentzial ekonomikoa azalera ateratzea.

Eginkizun kolektiboa da hori, euskal gizartearen, gizarte zibilaren, kultur eragileen eta erakunde publiko eta pribatu guztien partaidetza gabe aurre ezin egin zaiona.

### 3.1.2. Apustu nagusia: ezagutzaren eta kulturaren hamarraldia

Paradigma edo erregistro aldaketak erakusten duenez, 80ko urteak industri birmoldaketaren urteak izan ziren moduan —oraindik ere antzematen den aurrekontu-ahalegin itzela lagun zutela—, eta 90ekoetan, laguntza publikotik abiatuta eta teknologia eta telekomunikazioen aldeko apustu zalantza gabearen bitartez, produkzio eremu berriak azaleratu ziren bezala, mende berriko lehen hamarraldia *ezagutzaren eta kulturaren hamarraldia* izango da, informazioan eta komunikazioan oinarrituta.

Apustu horrek lehentasunezko bost norabidetan abiatzea eskatzen du. Norabideok honako hauek dira:

- sorreraren eta produkzioaren nagusitasuna
- kultur integraziorako ahalegina
- nortasunaren sendotzea
- modernizazioa eta
- kanpo proiekzioa

Horrek, halaber, esan nahi du arlo publikoak tira egin behar duela sistema osotik, hain zuzen bere burua ahalik eta mailarik handienean mantentzeko gai izango den sektorea sortu arte. Are gehiago kultura

minorizatua duen herrialde batean, bere nortasuna eraikitzeko aldi berean jo behar baitu berarentzat eta —eskala-ekonomiarik ezean— besterentzat baliagarria izango den kulturaren ekonomia bat eraikitzera.

EAEko Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kulturarako aurrekontuek —udalen gastu publikoa kontatzeke— ezin dute hazkunde begetatibo hutsa izan, egungo erronken mailan egongo badira, baizik eta sostengu zalantzarik gabea eta denboran iraunkorra behar dute.

Honekin batera, beste apustu erabakigarria erakundeen arteko koordinazio iraunkorra da, sinergia eta eraginkortasuna lortze aldera, eta baita neurri sorta zabal bat aplikatzea ere, dirulaguntza eredu tradizionaletik urrunago heldu eta kultur eremuan ondorio biderkatzaileak izan ditzaketen beste eremu batzuetako esperientziak (finantzaketa politika, zerga eta industri pizgarriak...) baliatzeko.

### 3.1.3. Kulturaren esku zabalduaren bost atzamarrak

#### 3.1.3.1. Edukiak

Datorren hamarkadak *edukien* hamarraldia izan behar du, bai sorkuntzari bai produkzioari dagokienez.

Eta horrek esan nahi du ahalegin nagusia giza baliabideetan egin behar dela, gugan alegia; ezagutzan eta berorren aplikazioan; prestakuntzan eta ikaskuntzan; sorkuntzarako espezializazioan eta berori azalera ateratzeko produkzio-baliabideetan; sorkuntzaren azaleratze eta estimazio kolektiboan, hala orokorrean nola egiletza mailan, bai autore berriekin ahalegintzea denean kontua, balore berriak bilatzearren, bai autore finkatuak proiektatzea denean. Zentzu honetan, *sormenaren hamarkada* ere izango da.

Kultur arloari beste ezeri baino argiago aplika dakizkioke *ekonomia postindustrialaren* ezaugarriak. Aditu izan garen ekonomia industrialaren ordez ekonomia postindustriala jartzeko, ondorio guztiak hartu behar dira kontuan, eta ez soilik kualitatiboaren, ukiezinen eta produkzio-sistemak inguratzen dituzten zerbitzuen alde eginez (hor sartzen dira aldaketa teknologikoa, produkzio hobekuntzak, marketina, marka, kalitatea, espezializazioa...), baizik eta kultur arloan ere espezializatuz, izugarrizko gaitasuna baitu kulturak gizarte eta ekonomi sistema osoaren gainean halako irradiazio positibo bat zertzeko.

Kultur arlo batek, izen hori mereziko badu, produkzio, banaketa eta zabalkunde egitura bat behar du, gaur egun dugunaren oso bestelakoa inolaz ere, eta sorkuntzako inputen garapen kualitatiboa: hezkuntza eta ikaskuntza sistema, sorkuntza eta estetika ikerkuntza, gaurkotze teknologikoa...

Baina horretarako hainbat baldintza daude aurrez, hala nola:

*a)* Azaleratzen ari den *arlo estrategikotzat* hartzea, bai kultur aldetik bai ekonomi aldetik. Soil-soilik diru publikoak erabilita kultura sortaraztea ezinezkoa da eta bere buruari eusteko ahalik eta gaitasunik handiena duen kultur egitura ekonomikoa sustatu behar da, arlo pribatua ere horretan murgil dadin ahaleginduz.

*b)* Nahiz industria, arte eta ondare guztiei ekin eta ahal den espezialitate guztietako prestakuntza integrala landu, herrialde txiki batentzat zaila izango da kulturaren atal guztien garapenerako apustu orokorra egitea, nahiz guztietan halako gutxieneko maila bat ziurtatu beharko duen.
*Lehentasunek* hainbat puntu izango dituzte aztergai:
- Espezializazio malgua eta kultur produkzioko prozesuetan eskarmentua duten ekonomiak, neurri batean gurea baino merkatu handiagoetan aritzen direnak.
- Enpresa eta kultur ekimenen aglomerazio, kontzentrazio fisiko edo sare gisako ekonomiak.
- Produkzio masibo edo pertsonalizatuetarako transbertsalizazio ekonomiak, edota teknologiak eta aplikazioak gurutzatzen dituztenak.
- Erreflexibitate, ezagutza eta lankidetza ekonomiak, kultur munduan logika indibidualista edota klanena oso ohikoa bada ere.

*c)* Lehen begiratuan, badirudi *lehentasunezkoak* direla ikus-entzunezko/multimediaren ildoa, komunikazio sistema, arte sorkuntza, ondarearen antolaketa eta balioztatzea eta sareetako edukien kudeaketa erabilgarria.
Izan ere, lehentasun horiek zehaztuz gero, honako hau adieraz daiteke. Lehen-lehenik, sorkuntzaren lehentasunaren eraginez lengoaiak —entzunezkoa, ikusizkoa eta idatzizkoa— nahastu egiten dira, eta multimedia produktuak sortzen dira, elkar eraginak agertzen dira, eduki bera edukiontzi

desberdinetan merkaturatzen da, eta arlo, genero eta adierazpen-moduen arteko mugak aienatzen dira. Edonola ere, *ikus-entzunezkoa eta multimedia* dira etorkizunik oparoena dutenak.

Bigarrenik, *komunikazio sistema* propio eta integrala behar da, bai komunikazio eta gizarteratze arrazoiak direlako tartean bai ondare, arte eta kultur produktuen zabalkundera begira.

Hirugarrenik, sorkuntzari arreta jartzeak *eszena, literatura eta musika arte* guztien garapena ziurtatuko du, eta horiexek dira kulturaren produkzio, erreprodukzio eta media eremu guztietarako ezinbesteko oinarria.

Laugarrenik, gure *ondare preziatuaren* adierazpen anitzak gorde eta zaindu beharra dago, desagertu aurretik. Eta zaintzeaz gain kontestua errespetuz emanez eta era sortzaile edota funtzionalean gure garaietara egokituz.

Azkenik, teknologien garapenean aurrerapausu bikoitza eman behar da, hala produkziokoetan, transmisiokoetan, zabalkundekoetan (analogiko, lurreko digital, kable...) eta gizarte komunikazioen mapan, nola barne zein kanpo sareen eskaintzetan. Horretan zer esan handia dute Euskaltelek, EITBk eta talde eragileek.

*d)* Gure *hezkuntza sisteman* kulturaren arloei ematen zaien tratamenduaren ikuspegi berri horretarako egokitzapena berrikustea, hezkuntza orokorrarekin lotutakoari buruzko azterlan xehekatua eginez kulturaren adierazpenetan, unibertsitate eta lanbide irakaskuntzan, birziklatzean eta trebetasun berrien ikasketan.

### 3.1.3.2. Kultur integrazioa

*Kultur integrazioa* gehiago da jarrera, pentsamendu kolektiboko kontu bat, inbertsio kontua baino.

Hainbat alderdi ditu:

– Euskal kulturaren *kontzeptu zabala* onartzeak zera dakar berarekin, erabat kulturarenak ez diren gune administratiboek ere esku-hartzea kultur eremuetan. Kultur kontuak alderdi askotarikoak dira, eta zeharo zeharkakoak, beraz forma anitzeko jarduera behar dute. Izatez, euskal erakundeek —beren lege-gaitasun eta gauzatzeko eskumen eta guzti— kulturaren politika publikoa, kudeaketa espezializatua, Kultura sailen edo departamentuen esku uzten dute. Baina horrek ez du eragozten beste batzuen esku uztea zenbait gai bereizi. Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kasuan, bada garaia Hezkuntza, Industria, Merkataritza eta Turismo, Ogasun, Lehendakariordetza, Ongizate edota Gizarte Gaien sailak kulturan murgiltzeko, bereak dituzten lanabesak baliatuz eta koordinazio eta aplikazio-funtzionaltasunaren bidea jorratuz horretarako.
– Sustapen gai izan daitezkeen kultur gertaeren sorta handitzea, belaunaldi berriek eskatutakoak bereziki, garaian garaiko lehentasunak hor izango badira ere.
– Euskal kultura, *Euskal Herriko* lurraldearen arabera, hainbat modu bereizitan adierazten dela onartzea —Euskal Herria errealitate historiko eta kulturaltzat eta euskalduntasunaren hainbat bertsio dituen ingurutzat ulerturik betiere—, eta kultur eta komunikazio espazio horretan kultur loturak bultzatzea, iritzi politiko eta gorabehera administratiboak alde batera lagata. Azken kontu honek, EAEren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldearen arteko banaketa administratibo eta politikotik urrunago helduz, honako hauek ditu ezinbesteko:
  • Ahal den kultur ekintza gehien koordinatzea, aniztasunetik, erakunde publiko eta pribatuen artean.
  • Euskal kultur merkatu bizi eta aberasgarria sortzea, bere barne-trukeei dagokienez.
  • Sareko kultur eredua sustatzea, Euskal Herriaren gune anitzeko lurralde egiturarekin bat egiten duena, eredu integratzaile eta ikuspegi komun baten bultzatzailetzat.
– Era berean, inmigrazio berrien benetako eta errespetuzko integrazioa erronka bat da.

### 3.1.3.3. Nortasuna

*Nortasuna* sendotzeak esanahi ugari ditu. Esanahi horiek, batetik, jasotako ondareari eta beroni emandako gizarte-estimazioari lotuta daude, eta sortze kolektiboko prozesuan dagoen ondareari bestetik; izan ere, bi ondare horiexek osatzen dute gaur egungo euskaldunen identifikazioa eta bereiztea.

Alderdi hori hainbat norabidetan zehatz daiteke:

- Kultura politikatik bereizteko *jarreran*. Nortasunak ez du ideologiarekin korrelaziorik, nahiz kudeaketa mailan izan. Desberdintze horrek, unean uneko aukera politikoetatik aparte, kultura bakar eta forma anitzeko bat ahalbidetuko du, eta baita nortasun kontzientzia kolektibo partekatu bat ere, gizarte-maila gehienetan behintzat, baita politikoaren eragina edota bortizkeriaren ondorioak nabarmen sentitzen utzi direnetan ere.
- Nortasuna iraganaren, orainaldiaren eta izan nahi denaren emaitza gisa ulertzeko prozesuan. Horrela hainbat gauza lortu nahi dira, hala nola:
  - Ondareak berreskuratzea eta hauek ezagutu eta gozatzea. Horretarako Kultura, Etxebizitza, Industria eta Hirigintza sailen parte hartzea behar da, eta baita Hezkuntza Sailarena ere, hain zuzen ondarea bera eta duen historia ezagutuz geurearekiko estimazioa sendotzera begira.
  - Ondareak balioztatzea, eskulangintza garatuz eta begirunez jokatzen duten turismo modalitateekin lotuz.
  - Gizarte bizitza aberats baten eta egungo euskaldunen *modus vivendi* desberdin eta hibridatuen adierazle diren kultur adierazpenen alde egitea, hauexek baitira, azken batean, etorkizuneko tradizioak sortuko dituztenak.

Maila horretan, EAErako helburuetako batzuk honako hauek lirateke:

- Herritarren kultur aniztasuna eta kultur adierazpen desberdinak babestea.
- Euskarak produktu, zerbitzu eta komunikazioetan duen erabilera lurraldeka eta orokorrean duen batez besteko soziolinguistikoaren araberakoa izatea lortzeko ekintzetan; izan ere horrela, kasu askotan, saihestu egingo da kultur jarduerak erabileren eta hizkuntza normalkuntzaren prozesuan dagoeneko badiren programen atzetik joatea, edo are okerrago dena, horientzat guztientzat oztopo izatea.
  - *Komunikabideetan*:
    - FMko emanaldietan euskal musikaren —instrumentala edo zeinahi hizkuntzatakoa— presentzia musika-programazio osoaren %10 izan dadin lortzea, FM digitalerako bidea erraztuz.
    - Irratiko euskarazko emisioen ehunekoak batez besteko soziolinguistikoetara hurbiltzea. Uhin zein baliabide digital bidezko telebista lokalek/lurraldekoek ildo bereko konpromisoak beregana ditzaten lortzea, bai bere produkzioan bai euskarazko emanaldietan.
    - Euskarazko prentsa edo artikuluen irakurketa-kuota hobetzea, urte batzuk barru % 10era helduz prentsako irakurketa-mailari dagokionez.
  - Kultur produktu eta zerbitzuetan:
    - Eskaintzarako bermeekin jarraitzea eta hobetzea, argitalpenetan, musika, antzerki edo zine ikuskizunetan, eta kultur sorkuntzan oro har eta bereziki euskaraz egiten direnean.
    - Kultur, biblioteka, museo... zerbitzuek bere arretarako sistema hobetzea eta euskarazko arretarako eskubideari gero eta berme gehiago eskaintzen jarraituko dutela ziurtatzea.

### 3.1.3.4. Modernizazioa

*Modernizazioa*ren aldeko apustuak alderdi hauek ditu: kultur joera berriei arreta berezia eskaintzea; estetika berrietarako heziketa; beste kultur latitude batzuekiko eta barne aniztasunarekiko komunikazio irekia; eta esperimentazio, sorkuntza, produkzio, zabalkunde eta komunitatearen kultur garapenean teknika, formatu eta teknologia berriak erabiltzea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei loturiko azken alderdi honi dagokionez, ondoko hau egin beharko litzateke:

- Teknologia berrien erabilera bultzatu artea eta ondarea balioztatzeko lanean.
- Teknologia horien bidezko sorkuntza-esperimentaziorako espezializazioaren aldeko apustua egin.
- Kultur agente eta enpresen teknologi ekipamendua berritu.
- Euskararen garapen eta zabalkunderako aplikazio teknologikoetan sakondu.
- Kultur berrikuntza lurralde zein toki mailako garapen ildoei lotu.
- Beste herrialde batzuetako eragileekin sareko kultur proiektuetan parte hartu.

- Katalogoen digitalizazioa homogeneizatu.
- Azpisistema, lengoaia, adierazpen modu, produkzio prozesu, produktu, hizkuntza, merkatu eta marken transbertsalitatea indartu.

Helburu hauek lortzeko bidean, ezinbesteko jotzen dira honakoak:

- Edukiei lehentasuna ematea *Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren* barnean, hizkuntzaren industriei lotutakoaz gain kultur edukien esparru bat garatuz Plan horretan, bide batez kultur edukien industri digitala sustatuz.
- «Kudeaketa zentro» bat izendatzea, informazio digitalizatu estandarizatuaren sarearen edo prozesuan denaren kudeaketa koordinatzeko kultur eremuetan.
- Kultur edukiak, katalogoak eta kultur ondarea digitalizatzeko laguntzak areagotzea, agiritegiak, bibliotekak eta museoak sarean sartzeko.
- Kulturako ETE-en digitalizazio eta multimedia sorkuntza bultzatzea industri, finantza eta zerga politiken bidez.
- Zerbitzu publikoko eremuak mantentzea eduki eta zerbitzu berrietan, barnean sarturik *copyleft* (sarrera librea) eremuak, eta erakundeetan itzulpena eta software librearen erabilera sustatzea.

#### 3.1.3.5. Kanpo proiekzioa

Kulturaren Euskal Herritik haratagoko kanpo *proiekzioa*k euskal kultura hainbat norabidetan abiatzea eskatzen du.

Lehen-lehenik, *espainiar eta frantziar estatuetako* komunitate eta merkatuetarantz abiatu behar du, eremu hauek baititu hurrekoenak, lotura historiko berezia izatearekin batera.

Bigarrenik, *Europarekiko* konbergentziarantz abiatu behar du, horixe duelako kultur eremuaren jomugaren oinarrizko erreferentzia hainbat kontutan, bai merkatu moduan hala nola kulturako gastu publikoari, kulturak ehun sozioekonomiko pribatu eta publikoan duen pisuari, eta kultur eskari eta kontsumoari dagokienez.

Azkenik, *euskal diaspora* ugariena den herrialdetarantz abiatu behar du (Latinoamerika eta AEB); izan ere, diasporarekiko lotura bereziak mantentzen baitira orain ere.

Produkzio mailan, espezializazioa eta osagarritasuna jorratu behar dira, nazioartean kultur «guneak» identifikatzeko. Irudizko euskal mugetatik harantzago iristeko produzitu behar da, ez dago beste aukerarik, eta kalitate maila txukunez gainera, nortasun propiotik abiatu eta kulturan espezializatuz. Geure burua sare plural eta zabalagoetako ataltzat jotzen ikasi behar dugu.

Kultur sorkuntzaren eta merkatuaren nazioartekotzerantz abiatzeko, eta horien garapenean parte hartzen duten eragile publiko eta pribatuen jarduerak hobeto artikulatzeko, *oinarrizko egitura batzuk* sortu behar dira, nazioartekotze hori hainbat norabidetan ahalbidetzearren:

- Institutu eta erakundeak sortu behar dira, kanpoan Euskal Herriaren kultur sustapen lana egitera begira.
- Euskal kultura nazioartekotzeko behar diren sareak sustatu behar dira.
- Euskal kultur produktuen esportazio eta kanpo proiekziorako sostengu eta laguntzak behar dira.

## 3.2. ESTRATEGI PENTSAMENDU PARTEKATUA ERAIKIZ

Kulturaren Euskal Plana prestatzeko prozesuak aukera eman du lantaldeetan, arlo publikoaren eta pribatuaren artean eztabaida sortzeko, Euskal Herriko kultur politikari buruzko hainbat irizpide gai hartuta. Ikuspegi komuna honako hau da: kultur eremua lanerako espazio ireki eta askotarikoa izatea, tentsio politikoaren koiunturen ondoriozko eragin maltzurretatik babesturik dagoen lurraldea, hausnarketa analitiko partekatua eta proposamen-espiritua eragingo duen esparrua, azken batean.

Laburbilduz, irizpideok erakundeen politikari, gizarteari buruzko pertzepzioari eta kultur balioaren kateari lotutako kontuak erakusten dituzte.

### 3.2.1. Erakundeen politikan

- Abiapuntua honako hau da: *askatasun* publikoen defentsa, balio hiritar eta demokratikoak, *berdintasun* printzipioa ondare, arte eta produktuetarako sarrerari dagokionez, kultur *demokrazia* eta *pluralismo* politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa, arreta berezia eskainiz gutxiengoei eta kultur edo politika aukeren bazterketa saihestuz. Kulturarako eskubidea herritarren oinarrizko eskubide sozialtzat hartzen da.
- Beharrezko ikusten da arlo honen *berrikuspen* partziala, hau da: kulturari eman beharreko laguntzaren birdefinitzea, *plan estrategikoa*, programa eta ekintzetatik planteaturik; eta *zentraltasun* eta inpaktuzko eta *hurbiltasun* eta zerbitzuko politiken arteko oreka.
- *Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko* eskumen banaketa instituzionalak ordenazio, koordinazio eta akordio bidez lan egitea eskatzen du, eta ezinbesteko ikusten da Jaurlaritzaren sail eta instantzia publikoak (Kultura, Industria, Hezkuntza, EITB), foru aldundienak eta udalenak lankidetza hobean aritzea.
- *Irrati-telebista sistema publikoak* besteentzako eredu eta eragile izan behar du, eta horretarako bere eginkizunak bete behar ditu, programa-produkzio propioaren aldeko apustua eginez oro har, kalitatez jardunez eta ondare, arte edota kultur elementu multzoaren sustatzaile eta zabaltzaile gisa arituz.

### 3.2.2. Gizarte kontzeptuan

- Euskal kultur *espazio* komunikatibo bat, nortasun kolektiboa antolatzeko bokazioa izango duen espazioa artikulatzeko ekarpenaren aldeko apustua egiten da, betiere Euskal Herriko kultur, lurralde eta politika mailako nortasun askotarikoen emaitzatzat harturik nortasun kolektibo hori, eta Euskal Herri barneko dibertsitate soziolinguistikoaren onarpen kolektiboa izanik abiapuntua, beste kultura batzuekiko komunikazioaren bizitasunarekin batera.
- Euskal Herriko lurralde historiko-kulturalen, eskualdeen, herrien eta euskal diasporaren beraren kultur eta komunikazio dinamizazioak esanahi bat ematen dio euskal kulturaren kontzeptuari, testuinguru administratiboen gainetik.
- Kultura euskal hiritarren elementu biltzailetzat hartzen da, komunitate askotariko baten antolaketarako ibilgailutzat; horrenbestez, eginkizun aktiboa bete beharko du herrialdearen integrazioan, are normalizazioan ere.
- Euskarari eta beronen sustrai historikoari eustea, hori guztia garatzea eta sustatzea funtsezkoak dira, *normalizaziora* begira; eta bultzatu egin behar da euskarak gizartean duen presentzia, gizarteak euskaraz jakin eta euskara erabil dezan lagunduz eta hizkuntzaren gizarte ospea areagotzeko lan eginez.
- Kulturaren, *ezagutzaren*, berrikuntzaren, sorkuntzaren eta esperimentazioaren garapena eta haueк guztiak gizarte mailan zabaltzea funtsezkoak dira gizarte *egokitzapenerako*, are gehiago Euskadin aldaketa sakonak gertatzen ari direlarik bai teknologi eta ekonomi mailan, bai gizarte eta politika arloetan.
- *Kulturaren eta kultur industrien sistema propioaren* sustapena berezko kulturak duen balioan oinarritzen da, batetik, eta kontrapisu erlatiboa izan behar du kanpotik heltzen den eskaintza gehiegizkoa den kasuetan, bestetik.
- Aniztasunaren berme gisa oso baliagarriak dira bai babes arauak izatea (kontsumitzaileentzat, adingabekoentzat, balioentzat) bai kontsensu bidez lortutako *akordio deontologikoak* lortzea ere.
- Aniztasuna sustatzeko eta nahi gabeko kontzentrazio prozesuak eta *posizio nagusiaren gehiegikeri* egoerak saihesteko jarraipen eta zuzenketa lana egin behar zaie merkatuek eragindako desorekei.
- Behar-beharrezkoa da kulturaren *erabiltzaileen* auto-antolakuntza sustatzea.
- Teknologia berrien erabilera funtzionalerako *heziketa* soziala ezinbestekoa da gaur egun.

### 3.2.3. Balio-katean

- Kultura, oro har, *estrategikotzat* hartu behar da.
- Transferentzia eta esperimentazioa burutu beharra dago *teknologia malguak* baliatuz, are gehiago EAEk I+G-ren aldeko apustua egin duelarik (BPGren % 1,5).

– Unibertso digitalean ere halako *erregulazio* bat mantendu behar da.
– Sustapen lana kultur egintzaren *kate osoan* zertu behar da. Ez da nahikoa produkzioan jardutea. Banaketa –eskala-ekonomiak sortaraziz–, erakusteko bitartekoak, zabalkundea, informazioa, sustapena eta ikuskizuna ere zaindu beharra dago.
– Arreta berezia jarri behar zaio *ondarea balioztatzeari* eta beronen balio-katearen hainbat mailatan teknologia berriak aplikatzeari.
– Sorkuntza sustatzeko eta arte eta kultur industrietan sortzaileak agertzeko, *sortzaile eta komunikatzaileak babestu eta behar duten autonomia* eman behar zaie.
– Kultur industria eta produktuei laguntza emateak *kultur industriarako ehun* jasangarri bat sortzea eta sareetan sarrera aktiboa izatea ahalbidetuko du.
– Eskariari pizgarriak emateak barnean hartzen du etorkizunerako *publiko berriak* sortzea.

## 3.3. ANTOLAKETA ALDERDIAK: ERAKUNDEAK ETA POLITIKAK

Kulturaren Euskal Plan funtzionala antolatu ahal izateko eta planteatuko zaizkion erronkei behar bezala erantzun ahal izateko, behar-beharrezkoa da antolaketa eta koordinazio ahalegina egitea, kontsensu bidezko politikak diseinatzera eta gauzatzera begira. Dena den, horretarako borondate instituzionala eta eragile publikoen (Jaurlaritza, foru aldundi eta udalen) eta eragile pribatu eta sozialen arteko koordinazioa behar da.

### 3.3.1. Planaren egitura-erakundeak eta horien izaera

Ahaleginak koordinatzea, eskumenak egokitzea eta eginkizunak mugatzea da asmoa, eta horretarako ahalik eta *egituraketarik zabalena* behar da, sektore bakoitzarentzat *ad hoc* erakundeak sortzea saihestuz.



Horrenbestez, honako eskema hau proposatzen da:

### 1. Informazioa: Kulturaren Euskal Behatokia

Oraindik kulturari eta beronen arloei buruzko informazio erregularra eta egiturazkoa eskura izateko aukeratik urrun gaude. Arlo edo sektoreek eginiko ekarpen multzotik, bi lehentasun ondorioztatzen dira:

- Kulturaren Euskal Behatoki bat eduki beharra, Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko zerbitzu *koordinatu* gisa, Eustaten ekarpenarekin betiere, honek informazio iturri erregularra eta erkagarria ziurtatu beharko baitu.
- *Azterlanak* egitea —katalogoak, mapak, inbentarioak edo liburu zuriak, kasuan kasu— informazio gabezia handi samarra dagoen eremuei buruz.

Horiekin batera, Planaren beraren aplikazio eta emaitzen jarraipen eta ebaluazioa egin behar da. Beraz, Euskal Kultur Sistema osoa informaziotik eta ezagutzatik elikatuko duen erakundea da.

### 2. Zeharkako koordinazioa: Kulturaren Euskal Kontseilua

*Zeharkako* koordinazioa, lankidetza publiko eta pribatutzat ulerturik, funtsezkoa da eredu berrian, eremu pribatuen eta sozialen arteko elkarrizketa errazteko. Administrazioak kultur eremuan bai inbertsio eta plangintzari bai sorkuntza jarduerei eman beharreko laguntza eta sustapenari dagokionez betetzen duen eginkizuna erabakigarria bada ere, kultur sistema publiko eta pribatua kultur ondare kolektibo baten zati bat da.

Horrek bi ideiatara garamatza. Lehena honako hau da: ihes egin behar zaio bai dirigismoari bai diru publikoak negozio pribatuetara bideratze hutsari. Industri ekimen pribatu edo mistoei emandako laguntzak berarekin eraman behar luke onuradunentzako hainbat *betekizun* zorrotz, estrategikoki definitutako garapen-ildoekin bat eginik betiere, aldian aldiko ebaluazioarekin batera. Sortzaileei eta kultur sorkuntza eta zabalkunderako gizarte-erakundeei eman laguntzak esperientziak adierazten duen kasuetara bideratu behar dira, kalitateak eta eraginkortasunak harturik uneoro kontuan, autoretza berriak azaleratzea bermatzeko ahaleginean jarduteaz gainera.

Bigarrena, berriz, beste hau: kudeaketaren *partaidetzarako* kontzeptu progresibo bat behar da. Horrenbestez eredu zaharrak, hau da, erabakiak hartzen dituzten erakunde publikoek eta erabakiak sortzeko modu bakarra presioa egitea dela uste duen sektore pribatu errebindikatzaileak osatuak, tokia utzi behar dio kulturaren eremuek eta administrazioek, irizpide arrazionalizatu eta oro har onartuetan oinarriturik hitzartutako ereduari.

Ildo horretatik, Kulturaren Euskal Kontseilua eta aurrerantzean lanean ariko diren erakunde mistoak lanabes egokiak dira. Kontseiluak dituen eginkizunen artean, ondorengo hauek azpimarra ditzakegu:

*a)* Kulturaren Euskal Planaren jarraipena eta balorazioa, urtebeteko zein hainbat urteko garapenetarako proposamenekin.
*b)* Kultur arloko jarduera koordinatua erraztuko duten neurriak proposatzea.
*c)* Lan-batzorde tematikoak antolatzea.
*d)* Kultur babes, sorkuntza, prestakuntza, produkzio eta zabalkundearen inguruko kontuak aztertzea eta analizatzea.
*e)* Kulturaren Erakundearteko Batzordeari aholkuak ematea urteroko ekintza-planen inguruan.

Osagarri gisa, kultur kudeaketaren profesionalizatzea eta kultur eremuetako elkarte profesionalek duten pisu gero eta handiagoa bitartekaritza-faktoreak dira, eta kulturaren eragile pribatuen jardueretan kalitate eta artikulazio maila handiagoak erdiestea eragin dezakete.

### 3. Erakundearteko koordinazioa: Kulturaren Erakundearteko Batzordearen sorrera

Kultura arloko erakundearteko koordinazioa titularitate eta lurralde-eremu irizpideetan soilik egon izan da oinarriturik. Beraz, aurrera egin behar da, bai koordinazio bertikal handiagoa lortzeko bai koordinazio horizontala jorratzeko.

Koordinazio *bertikalari* dagokionez, lege aginduz Eusko Jaurlaritzari dagokio euskal kultur ondarearen babeserako eskumena, eta foru aldundiei, berriz, ondare horren kontserbazioa eta zaharberritzea. Era berean, joera orokor samar batzuk ikusten dira, arteen eta kultur industrien arloan eginkizunak banatzeko; hala, Eusko Jaurlaritzari sarriago egokitzen zaizkio ekoizpena bultzatzera eta jarduera profesionala sustatzera bideratutako jarduerak; eta foru aldundi eta udalei, aldiz, erakusketarekin, kultur eskaintzarekin eta kultur jarduera amateurrari laguntza ematearekin lotuak.

Koordinazio *horizontalak* jarduera propioak eskatzen ditu hizkuntza politika, zerga politika, finantza politika, hezkuntza, industria, turismo eta kanpo ekintzan, besteak beste.

Kulturaren Erakundearteko Batzordea definizio estrategikoko erakundetzat planteatzen da, eta besteak beste honako eginkizun hauek izango ditu:

- *a)* Kultur politika publikoak koordinatzea, batik bat erakundearteko artikulazioari eta estrategia, ekonomia eta prestakuntza alderdiei dagokienez.
- *b)* Bere kideek proposaturik eskatzen zaizkion erabakiak hartzea. Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak izango ditu kide.
- *c)* Batzordearen jardueren urteko txostena prestatzea.

Erakundearteko Batzordeak Lan Batzorde Tekniko baten laguntza izango du, eta berorretan Erakundeartekoaren kideen ordezkaritza teknikoa egongo da. Horretaz gain, bere eginkizunak gauzatzeko unean Kontseiluko adituen aholkularitza izango du.

## 4. Kultur erakunde espezifikoak

Planaren hiru egitura-erakundeak abian jartzeak erakundeen egokitzea ekarriko du. Hala, datozen urteotan zehar oso eragin handia izango duten hiru erakunde espezifiko aztertu beharra sortuko da. Hona hemen erakundeak zein diren: Arte eta Kultur Industrien Institutua, abiatuta dagoen Ikus-entzunezkoen Erakundearteko Batzordea (CIVAL) eta Ikus-entzunezkoen Clusterra (CIVALek garatu beharrekoa).

Arte eta Kultur Industrien Institutua kudeaketa erakunde bat da. Oraindik aztertu eta zehaztu beharrean daude erakunde horren bideragarritasuna eta eredua; lan horiek 2005erako aurreikusita daude. Helburua erakartze lana eta arteen egoera hobetzea da, eta bide batez kultur industrietaranzko halako zabaltze argi bat zertzea, lehiakortasunaren ildotik joz. Lehen hurbilketa batean, honako eginkizun hauek emango litzaizkioke:

- *a)* Laguntza teknikoa ematea kulturaren arloen garapenari.
- *b)* Arte eta kultur produkzioaren sustapena eta bultzada.
- *c)* Laguntzak banatzeko irizpideei buruzko eztabaida.
- *d)* Barne kooperazioaren sustapena eragile pribatu eta publikoen artean.
- *e)* Eragileen artean informazio erabilgarria banatzea.
- *f)* Euskararen sustapena.
- *g)* Azterlan eta prestakuntzarako garapenerako proposamenak.
- *h)* Sektorea aldaketa teknologikoetara moldatzeko prozesuaren jarraipena.

## 5. Kultur politika espezifikoak

Planaren hiru egitura-erakundeak abian jarririk, etorkizuneko kultur erakunde espezifikoak eta politika espezifikoak bideragarriak izateko zein horrelakoak abian jartzeko pausoak egingo dira. Proposamen horiek Planaren 10 ardatz estrategikotan garatuko dira, politika publiko bereizi gisa. Hona politika horiek laburturik:

- Erakundearteko eta eragileekiko k*oordinazio* politika.
- Kultur sustapen eta z*abalkunde* politika, gizarte-irisgarritasuna eta eskaintza ziurtatzeko.
- Esparrura egokitutako i*ndustri* politika.
- *Finantzaketa* politika, aurrerapen itzulgarriez, lerro bigunez eta arrisku-kapitaleko sozietateen bidez.
- *Zerga* politika pizgarria, dohaintzak eta kapitalak kultur esparrura hel daitezen.

- *Prestakuntza* politika, kulturaren hiru eremuetan eta amateur, arautu eta profesional mailetan antolatua.
- *Kultur hezkuntzarako* politika.
- *Autoretza* politiken sustapena.
- *Nazioarteratze eta hedapen* politikak ekoizpenean, autoretzan eta lanetan.

### 3.3.2. Plangintza eta partaidetza

Kulturaren Euskal Plana urteko ekintza planen bidez garatuko da. Horretarako bi maila bereiziko dira:

*a)* Kulturaren Euskal Planean gizarte eragile pribatu eta publikoen artean adostutako zatia, egitura-alderdiei dagokienez.

*b)* Erakunde maila bakoitzari, Eusko Jaurlaritza, foru aldundi eta udalei, eta bakoitzak hartutako konpromisoen arabera, dagokion Kulturaren Euskal Planaren zatia.

Maila horiek, halaber, etorkizunean politiketan ematen diren sektore zein lurralde mailako egokitzapenetan islatuko dira, horrela behar heterogeneoei eta zehatzenei ere erantzuteko.

## 3.4. JARDUERA-ILDOAK ETA JARDUERAK ARDATZ ESTRATEGIKOEN ARABERA ZEHAZTUTA

Kulturaren Euskal Planaren barruan garatuko diren jarduerak eratu eta antolatu aurretik premiazkoa da, alde batetik, jarduera horien edukiak zehazten lagunduko diguten jarduera maila batzuk finkatzea, eta bestetik, jarduera horiek denbora eta ekonomiaren arabera antolatzea. Antolaketa hori guztia aurrera eramateko bidea honela sailkatu dugu:

- *Ardatz estrategikoak*: kulturaren eremu garrantzitsuenak hainbat prozesutan garatuko dira, eta ardatz estrategikoak prozesu horiek egituratu dituzten bektore tematikoen antzera jokatuko dute. Egitura bati atxikitako izaera dutenez epe luzerako mugarriak dira, 10-15en bat urterako.
- *Jarduera-ildoak*: ardatz estrategiko bakoitzari atxikitako transformazio-prozesuan abiatzeko bideak; jarduera-ildo hauek epe ertainera begira eratu dira: 3-5 urte.
- *Jarduerak*: esku hartzeko oinarrizko unitate bezala zehaztu diren jarduerak, bere izatez egokiak izan daitezkeenak, baita helburu garrantzitsuagoetarako ekimenei elkartuta ere (hala direnean jarduera edo proiektua deituko diegu). Jarduera hauen aldizkotasuna 1-4 urte bitartekoa izan daiteke (epe labur-ertaina).
- *Etorkizunerako proposamenak*: etorkizunean garatuko diren proposamen generikoak joko ditugu etorkizuneko proposamentzat; jarduera-ildoak baino esplizituagoak dira baina ez ekintzak bezain zehatzak. Zehaztasun falta horrek ez gaitu eraman behar planetik ezabatzera; hori egitea baino hobe litzateke etorkizunean garatu ahal izango litzatekeen oroigarri gisa finkatzea. Proposamen horiek jarduera-ildo bakoitzaren azkenean gehituko ditugu.

Hona, ondoren, 2004-2015 bitartekora begira burutuko diren jardueren ardatz estrategikoak:

**1. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Kulturaren euskal sistema eraikitzea instituzio, baliabide eta eragileak bateratuz eta herrialde arteko sare kulturala egituratuz.

**2. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
EAEko kulturaren egoera eta bilakaerari buruz sistematikoki informatzeko eta segimendua egiteko sistema eta sektorekako plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea.

**3. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Kultura artatzea, ikertzea, sortzea, ekoiztea, komertzializatzea eta hedatzea.

**4. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Kultur ondarea eta bere balio-katea sustatzea.

**5. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Ikusizko, musikako eta eszenako arteak eta beren balio-katea sustatzea.

**6. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Kultur industria eta bere balio-katea sustatzea.

**7. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Kulturgintzan euskararen erabilera indartzea.

**8. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Ezagutzaren gizartearen barruan, kulturaren garapena gizarte-kohesiorako ardatz bezala sustatzea.

**9. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Sorkuntza eta produkzioa sustatzeko teknologia berriak eta adierazpen formak berreskuratu eta egokiturik erabiltzen laguntzea.

**10. ARDATZ ESTRATEGIKOA:**
Euskal kultura nazioartean zehar zabaltzea.

## 1. ARDATZ ESTRATEGIKOA
### Kulturaren euskal sistema eraikitzea instituzio, baliabide eta eragileak bateratuz eta herrialde arteko sare kulturala egituratuz

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Lankidetza publiko-pribaturako bideak finkatu kultur proiektuak garatzeko.<br>• Administrazioaren eginkizuna bideratu, kulturaren sorkuntza, ekoizpen, prestakuntza eta kultur hedapenerantz; Administrazioak kulturaren eragile eta sustatzaile izan behar du, baina ahaztu gabe inbertsioan eta antolaketan dagokion paper erabakigarria, adibidez, sorkuntza pribatuko jarduerak laguntzeko eta sustatzeko.<br>• Eusko Jaurlaritza, foru aldundi eta udal erakundeei dagozkien eskuduntzak zehaztu.<br>• Estrategia bateratuak finkatu, hiriburu eta herrialdeen artean kulturaren garapenerako, sorkuntza sustatzeko, eta abarretarako Europan eratzen diren laguntza- eta lankidetza-programetara iristeko. | 1. EAEren barruan eta kanpoan erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza sustatu eta bultzatu. | E1.L01 | E1.L01.A01 |
| | | | E1.L01.A02 |
| | | | E1.L01.A03 |
| | 2. Kulturaren sektorea garatzeko behar diren erakunde eta sareak sortu eta daudenak indartu. | E1.L02 | E1.L02.A01 |
| | | | E1.L02.A02 |
| | 3. Sektoreko prestakuntza eta ikerkuntza sustatzeko, Hezkuntza Sailarekin eta unibertsitateekin lankidetzan aritzeko ildoak sustatu. | E1.L03 | E1.L03.A01 |
| | | | E1.L03.A02 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Instituzioen arteko Batzorde Iraunkorra sortu, kultur jarduerak estrategikoki koordinatzeko. 04<br><br>Instituzioen arteko Batzorde Iraunkorrari laguntzeko mahai teknikoa sortu. 04<br><br>EAEren barruan eta kanpoan instituzio publiko eta pribatuekin lankidetza-ildoak finkatu, Plan honi begira, batez ere Nafarroarekin, Iparraldearekin eta euskal diasporarekin. 04-05 | • Sortzaile berriei laguntzeko politiketan foru aldundien lankidetza bilatu.<br>• Euskal liburugintzarako politika koordinatua garatu, instituzioen jarduera eta argitaletxeen jarduerak konbinatuz.<br>• Literatura-produkzioak instituzioen laguntza jasotzeko irizpideak batu. |
| Artearen eta kultur industriaren institutua aztertu eta sortu. Aztertzea 05. Sortzea 06<br><br>Kulturaren Euskal Kontseilua sendotu eta batzorde bereziak sistematizatu. 04 | • Kulturaren cluster orokorrarena aztertu. |
| Hezkuntzarekin akordio bat egin xede honekin:<br>– Hainbat mailatako arte-irakaskuntzaren sistemari buruzko azterlana egin kultura eta hezkuntzaren artean. 05<br><br>Unibertsitateekin akordioa egin, lanbidea eguneratzeko, prestakuntzarako eta birziklatzeko ikastaroak egiteko. 05-06 | • Graduatu ondoko bekak sortu arte eta literaturaren arloetako ikasle gazteentzat eta profesionalentzat, foru aldundiekin lankidetzan.<br>• Nazioarteko beste gobernu eta erakunde batzuekin harremanak finkatu eta elkarrekin trukeak egiteko programak garatu.<br>• Komunikazioarekin eta artearekin, batez ere ikus-entzunezkoekin, zerikusia duten ikasketa-plan eta titulazioei bide berri bat eman, gaitasun teknikoak eta sortzekoak garatzera begira.<br>• Unibertsitatean titulazio berri bat sor dezaten proposatu: bibliotekonomia eta dokumentazioa.<br>• Antzerki amateurra dinamizatzeko eta berpizteko plan berezi bat proposatu foru aldundi eta udalen eskutik.<br>• Ikastegietan euskal kultur ondareari buruzko materiala egin eta hedatu. |

## 2. ARDATZ ESTRATEGIKOA
## EAEko kulturaren egoera eta bilakaerari buruz sistematikoki informatzeko eta segimendua egiteko sistema eta sektorekako plan estrategikoak eta egoeraren azterketak egitea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Kultur baliabideak eta eskaintzak herri eta eskualdeen artean partekatzeko informazio sistemak lagundu.<br>• Kultura eta komunikazioko estatistikak partekatzeko sistema diseinatu eta garatu, estatistikak beharrezkoak direlako kultura, komunikazio, gizarte eta administrazioko eragileentzat kulturaren arloan erabakiak hartzeko eta kulturaren segimendua egiteko.<br>• Sektorekako plan estrategikoak eta behar diren liburu zuriak egin.<br>• Egoerari buruzko azterlan bereziak egin.<br>• Euskal Herriko kultura-eredua munduko gainerako herrialdeetakoekin alderatu. | 1. Kulturaren Euskal Behatokia sortzea bultzatu. | E2.L01 | E2.L01.A01 |
| | | | E2.L01.A02 |
| | 2. Sektoreko plan estrategikoak, liburu zuriak eta azterlanak bultzatu kulturaren arlo guztietan administrazioekin eta sektorean parte hartzen duten ordezkariekin koordinatuz. | E2.L02 | E2.L02.A01 |
| | | | E2.L02.A02 |
| | | | E2.L02.A03 |
| | | | E2.L02.A04 |
| | | | E2.L02.A05 |
| | 3. Kulturaren Euskal Planaren eredua munduko gainerako herrialdeetakoekin alderatu. | E2.L03 | E1.L03.A01 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Kulturaren Euskal Behatokia sortu bi fasetan:<br>1. Hastea eta abian jartzea. 04-05<br>2. Egitura sendotzea. 06-07<br>Aurreneko fasean aldundi eta udalekin batera erabakiko den honako programa hau aurreikusi da:<br>1. Behatoki-eredua eta administrazioak parte hartzeko eredua aukeratzea: 04<br>2. 2004-2006 behin-behineko lan-programa:<br>— Marko kontzeptuala eremu eta funtzioen arabera zehaztea eta sailkatzea.<br>— Kulturaren estatistika ofizial bihur daitekeen informazioa bilatzea eta inbentariatzea.<br>— Sektoreen ezaugarriak eta egoera. Lehentasunak.<br>— EAEko ekipamendu, azpiegitura eta kultur gertaeren aldizkako mapak egin.<br>— Aldizka-aldizka azterlanak egin administrazioek kulturarako dituzten aurrekontu eta gastuei buruz.<br>— Kultur praktikak eta kontsumo-ohiturak aztertzeko ildoak eratu.<br>— Inkesta espezifikoak egin noizbehinka, administrazioekin eta sektoreko ordezkariekin koordinatuz. | |
| EAEren barruan zein kanpoan erakunde eta organismo publiko eta pribatuekin harremanetan jarri, Behatokiaren xederako. 04-05 | |
| Azterketa bat egin sorkuntza plastikoari buruz. 04 | |
| Musika, dantza eta antzerkiaren sektoreen egoera eta lehentasunei buruzko azterlan bat egin. 04-05 | |
| Industria fonografikoaren egoera eta merkatuari buruzko azterlan bat egin. 04 | |
| Kultura digitaleko euskal eragileen katalogoa egiten lagundu. 04 | |
| Eskulangintzari buruzko azterlana egin. 04 | |
| Kultur ereduei eta kultur politiken aplikazioari buruzko nazioarteko konferentzia antolatzea, foru aldundi, udal eta sektoreko ordezkariekin lankidetzan. 04-05 | |

## 3. ARDATZ ESTRATEGIKOA
Kultura artatzea, ikertzea, sortzea, ekoiztea, komertzializatzea eta hedatzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Mezenasgoa eta hirugarren mailako sektorea sustatzeko finantza-, zerga-, industria- eta lankidetza-politikak aplikatu. | 1. Erakunde pribatuen babesa eta ekimena sustatu eta bultzatu, Euskal Herriko kultur proiektuen eta sortzaileen sustatzaile eta laguntzaile direlako. | E3.L01 | E3.L01.A01 |
| | 2. Kulturaren sektorea sustatzeko zerga eta legeak abian jarri, foru aldundiek egokitzat jotzen badituzte. | E3.L02 | E3.L02.A01 |
| | | | E3.L02.A02 |
| | 3. Kulturaren produkzioa, lankidetza eta merkatua finantzatzeko bide berriak bultzatu eta sustatu. | E3.L03 | E3.L03.A01 |
| | | | E3.L03.A02 |
| | 4. Kulturaren arlora doitutako industria-politika horizontalak sustatu eta bultzatu. | E3.L04 | E3.L04.A01 |
| | | | E3.L04.A02 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Fundazioen Legea berrikustea, estatuko lege homonimoan eta babesa dagokien eremuan eta hirugarren sektorean egon diren aldaketetara egokitzeko. 04-06 | |
| Zergak koordinatzeko organoaren ekimenez foru arauak berrikustea hitzartu, fundazioen, kultur jardueren eta hirugarren batzuk arlo honetan egiten dituzten ekarpenen zerga-tratamendua hobetzeko. 05 | |
| Kultura arloko inbertsioei zergak arintzea aztertu eta desgrabatzeko erregimena aplikatu. 05-06 | |
| Kultura arloko enpresetara bideratzen den kapital-arriskua bultzatzea, Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien beste departamentu batzuen bidez. 05-06 | |
| Ikus-entzunezkoen produkzioari aplikatzen zaizkion lehentasunezko finantzaketa-ildoak beste eremu batzuetan aplikatzeko aukera aztertu eta egokitzat jotzen bada, aplikatzen hasi. 05-06 | |
| Kulturaren eta eskulangintzaren arloko mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainei aukera eman industria-politika horizontalaren aldeko neurrietara iristeko, Industria Sailarekin eta foru aldundiekin lankidetzan. 05 | • Lankidetza formulen azterketa banaketa arazoei erantzuteko eta, egokitzat jotzen bada, aplikatzen hasi. |
| Enpresa-haztegi eta proiektuetan oinarriturik laguntza eta aholkua eskaini kultur proposamen interesgarriei, Industria Sailarekin eta foru aldundiekin lankidetzan. 05 | |

## 4. ARDATZ ESTRATEGIKOA
Kultur ondarea eta bere balio-katea sustatzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Kultur ondarearen, prestakuntzaren eta ikerkuntzaren, babesaren eta zaharberritzearen oinarrizko azpiegiturak sustatu eta kultur ondareari bere balioa eta hedapena eman; eta horrekin guztiarekin bat, kulturaren kontsumoa hobetzeko eta handitzeko behar diren jarduerak abian jarri. | 1. Kultur ondarea gordetzeko eta artatzeko jarduerak sustatu foru aldundiekin lankidetzan. | E4.L01 | E4.L01.A01 |
| | | | E4.L01.A02 |
| | | | E4.L01.A03 |
| | | | E4.L01.A04 |
| | 2. Kultur ondarea garatzeko behar diren erakundeak sortzea eta indartzea lagundu. | E4.L02 | E4.L02.A01 |
| | | | E4.L02.A02 |
| | 3. Erakundeak eta sektoreko eragileak koordinatzeko eta elkarrekin aritzeko baliabideak bultzatu. | E4.L03 | E4.L03.A01 |
| | | | E4.L03.A02 |
| | | | E4.L03.A03 |
| | | | E4.L03.A04 |
| | | | E4.L03.A05 |
| | | | E4.L03.A06 |
| | | | E4.L03.A07 |
| | | | E4.L03.A08 |
| | | | E4.L03.A09 |
| | | | E4.L03.A10 |
| | 4. Kultur ondarearen arloko finantzaketa publikoa areagotu. | E4.L04 | E4.L04.A01 |
| | | | E4.L04.A02 |
| | | | E4.L04.A03 |
| | | | E4.L04.A04 |
| | | | E4.L04.A05 |
| | 5. Kultur ondarea sustatzeko behar den legeria sustatu. | E4.L05 | E4.L05.A01 |
| | | | E4.L05.A02 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Ondare higiezina kontserbatzeko, Sektoreko Lurralde-plana (SLP) adostea foru aldundiekin. 04-05 | |
| Zaharberrikuntza sustatu ondarea kontserbatzeko funtsezkoa delako. 04-05 | |
| Arkeologia guneak deklaratzeko prozesua azkartu, jada onartuta dauden aztarnategiak babesteko. 05-06 | |
| Material arkeologikoak gordetzeko bildumen kudeaketa arautu foru aldundiekin batera. 04-05 | |
| Kultur ondarearen sistema indartu, Etnologia eta Museo sailak bultzatuz. 05-06 | |
| Euskal liburutegien sistemaren artikulazioaz arduratuko den erakunde bat sortu eta horrek bere garapen-ildoak finkatu. 04-05 | |
| Liburutegien euskal Sarea eta Sistema zehaztu, egituratu eta garatu. 04-05 | |
| Liburutegien Euskal Kontseilua sortu. 05 | |
| Liburutegi digitala garatu. 05-06 | |
| Agiritegi Historiko Nazionalaren proiektua zehaztu. 04-05 | |
| Euskadiko Agiritegien Sistema eta sarea finkatu. 04-05 | |
| Agiritegi Historiko Nazionalaren proiektua gauzatu. 06-07 | |
| EAEko museoen plana sustatu. 04-05 | |
| Euskal Herrian ondarea trukatzeko behin-behineko akordioak egin. 05-06 | |
| Kultur ondareari dagozkion inbentarioak eta katalogatze-lanak egin. 04-05 | |
| Euskal ondare industriala zorroztasunik handienaz dokumentatu. 06-07 | |
| Aurrekontu partidak eratu ondare etnografikoa kudeatzeko eta babesteko. 04 | |
| Museoen hedapenerako sistema informatikoak egokitzen lagundu. 04-05 | |
| Ikus-entzunezkoen artxiboak digitalizatzeko eta kudeatzeko laguntza eman. 04-05 | |
| Zuzeneko eta zeharkako zerga-sistema berrikusi, hala nola ondareari dagokiona, honetarako: ondare artistikoa artatzea —eta batez ere euskal kultura gehien ordezkatzen dutenena—, artelanak ezagutzera ematea eta artelan berriak eta antzinakoak erosteko laguntzak ematea. 05-06 | • Finantzaketa publikoa sustatu, ondaretzat onartu diren elementuak erosteko. |
| Zaharberritzeko pizgarri fiskalak, kultur erakunde publikoei egindako dohaintzei kenketak, zergak arte-emakiden bidez ordaindu, museo edota areto publikoetan aldi baterako egiten diren depositentzako pizgarriak. 05-06 | |
| Sektoreko ordezkarien partaidetzarekin museoen legea egin. 04-05 | |
| Sektoreko ordezkarien partaidetzarekin liburutegien legea egin. 04-05 | |

## 5. ARDATZ ESTRATEGIKOA
### Ikusizko, musikako eta eszenako arteak eta beren balio-katea sustatzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Ikusizko arteen, musikaren eta eszenako artearen funtsezko azpiegiturak sustatu, hala nola horien balio-katean sartzen diren arloak: kultur prestakuntza, ikerkuntza, sorkuntza, ekoizpena, banaketa, erakusketa eta kontsumoa. | 1. Ikusizko arteak, musikakoak eta eszenakoak garatzeko behar diren erakunde edo sareak sortu eta indartu. Laguntza sistema sustatu. | E5.L01 | E5.L01.A01 |
| | | | E5.L01.A02 |
| | | | E5.L01.A03 |
| | | | E5.L01.A04 |
| | | | E5.L01.A05 |
| | 2. Enpresa eta artisten egoera hobetu eta indartu. | E5.L02 | E5.L02.A01 |
| | 3. Arte-ekoizpen eta sorkuntzaren laguntzak areagotu. | E5.L03 | E5.L03.A01 |
| | | | E5.L03.A02 |
| | 4. Ikusizko eta eszenako arteen hedapenerako behar diren baliabideak finkatu. | E5.L04 | E5.L04.A01 |
| | | | E5.L04.A02 |
| | | | E5.L04.A03 |
| | | | E5.L04.A04 |
| | | | E5.L04.A05 |
| | | | E5.L04.A06 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
| --- | --- |
| Erakundeetan kultura sortzeko eta hedatzeko sistema indartu. 04-05<br>Lurralde historiko bakoitzean dantzaren arloko profesional eta zaleentzat zentro koreografiko bat «Dantza Etxea» eratzeko kontua aztertu. 05<br>SAREA euskal antzerki sarea indartu. 04-05<br>Arte-lanak erosteko aholku-batzordea bideragarria den ala ez aztertu. 06-07<br>Estilo ezberdinak jasoz dantzako gazte konpainia bat sortzea bideragarri izango litzatekeen edo ez aztertu foru aldundiekin batera. 06-07 | • EAEko bi hizkuntza ofizialetako autoreen artean dauden komunikazio- eta transbertsalitate-loturak indartu.<br>• Garrantzi handiagoko proiektu artistikoak garatzeko azpiegiturak sortu. |
| Kulturako enpresak, elkarteak eta erakunde pribatuak kudeatzeko egiturak indartzeko moduak bilatu, foru aldundi eta Industria Sailak eratutako mintegietan eta beren aholkupeko enpresetan. 05 | • Artista, enpresa eta instituzioen arteko lan-harremanak eta zerga-loturak arautzeko protokolo batzuk finkatu.<br>• Artistek ibilbide profesional bat garatzeko jarduerak antolatu eta burutu. |
| Honako arlo hauetako sostengu publikoa eta dirulaguntzak areagotu: 05<br>— Eszenarako sorkuntza, produkzioa eta banaketa<br>— Musika sortzea eta ekoiztea<br>— Sorkuntza eta produkzio artistikoa eta ikusizkoa<br>— Euskal autoreen lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzea<br>Elkarteen eta amateurren musika eta eszena ekimenetarako dirulaguntzak koordinatu eta ordenatu. 04-05 | |
| Dantza-zirkuitu finkoa eratzeko ahaleginak areagotu foru aldundiekin lankidetzan. 05-06<br>Literatur aldizkari baten bideragarritasun azterketa egin. 05<br>Eresbilekin lankidetzan irudi-agiritegi bat sortu musikari buruzko irudiekin. 06-07<br>Musika-aldizkari bat argitaratzen lagundu, musikaren informazio eta zabalkunderako. 06-07<br>Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin lankidetza indartu, bertsolaritza sustatzeko laguntzak areagotzeko. 04-05<br>Nafarroa eta Iparraldeko zirkuituekin akordioak egin, sareak eratzeko. 04-05 | • Erabilera askotako eta jaialdiak egiteko aretoen sare bat sortu, tokian tokiko talde eta artistei zuzenean parte hartzeko aukera emanez. |

## 6. ARDATZ ESTRATEGIKOA
Kultur industria eta bere balio-katea sustatzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Kulturaren industriarako funtsezko azpiegiturak sustatu, hala nola kulturaren arloko prestakuntza, ikerketa, sorkuntza, ekoizpen, banaketa, erakusketa eta kontsumorako behar direnak. | 1. Kultur industriako enpresa eta profesionalen egoera hobetzeko jarduerak garatu. | E6.L01 | E6.L01.A01 |
| | | | E6.L01.A02 |
| | 2. Kultur industriaren garapenerako behar diren erakunde eta sareak sortu eta daudenak indartu. | E6.L02 | E6.L02.A01 |
| | | | E6.L02.A02 |
| | | | E6.L02.A03 |
| | | | E6.L02.A04 |
| | 3. Kultur industrian I+G+I sustatu. | E6.L03 | E6.L03.A01 |
| | 4. Egoki gerta daitezkeen neurriak hartu, kultur industrien produktuak sustatu eta hedatzeko. | E6.L04 | E6.L04.A01 |
| | | | E6.L04.A02 |
| | 5. EITB eta kultur sektoreen arteko lankidetza sustatu. | E6.L05 | E6.L05.A01 |
| | | | E6.L05.A02 |
| | 6. Banatzaile independenteak sustatu, ikus-entzunezkoen, fonografiaren, eskulangintzaren, eta abarren merkatuetara iristeko. | E6.L06 | E6.L06.A01 |
| | 7. Kultur produktuen kalitatea sustatu. | E6.L07 | E6.L07.A01 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Aurrerapen itzulgarrien bidezko lehentasunezko finantzaketa-lerroa sustatu ikus-entzunezko proiektuak sortzeko, eta deskontu linea bat telebistako kontratuen gainean. 04 | • Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek saltegi-zentrala sortzeko aukerari lagundu. Saltegi horrek zabalduko lituzke eskulangileen lanak. |
| Diputazio eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetako aginduetan kultur industriako profesional berriei (errealizadore berriak, sortzaile esperimentalak, gidoigileak...) lagundu. 05-06 | |
| Ikus-entzunezkoaren sektorean politika integrala garatu, erakundeen arteko erakunde egonkor bat sortuz (CIVAL), hala nola cluster bat sektoreko enpresa pribatuekin. 04-05 | • Produktuak hobeto banatzeko azpiegituren garapenari arreta jarri.<br>• Enpresa eta sektoreen arteko lankidetza sustatu, espezializatze-programen bidez eta proiektu handietarako bideak irekiz: balizko cluster-politika.<br>• Eskulangintzaren korporatibismoa garatzeko interesa. |
| «Hizkuntzaren Industri»en cluster bat eratzeko aukerak aztertu edota industria hori beste clusterren batean sartu. 05-06 | |
| Diskoetxeen elkargo profesional bat sortzen lagundu. 04-05 | |
| Ikus-entzunezko Komunikazioaren Euskal Kontseilua abian jarri. 05-06 | |
| I+G+I sustatu eta hizkuntzaren industriak garatu, Euskadi Informazioaren Gizartean Programarekin eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan. 05 | • I+G+Iri laguntzeko urteetako planak egin. |
| Musika eta zinegintza sustatzeko katalogoak banatzen jarraitu, hala nola feria eta azoketara bertaratzen. 04-05 | |
| Multimediari buruzko topaketak egiteko aukerari laguntza eman. 06-07 | |
| Ikus-entzunezkoen sorkuntzan EITBk ematen duen laguntzarekin jarraitu eta, pixkanaka-pixkanaka, erakundearen sarreren %5 helburu horretarako erabiltzea bultzatu. 04-05 | |
| Epe ertainera akordio finkoak egin EITB eta kulturaren sektore pribatuaren artean. 05-06 | |
| Zabalkunde bereiziko ekimenei laguntza eman. 05-06 | |
| Eskulangintza labela sortu. 06-07 | • Kalitateko kultur produktuentzat Euskal Herriko marka bat sortzearen bideragarritasuna aztertu. |

7. ARDATZ ESTRATEGIKOA
Kulturgintzan euskararen erabilera indartzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Kultur zerbitzuetako ahozko zein idatzizko harremanetan euskararen erabilera bermatu, euskarazko produkzio eta sorkuntza kulturala bultzatu, eta kultura euskaraz eskaintzeari eta erakusteari lagundu.<br><br>*Oharra: Ardatz hau era koordinatuan kudeatuko dute Kultura Saileko Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.* | 1. Euskarazko kultura ekoizten duten sektoreak garatzeko erakundeek koordinaturiko ekimen publikoak zehaztu. | E7.L01 | E7.L01.A01 |
| | | | E7.L01.A02 |
| | 2. Euskal kulturaren arlo guztietan (ondarea, arteak eta industria) kalitateko euskarazko edukien sorkuntza bultzatu. | E7.L02 | E7.L02.A01 |
| | | | E7.L02.A02 |
| | | | E7.L02.A03 |
| | | | E7.L02.A04 |
| | | | E7.L02.A05 |
| | 3. Euskarazko kultur produkzio garrantzitsua lortzen lagunduko duten enpresa-egiturak garatu. | E7.L03 | E7.L03.A01 |
| | 4. Hizkuntz aniztasunerako teknologia sortu, euskaratik abiatuz. Teknologia hori geure premiak asetzeko izango litzateke, hala nola beste gizarte batzuenak. Hizkuntzaren industriak garatuko lirateke euskararentzat eta, bidenabar, beste hizkuntza batzuentzat. | E7.L04 | E7.L04.A01 |
| | | | E7.L04.A02 |
| | | | E7.L04.A03 |
| | 5. Euskaraz egiten den kulturaren hedapena bideratu, euskal kultura barruko zein kanpoko merkatuetan bultzatuz. | E7.L05 | E7.L05.A01 |
| | | | E7.L05.A02 |
| | | | E7.L05.A03 |
| | 6. Euskarazko kulturaren segimendua egin, bai Sarean bai etorkizuneko kulturaren behatokian. | E7.L06 | E7.L06.A01 |
| | 7. Etorkinekin kultur truke dinamikak indartu eta saiatu euskarara eta beronen ezagutzara hurbil daitezen. | E7.L07 | E7.L07.A01 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Katalogo kolektiboa garatu eta euskal bibliografia egin. 05-06<br><br>Bertoko liburu, disko eta ikus-entzunezkoetan politika koordinatuak garatu, eta arreta berezia jarri euskaraz egindako produkzioari sektorekoen lankidetzarekin eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin. 04-05 | • Kulturaren ataria sortu, erakundeetan dagoen informazio guztia (liburuak, musika, irudiak, eta abar) herritarren eskura jartzeko, baita euskaraz dagoena ere.<br>• Lege-gordailu digitala definitu, gaur egun liburutegi edo zerbitzu publikorako baino gehiago agiritegi (adibidez, euskarazko testuaren megacorpusa) eginkizunetarako. |
| Euskaraz sortutako kultur produktuak positiboki diskriminatu, betiere kalitate-irizpideekin. 04-05<br><br>Urtero zinea eta telefilmak ekoiztu euskara hutsean; zine zein telebistarako bikoizketa areagotu, euskarazko zine-emanaldiak egiten dituzten aretoetan etenik gabeko gutxiengo bat ziurtatuz. 05-06<br><br>Denboran zehar eta kultur sorkuntzaren arloan euskarak beretzat gorde eta egokitu dituen eremuak sendotu, adibidez, bertsolaritza. 04-05<br><br>Euskarak ia lekurik izan ez duen eremuetan euskara sustatzeko politikak garatu, adibidez, antzerkigintza edo zinegintza. 05-06<br><br>Euskarazko produktu eta zerbitzuen sorkuntza areagotu, hala nola haur eta gazteei egiten zaien eskaintza handitu. 05-06 | • Arlo bakoitzean euskaraz sortzen denari laguntza eman, hori guztia kultura digitaleko formatuetara aldatzeko (testuak, soinuak eta irudiak). |
| Ikus-entzunezkoen zerbitzu publikoetan kuota- eta sustatze-politikak zehaztu. 05-06 | • Aldekoak izan daitezkeen industria-, zerga- eta finantza-politikak zehaztu. |
| Itzulpen-teknologien balio estrategikoa indartu eta Euskal Herrian horiek lokalizatu. 04-05<br><br>Kultura eta hizkuntzaren I+G indartu, Europako sareetan parte hartuz. 05-06<br><br>Software librea euskaraz garatu, erakundeetan eta arlo pribatuan horren erabilera sustatuz. 05-06 | • Hizkuntz anitzeko edukiak kudeatzeko eta argitaratzeko sisteman garatzen lagundu. |
| Kultur zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzeko behar diren neurriak hartu: liburutegiak, artxiboak, museoak, antzerkiak, zine-emanaldiak, kultur informazio guneak. Erabiltzaileen zerbitzurako hizkuntza zer den definitu. 05-06<br><br>Literatura kanporatu, euskaraz egindako literatura oro har, nazioarteko merkatuetan agerpen handiagoa lortzeko. Horrek euskarazko produkzioa itzultzeko politika definitu beharra eskatzen du, betiere barruko eta kanpoko merkatuei begira. 05-06<br><br>Itzulpengintza, bikoizketa, sinkronizazio ostea eta azpitituluen erabilera sustatu, beste hizkuntzetako hiztunek ere euskarazko produktuak ezagutzeko parada izan dezaten, eta euskaldunek, aldi berean, beste hizkuntzetatik datozen kultur produktuak ezagutzeko aukera izan dezaten. 05-06 | • Kulturarekin zerikusia duten teknologiak eta edukiak beste herrialde batzuetara eraman eta nazioartean zabaldu.<br>• Irrati eta telebistan euskaraz sortutako musika eta ikus-entzunezko materiala hedatzeko kuotak jarri.<br>• Euskal sortzaileen eta kanpokoen artean harremanak sustatu eta kulturaren erreferentziatzat erabil daitezkeen generoak bultzatu.<br>• Telebista publikoan kulturaren hedapenerako programazioa prestatu, hala nola irakurketa sustatzekoa. |
| Hizkuntza aldagaiak kultur behatokiaren programen definiziora gehitu hasieratik eta horiek zorroztasunez aplikatu informazioaren definizioan, bilketan, tratamenduan eta hedapenean. 05-06 | |
| Immigrazioko Euskal Planean euskararen inguruan aurreikusita dauden jarduera-ildoak garatu, euskararen sustapen eta zabalkunderako dirulaguntzen deialdietan sektore horietara zuzendutako berariazko atalak zehaztuz, HABEtik gara daitezkeen ekintzekin. 05 | |

## 8. ARDATZ ESTRATEGIKOA
### Ezagutzaren gizartearen barruan, kulturaren garapena gizarte-kohesiorako ardatz bezala sustatzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Kultur ekimenak sustatu, herritarren gizarte-kohesioa hobetzeko. Kultura herritarrengana hurbildu, kultura eta ezagutzaren gizartearen barruan (aukera-berdintasuna) kulturara iristeko bideak demokratizatuz, eta kulturarako interesa sortu zaien publiko berriei bereziki kultura iristeko aukera eman. | 1. Kulturara iristeko bideetan aukera-berdintasuna sustatu eta ordaintzekoa den kulturaren eragina arindu. | E8.L01 | E8.L01.A01 |
| | | | E8.L01.A02 |
| | 2. Kultur aniztasuna sustatu, hala nola kultura ezberdinen arteko harremanak. | E8.L02 | E8.L02.A01 |
| | | | E8.L02.A02 |
| | | | E8.L02.A03 |
| | 3. Komunikabideak kulturaren eta arte-sektoreen sustapen eta hedapenean inplikatu. | E8.L03 | E8.L03.A01 |
| | | | E8.L03.A02 |
| | | | E8.L03.A03 |
| | 4. Kultur jarduerak eta amateurismoa sustatu. | E8.L04 | E8.L04.A01 |
| | 5. Euskal Herriko lurralde historikoen artean kultur loturak eta trukaketak sustatu, baita munduan diren euskal komunitateekin ere. | E8.L05 | E8.L05.A01 |
| | | | E8.L05.A02 |
| | | | E8.L05.A03 |
| | 6. Kultur kontsumo arduratsua sustatu, eta publiko berriak atzeman. | E8.L06 | E8.L06.A01 |
| | | | E8.L06.A02 |
| | 7. Hurbileko kultura sustatu. | E8.L07 | E8.L07.A01 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Fonografia, partitura-edizioa, eskulangintza eta multimedia kontuan izatea laguntza-sistemak eratzen direnean. 05-06<br><br>Kultur hedapenerako unibertsitateko jarduerekin jarraitu, bai campusetan bai horietatik kanpo, eta gizarte, kultura eta komunitate-politiketara ekarpenak egitera bultzatu unibertsitateak. 04-05 | • Hezkuntza Sailarekin egindako akordioen bidez, kulturaren transmisioa (literatura sustatzea, musika-estiloak ezagutzea, ikus-entzunezkoetako kontaera aztertzea...) hobetu hezkuntza-ziklo erregularretan.<br>• Hezkuntza Sailarekin egindako akordioen bidez, bertoko kulturaren transmisioa (egile jakinen testuen irakurketa sustatu, bertoko musika eta ikus-entzunezkoak sustatu...) hobetu hezkuntza-ziklo erregularretan.<br>• Sarearen eremua zerbitzu eremutzat ikustea, ordaindu gabeko eduki eta teknologia sorta zabal bat eskaintzen duen gunetzat.<br>• Sarea askatasunez zabaltzeko gune publikoak erreserbatu.<br>• EITBko kulturara iristeko gizarteari dagokion eskubidea formalizatzeko bidean aurrera egin.<br>• Prestakuntzarako jarduera publikoetan sakontzea, erabilera eta edukietan zentraturik, aro digitalak sortu duen leizea arintzeko. |
| Ikus-entzunezkoen Euskal Kontseilua abian jarri, ikus-entzunezkoaren sektorean, besteak beste, aniztasuna ukitzen duten prozesuak zaintzeko. 05-06<br><br>Unitate didaktiko bat prestatu, immigrazio hizkuntzetara itzulia, Euskal Herriaren ezaugarriak, kultura, gizarte ohiturak, ekonomia, politika eredua etabar landuko dituena, liburu formatuan eta bideo dokumental gisa, Euskal Herriaren berri izan dezaten eta gizartean errazago txerta daitezen. 05<br><br>Liburutegi publiko edo kultur etxeetara immigrazio hizkuntzetan dauden liburuak eta oinarrizko irakurgaiak banatu, etorkinak EAEn errazago txertatzearren. Beren jatorrizko kulturetatik inportatutako materialak ere eduki behar lirateke, egoiliar berriak sarri joango diren lekuak izan daitezen. 05-06 | • Immigranteen kolektiboak Euskal Herrian garatzen den kulturara iritsi eta hori erabiltzeko neurriak sustatu, hala nola laguntzak eman beren kulturak ezagutzeko eta garatzeko.<br>• Beste kultura batzuekin asmoak trukatzeko akordio globalak edo zatikakoak egin, baita musikaren edo zinegintzaren mestizaje esperientziak garatzea ere.<br>• Produkzio independenteari eta udaleko komunikabideei laguntza eman, ikus-entzunezko arloan dagoen araudia ulertzeko. |
| EITBren bidez euskal kulturaren industriaren produktu eta sorkuntzalanak hedatu. 04-05<br><br>Kontratu-programaren aplikazioz erraztasunak eman EITBn kultur jarduerak sustatzeko, adibidez, agenda moduan, letrei, musikari edo zineari buruzko programa berezietan; erakunde horretan egiten den publizitatea merkatu eta gure artista eta sortzaileen agerpenak areagotu. 04-05<br><br>Gainontzeko komunikabideekin akordioak egin aurrez aipatutakoaren ildotik. 05-06 | • Irrati-telebista generalista publiko eta pribatuaren sostengua eta bideragarritasuna, kalitateko programen sorkuntzarako bermetzat, eta irrati-telebista horren kultur eta demokrazia-eginkizunak finkatu.<br>• Idazleak institutu eta unibertsitateetako ikasleekin harremanetan jarri.<br>• Euskal produkzio musikalak irrati-telebistaren sistema publikoan eta emakida duten irrati-telebistetan hedatzeko kuotak finkatu edo hitzartu. |
| Tokiko eta herrialdeko instituzioen ekimenak lagundu, eskoletan, herrietan eta auzoetan musika abestua sustatzeko. Musika-instrumentuei ere lagundu, baita eszenako artegintzari, ikusizkoari eta eskulangintzakoari ere. 05-06 | |
| Nafarroa eta Iparraldeko erakundeekin hitzarmenak egiten jarraitu zuzenean edota kultur-erakunde komunen bidez. 04-05<br><br>Diasporako euskal etxeei material kulturala bidaltzen jarraitu eta kultur produkzioak sustapen erregularra izan dezan lagundu. 04-05<br><br>Euskal kanala eta ETB Sat xede horietara doitu. 05-06 | • Liburu, Internet edo hezkuntza-bideoen banaketa bateratu —ikuspuntu orokorretik begiratuz eta ez bakarrik lurraldekotik—, honako gai hauek direnean gehienbat: historia, artea eta kultur produkzioa, harik eta erreferentziatzat erabiliko den corpusa lortu arte.<br>• Kultur enpresak mugez haraindi jarduteko asmoa sustatu. |
| Ondare eta arteari buruz sentiberatze-programak eta jarduerak antolatu irakaskuntzaren arloan. 06-07<br><br>Lan kulturalei, egile eta jabego intelektualaren eskubideei begirunea zor zaiela erakutsi. 05-06 | |
| Eskualde edo tokiko irrati eta telebista sustatu modalitate publiko, pribatu eta elkarkidetzakoan. 06-07 | Irrati-telebista generalistaren barruan kalitatearen eta zerbitzu publikoaren kontzeptua hobetsi, batez ere EITBren sisteman. |

Aurkibidea

## 9. ARDATZ ESTRATEGIKOA
### Sorkuntza eta produkzioa sustatzeko teknologia berriak eta adierazpen formak berreskuratu eta egokiturik erabiltzen laguntzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Teknologia berrien erabilera sustatu, artea eta ondarea behar bezala balioztatzeko; teknologia berriekin sormenaren esperimentazioan espezializatzearen aldeko apustua egin; kultur eragile eta enpresen ekipamendu teknologikoa berritu; euskara garatzeko eta hedatzeko, teknologia baliabideetan sakondu; kulturaren berrikuntza lurralde eta udalak garatzeko ildoei lotu; beste herrialde batzuetako eragileekin parte hartu Sareko kultur proiektuetan; katalogoen homogeneizatze digitala bultzatu; informazioaren sarea berriro antolatu, informazio-baliabideak eta proiektuak lurralde eta udaletako kudeatzaile eta kultur etxeen artean parteka ditzaten; kultur arloa sortu Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan. Halaber, hizkuntzen transbertsalitatea, adierazpen-formak, produkzio-prozesuak, produktuak, hizkuntzak, merkatuak eta markak bultzatu. | 1. Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak ikertu eta horiek kulturaren hainbat arlotan aplikatzeko bideak sustatu. | E9.L01 | E9.L01.A01 |
| | | | E9.L01.A02 |
| | | | E9.L01.A03 |
| | 2. Kultur edukiko industria digitala sustatu Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan. | E9.L02 | E9.L02.A01 |
| | | | E9.L02.A02 |
| | | | E9.L02.A03 |
| | 3. Kultur edukiak, katalogoak eta kultur ondarea digitalizatzeko laguntzak finkatu, eta baita artxiboak, liburutegiak eta museoak Sarera gehitzeko behar direnak ere. | E9.L03 | E9.L03.A01 |
| | | | E9.L03.A02 |
| | | | E9.L03.A03 |
| | 4. Kulturako enpresa txiki eta ertainen digitalizazioa eta multimediako sorkuntza lagundu, industria, finantza eta zergen arloko politika egokien bidez. | E9.L04 | E9.L04.A01 |
| | 5. Zerbitzu unibertsalaren eduki berriak telekomunikazio berrietara eta zerbitzu publikora zabaldu. | E9.L05 | E9.L05.A01 |
| | | | E9.L05.A02 |
| | | | E9.L05.A03 |
| | | | E9.L05.A04 |
| | | | E9.L05.A05 |
| | 6. Azpisistemen, hizkeren, adierazpen-formen, produkzio-prozesuen, hizkuntzen, merkatuen eta marken transbertsalitatea sustatu. | E9.L06 | E9.L06.A01 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Kultura Saila Euskadi Informazioaren Gizartean Programarekin (EIGP-PESI) koordinatu, kultur edukiak ikertzeko. 04-05<br>Ondarea, artea eta kultur industriak eta beren aldagai guztiak garatzeko linea bat proiektatu EIGPren barruan. 04-05<br>Erakundeen laguntza lortu kultura digitaleko merkatuak aztertzeko. 05 | • Komunikazioaren eta informazioaren teknologia berrien aplikazio eta erabilerari ekin gizartearen premiak eta erabiltzailearen ezaugarriak kontuan izanik.<br>• Aplikazio berriak sustatu, proiekzio-sistema berriak (errealitate birtuala, errealitate hantua, telebista digitala) eta interakziorako bide berriak gehituz. |
| «Zentro kudeatzaile» bat hautatu, estandarizatutako informazio digitalizatu guztia edota prozesuan dagoena koordinatzeko. 04-05<br>Euskal Agiritegi Nazionala euskarri digitalean eratzeko lanekin hasi, eta horretarako funtsak bildu beste erakunde batzuekin koordinaturik. 05-06<br>Zerbitzu publikoaren web eta atariak etengabe garatu, eta horien kalitatea zaindu eta eguneratu. 04-05 | • Artelanak, produkzioa eta egiletza nazioartean hedatzeko politika diseinatu.<br>• Sarean komunitateak sustatu, gizarteko elkarbizitzarekin batera.<br>• Informazio digitalizatuaren eta informazioa babesteko politikak modu eraginkorrean kudeatu beharra.<br>• Gazte internauten topaketak sustatu.<br>• Euskal herentzia digitala eratzeko proiektua egin, instituzioetako eragile guztien jarduerak koordinatuz eta integratuz (artxiboak, liburutegiak, dokumentazio-zentroak, museoak...), batez ere kultur ondarea babestekoak direnak eta hedapen digitalerako direnak.<br>• Europako hizkuntza-proiektuetan eta kultura digitalarekin zerikusia duten beste batzuetan egongo garela bideratu. Europako eContent Programa (eduki digitalak, hizkuntza eta kultur aniztasuna) da horietako bat. |
| Euskal Herrian sortzen den musikaren web orria sortu. 05<br>Liburu, disko eta ikus-entzunezkoen grabazioak editatzeko dirulaguntzak ematen direnean kopia bat eskatu formatu digitalean. 04-05<br>Eusko Jaurlaritza, foru aldundi eta udalen argitalpenak formatu digitalean argitaratu. 06-07 | • Bideo-jokoak eta multimedia egiten dituztenei laguntza selektiboa eman, baldin eta kultura eta hezkuntzara begira lan egiten badute.<br>• Enpresa txiki eta ertainak mundu digitalera eta multimediara aldatzen lagundu zerga eta kreditu berezien bidez.<br>• Informazio eta komunikazioaren teknologian oinarritutako ondare-edukiei instituzioen laguntza eskaini. |
| Politika industrialak, finantzaketakoak eta zergetakoak diseinatu, kultur enpresa txiki eta ertainentzat. 06-07. | |
| Merkatuaren garapenari, eduki eta zerbitzu berrietan zerbitzu publikoaren arloak mantentzeari jarri beharreko kontrapuntu gisa: sare berrietan eremu publikoak eratzea TDT edo Internet bezalakoak, hala nola kulturaren atari publikoa. 06-07<br>Laguntza bereziak sortu «copyleft» (sarrera librea) politikarako. 06-07<br>Software librearen itzulpena eta erabilera erakundeetan sustatu, euskarazko kultura digitalerako eskaintzen dituen aukerengatik. 06-07<br>Liburutegi publikoetarako eta ikasgelako liburutegietarako laguntzak sortu eta beren funts editorialak txandakatu, eta horiek teknologia berrietara egokitzen lagundu. 06-07<br>Internet bidez euskal ondare industrialaren gida bat hedatu. 06-07 | • Sarrera unibertsalerako estandar komunak (dekodifikatzaileak, API eta EPG) egon daitezen bultzatu, hala egitea abiapuntu bat da kontsumitzailearen hautapen-askatasunerako.<br>• Komeni da must carry-a (banatzeko obligazioa) arautzea edo zaintzea kanal publiko eta pribatuetako sare berrietan, batez ere tokikoetan.<br>• Sareen kudeatzaile eta edukiak banatzeko komenigarritasuna.<br>• Arte-sormena sustatu formatu eta baliabide elektronikoetan.<br>• Telekomunikazioko operadoreekin akordioa egin sare berri eta halako zerbitzu berrietan zerbitzu unibertsala eskain dezaten bermatzeko: irisgarritasun teknologikoa eta geografikoa, eta irisgarritasun ekonomikoa, bai aukera-berdintasunari begira bai sarearen ekonomiari begira.<br>• EITBren eskuragarritasunean zerbitzu publikoari dagokion politikarekin jarraitu, hau da, TDT delakoan multiplex osoa edo zati bat, kanal eta zerbitzu askotako estrategia ahalbideratuz. |
| Lankidetzarako clusterretan oinarritutako lankidetza politika ahalbideratu eta eragileek hartutako eta hitzartutako erronkei aurre egin, batez ere elkarrekin garatzeko proiektuak direnean. 06-07 | • Euskal Herria kultur proiektuen erreferentziatzat sustatzea.<br>• EAEn ofizialak diren bi hizkuntzetako autoreen artean komunikazio eta transbertsalitaterako loturak areagotu.<br>• Enpresa eta sektorearen arteko lankidetza sustatu, proiektu handietarako espezialitate eta irisgarritasunerako programak eratuz. |

## 10. ARDATZ ESTRATEGIKOA
### Euskal kultura nazioartean zehar zabaltzea

| ARDATZ ESTRATEGIKOAREN XEDE OROKORRA | LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | KODEA | |
|---|---|---|---|
| • Euskal kulturaren sorkuntza nazioartean zabaldu eta kultura hori munduan zeharreko merkatuetara hedatu; mundu mailan egon daitezkeen euskal kulturaren sorguneak atzeman, espezializazio eta osagarritasunaren arabera; nazioartean zabaltzeko xede hori aurrera eramateko behar diren oinarrizko egiturak sortu. | 1. Euskal Herriko kultur proposamenak Europan zehar zein nazioartean hedatzeko neurriak ezarri. | E10.L01 | E10.L01.A01 |
| | 2. Euskal kultur produktuak esportatzeko eta kanpoan ezagutzera emateko laguntzak finkatu. | E10.L02 | E10.L02.A01 |
| | 3. Euskal kultura munduan zehar zabaltzeko erakundeak edo sareak sortu edo sustatu. | E10.L03 | E10.L03.A01 |
| | | | E10.L03.A02 |

| JARDUERAK | ETORKIZUNEAN GARATZEKO PROPOSAMENAK |
|---|---|
| Euskal kultur ondarea Europan eta nazioartean aurkeztea eta trukatzea sustatu. 05-06 | |
| Euskal musika-taldeek kanpoan antolatzen dituzten emanaldiak lagundu. 05-06 | |
| Euskal kultura nazioarteko merkatura eramango duen organoa diseinatu eta abian jarri. 04-05 | • Kultura beste arlo batzuetara esportatzeko partzuergo bat sortu behar den aztertu. |
| Programa, formatu eta filmak banatzeko eta esportatzeko partzuergo bat eratu. 06-07 | |

# 4. PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ETENGABERAKO TRESNA



## 4.1. TRESNAREN HELBURU ETA EZAUGARRIAK

Kulturaren Euskal Plana zenbait ardatz estrategiko, jarduera-ildo eta jardueren inguruan egituratu da, horiek direlako sektorea 2015. urtera arte garatuko duten elementuak. Planak segimendu eta ebaluaziorako tresna bat gehitu du, eta horren xedea da kultura dinamizatzeko zehaztu diren hainbat esku-hartzeak izango duten aurrerakuntza zenbatekoa izan den jakitea eta baloratzea. Tresna horren ezaugarriak era honetara laburbil daitezke:

– *Dinamikoa eta iraunkorra*: Planaren garapenean ikusiko diren aurrerakuntzak eta lorpenak une oro jakiteko eta eguneratzeko.
– *Parte hartzekoa*: bere garapenean erakunde publiko eta pribatuen lankidetza onartuko duena, hala nola era askotako kultur eragileena.
– *Berezia eta orokorra*: aukeratutako sektoreko 19 eremuetako bakoitzean egiten diren aurrerakuntzak jakiten lagunduko dute, esku-hartzeen ebaluazioaren jite orokorra galdu gabe.
– *Berritzailea*: informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuko dituena eta herritarrei parte hartzeko aukera emango diena, dela lantalde bertaratuen bidez dela lantalde birtualen bidez, horretarako berariaz eratuko diren lan eremu ireki eta berezietan.

## 4.2. EBALUAZIO ALDIAK

Planaren jarraipena eta ebaluazioa aldi oro egingo da, lortutako emaitzak ustez egon daitezkeen gabeziak identifikatzen lagundu ahal izateko, garatu beharreko jardueren edukiak aldatu ahal izateko edota jarduera berriak gehitzeko. Kulturaren Euskal Plana biurteko planen (plan operatiboak) bidez gauzatuko dela kontuan izanik, tresnak urtero-urtero (jarraipena), bi urtez behin (plan operatiboaren ebaluazioa) eta lau urtez behin (ebaluazio estrategikoa) esku hartuko du:

– *Planaren jarraipena*: ebaluatzeko urtearekin bat ez datorren urtean, garatutako jardueren jarraipen-txostena egingo da. Horrenbestez, lehen txostena 2004an egingo da, bigarrena 2006an eta horrela gerokoetan ere.
– *Plan operatiboaren ebaluazioa (POren ebaluazioa)*: bi urteko aldia amaitzean, plan operatibo bakoitzaren ebaluazio-txostena egingo da. Ebaluazio hori egitea tokatzen den urteetan, ez da jarraipen-txostenik beharko. Lehen txostena 2005. urtean egingo da, bigarrena 2007an, eta horrela gerokoetan ere.
– *Ebaluazio estrategikoa*: lau urtez behin Kulturaren Euskal Planaren ebaluazioa egingo da. Horren bidez sektorearen diagnostikoa egingo da eta kulturaren sektoreak ondorengo urteetan erabiliko dituen estrategiak zehaztu eta/edo osatu ahal izango dira. Lehen ebaluazioa 2008. urtean egingo da, bigarrena 2012. urtean, eta horrela gerokoetan ere.

| Epeak | Planak | Tresnaren eskuhartzeak | | |
|---|---|---|---|---|
| *1. urtea*<br>*2. urtea* | 1. plan operatiboa | Jarraipena | POren ebaluazioa | EBALUAZIO ESTRATEGIKOA |
| *3. urtea*<br>*4. urtea* | 2. plan operatiboa | Jarraipena | POren ebaluazioa | |
| *5. urtea*<br>*6. urtea* | 3. plan operatiboa | Jarraipena | POren ebaluazioa | EBALUAZIO ESTRATEGIKOA |
| *7. urtea*<br>*X. urtea* | X. plan operatiboa | Jarraipena | POren ebaluazioa | |

## 4.3. TRESNAREN ANTOLAKETA

Tresna dinamikoa, parte hartzekoa eta berritzailea abian jartzeak antolamendu berezia eskatzen du, kultur erakunde eta eragileen partaidetza ahalbideratuko duena. Antolamendu hori honako lan-eremu hauen bidez egituratuko da:

- *Lan birtualeko foroa*: kultur eragileen partaidetza iraunkorra eremu birtual berezi bat abian jartzeak ahalbidetuko du, hau da, partaide guztien jakintza bideratu eta horien iritzi eta hausnarketak gehitzeko aukera emango duenak. Foro hau irekia izango da Plana egiten parte hartu duten guztientzat, hala nola hausnarketa eta eztabaidarako eremu honetara gerora gehituko direnentzat.
- *Sektoreko lantaldeak*: urtero-urtero lan-jardunaldia antolatuko da Planean zehaztu diren 19 eremuetako kultur eragileek parte har dezaten. Plana egiterakoan finkatu den metodologia eskuan, talde hauetan unean unera arte egin diren aurrerakuntzak aztertuko dira eta etorkizunerako jarduera berriak identifikatuko.
- *Kulturaren Euskal Behatokia*: elementu hau funtsezkoa izango da jarraipen eta ebaluaziorako tresna dinamizatzeko eta eguneratzeko. Elementu honek behatokiak mailaz maila jasoko duen informazioari buruzko erreferentzia egiten du, egoeraren ikuspegi eguneratua lantzeko aukera izango baitu, eta gainera etorkizuneko lan-ildoak egokitu edota osatzeko beta izango du.

## 4.4. ADIERAZLEAK DISEINATU ETA EGITEA

Adierazle eta aldagaiak diseinatu eta egiteak Planaren jarraipen eta ebaluazioa hezurmamitzen lagunduko dute. Diseinatze eta egite hori ikasten denarekin eraikiko den prozesutzat jotzen da, aldi berean tresna bera elikatuz joango den prozesutzat, alegia.

Erabili beharreko adierazle-multzoak ardatz estrategikoak kualitatiboki zein kuantitatiboki baloratzea ahalbidetuko du; hala nola ardatzak, jarduera-ildoak eta jarduerak epe labur, ertain eta epe luzera. Hiru dira tresnaren aplikazio mailak:

- *Egikaritze / Jarraipen adierazleak*: garapen mailaren eta abian jarritako jarduera bakoitzean lortutako aurrerapenaren irudi garbia ematen dute. Batez ere jardueren analisi kualitatiboan oinarritzen dira. Adierazle hauek Planaren urteko jarraipena egiteko erabiliko dira, hala nola plan operatiboa bi urtez behin ebaluatzeko.
- *Emaitzen adierazleak*: jarduera-ildoentzat finkatu diren helburuak ebaluatzeko aukera ematen dute, eta informazio kualitatiboa zein kuantitatiboa erabiltzen dute. Adierazle horiek Planaren urteko jarraipena egiteko erabiliko dira, hala nola plan operatiboaren bi urteko ebaluazioa egiteko eta ebaluazio estrategikorako.
- *Eraginaren adierazleak*: gizartean oro har sortutako eraginen ebaluazioa erakutsiko dute. Adierazle hauek plan operatiboaren biurteko ebaluazioa egiteko eta ebaluazio estrategikorako erabiliko dira.

| Aplikazio-eremua | Adierazleen tipologia |
|---|---|
| — Jarraipena<br>— POren ebaluazioa | JARRAIPENA / EGIKARITZEAREN ADIERAZLEAK |
| | EMAITZEN ADIERAZLEAK |
| — POren ebaluazioa<br>— Ebaluazio estrategikoa | ERAGINAREN ADIERAZLEAK |

# 5. METODOLOGIA BERRITZAILEA ETA PARTE HARTZAILEA



Jendaurrera aurretiazko dokumentu markoa amaitzean (2003ko maiatzean) plazaratu bazen ere, Plana egiteko prozesua urtebete lehenagotik zetorren, hau da, Kulturaren Euskal Kontseilua (etorkizuneko kultura proiektu bat eratzeko eginkizun nagusiarekin, kulturako jendearen topaketak antolatu zirenean eratu zen kontseilu hori) izendatu zenetik.

## 5.1. AURRETIAZKO DOKUMENTUA ETA TXOSTENAK

Dokumentuak, alde batetik, eremu tematikoa mugatu eta Planaren oinarrizko kontzeptuen inguruan hizkera bateratua adosteko balio behar zuen eta, bestetik, metodologia arin eta bideragarria definitzeko, zorroztasun analitikoa eta partaidetza zabala eta askotarikoa elkartzeko balio behar zuena.

Dokumentu horrek, marko kontzeptuala bailitzan, kulturaren ikuspegi operatiboa zedarritu behar zuen, «sinboliko»aren munduaren inguruan, nahiz eta garbi eduki kultura askoz ere gehiago dela, gizartea egituratzen duen bilbea delako. Dokumentuak EAEn kudeatzen den kultur sistema, hau da, euskal kulturaren guneari oinarri-zati bat ematen diona, hiru arlo nagusiren inguruan —ondarea, arte-sorkuntza eta kultur industriak— bereiztea proposatu zuen eta gure garaiko kultur politikaren rol, balore eta printzipioak globalizazioaren markoan kokatu beharra planteatzen zuen. Hipotesi moduan, garatu beharreko ardatz estrategiko batzuk proposatzen zituen, hala nola, lan-metodologia bat.

Dokumentu hori Gasteizko Villa Suso jauregian aurkeztu zen Juan Jose Ibarretxe lehendakaria buru izan zen ekitaldi batean, 2003ko maiatzaren 28an. Bertara kulturaren munduko 300 lagunetik gora bildu ziren, guztiak aste batzuk geroago antolatu ziren eztabaida-jardueretan eta plana egituratzeko lanetan parte hartzeko gonbidatuak.

Aurretiazko dokumentu marko horrekin batera, Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak 19 txosten edo ponentzia eskatu zituen (22, gerora eskatu ziren ahozko tradizioa , ondare artistikoa eta itzulpengintza kontuan hartzen baditugu) beste horrenbeste espezialistei. Horiei ez zitzaien beste ezer eskatu eztabaidetan garatzeko gaien zerrenda egitea baino; askatasun osoa izan zuten beraz kulturaren sektorea aztertzeko eta horri buruzko gogoetetarako. Antolamendu horren guztiaren ondorioa garbi zegoen: txosten bakoitzaren ikuspuntuak txostena sinatzen zuena baino ez zuen konprometitzen; ez zuen, berez, Kulturaren Euskal Kontseilua edota Administrazioa konprometitzen. Txostenak bidea egiteko hurbilpen baliagarritzat jotzen ziren; ez zegoen beren edukiei buruz iritzia zertan eman. Askatasun eta heldutasunezko jokabide hori zuzena gertatu zen.

Zehatz-mehatz sektoreetakoak ziren txostenekin batera, gutxienez zeharkako bi agiri behar ziren: bata, euskarak kulturan duen egoerari buruzkoa eta, bestea, kultura digital sortu berriari buruzkoa. Beste zeharkako ardatz batzuk etorkizunerako utzi dira (komunikabideak eta hezkuntza batez ere)[3].

[3] Kultura digitalaren agiria txosten moduan (gero «multimedia»koarekin bateratu zen) aurkeztea eskatu zen, baina euskararen eta kulturaren gaiarekin beste metodologia bat erabili zen. Sektore bakoitzak bere arloan euskarari zegokion leku eta egoerari heltzea hobetsi zen. Batzorde Iraunkorrak gerora txostenen hustuketa tematikoa egin zuen eta emaitzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren iradokizun batzuekin alderatu ziren eta, azkenik, material hori guztia Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari helarazi zitzaion. Ondorioz «Euskara Kulturaren Euskal Planean» izeneko txostena osatu zuen HPSk, Euskararen Aholku Batzordearen laguntzarekin. Esperientzia interesgarria izan zen benetan, gai bakar batera hurbiltzeko bi modu erabili zirelako.

## 5.2. FASEAK

Handik aurrera, ondoz ondoko bi etapa ireki nahi izan ziren: bata, diagnostikoarena eta, bestea, jarduera-ildoena. Eta, aldi berean, parte hartzeko beste bi era ezarri ziren. Bata, lantalde presentzial moduan, eta bestea lantalde birtual gisa, sarrera kodifikatu batekin egokitu zen web orri bateko eztabaida foroan. Azken era horrek besteak bezainbat balio zuen batez bestekoak egiterakoan eta, gainera aukera ematen zuen partaidetza handiagoa eta lantaldeen operatibitatea bateratzeko. Lantaldeak, KEK-ko aholkulari gisa eratu zirelarik, sektore bakoitzean eratu ziren KEK-ko kideekin eta, batez ere, kultur arlo bakoitzeko ordezkariekin. Guztira 18 lantalde eratu ziren eta 300 lagunetik gora.

Ponentzietatik AMIA analisirako (Ahulguneak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) lehen matrizeak atera ziren, eta baita eragileek proposaturiko jarduera-ildoen lehen zirriborro gordinak ere.

Horiek oinarri harturik —matrizeak eta zirriborroak—, sektore bakoitzarentzat inkesta-taulako sistema bakun eta erraz bat eratu zen. Inkesta horretan baietza edo ezetza baino ez zen eskatu bertan planteatzen ziren gai batzuei buruz. Gai horietako bakoitzaren erantzuna mailakaturik zegoen 1etik 4ra (1: ezadostasuna eta 4: adostasun maila handiagoa) eta gaiari ematen zitzaion garrantzia ere mailakatu egin zen 1etik 4ra (1: garrantzi txikia eta 4: garrantzi handiena). Gainera, partaideak leku ireki bat zuen iradokizunak idazteko. Eginkizun hori, hala ere, nork bere kabuz egiteko lana zen: idatzi eta posta elektronikoz, faxez edo postaz bidali behar zen Planaren idazkaritza teknikora. Horretarako epea, 15 egunekoa zen.

Talde presentzialak eta birtualak egindako ekarpenen laburpena egin zuen idazkaritzak, hori aztertu eta aurretiazko ondorioak atera ziren; horiek sektore bakoitzaren jarrera matriz moduan eratu ziren, eta tesi bakoitza grafikoki mailakatu zen garrantziaren arabera: handia, ertaina eta txikia. Aldi berean, adostasuna ere neurtu zen: handia, ertaina eta txikia, horrela garrantzi handia eta adostasun handia zutenak automatikoki ondoriotzat hartu ziren. Garrantzi handiena eta ikuspuntu bateratuena lortu zituzten ondorioak taldeetako eztabaiden gai nagusi bihurtu ziren.

Oinarri horrekin taldeetako eztabaidari ekin zitzaion laburpen berri baten atzetik, aurretiazko ondorioen balorazio txanda egin ondoren. Horrekin guztiarekin, laburpenak egin ziren eta horien emaitzak behin betiko ondoriotzat hartu ziren.

Garbi zegoen hasiera-hasieratik sektorekako banaketak mugak batzuk badituela, ez baititu kontuan hartzen sektoreek beren artean partekatzen dituzten arloak, ez eta prozesuen alderdi dinamikoak eta eragileen arteko bitartekaritzak ere. Alabaina, analisiaren lehen fasean arrazoizkoa zen hala egitea, nahitaezkoa zela ez esatearren. Jokabide hori etorkizunean sor daitezkeen analisi korapilatsu eta nahasiagoetarako ere erabilgarritzat jotzen da.

## 5.3. LANTALDEAK

Lantaldeek bi saio izan zituzten bata bestearengandik ondo tartekatuta: bata, diagnostikoari buruzkoa izan zen eta, bestea, jarduera-ildoei buruzkoa. Horiek 2003ko ekaina-uztailean zehar antolatu ziren.

Bigarren saioan, eta ahalezko jarduera-ildoak ondo ezagutu ondoren, lantaldeek lehentasunezko lan lerroak aukeratu zituzten. Horrekin, talde bakoitzarentzat lehentasuna zuten gai guztiak zehaztu ziren, eta hala sektore bakoitzaren garapenari ekin zitzaion —zela ondare etnografikoa, antzerkia, edizioa...—. Horrela jokatu zen 18 sektoreetan.

Ondoren egin beharreko lana —idazkaritza teknikoak egin zuen Batzorde Iraunkorreko kideekin batera— sektore bakoitzeko *ahultasunak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak* bereiztea izan zen, balore-kateari lotutako kontzeptuen arabera: teknologia eta prestakuntza, sorkuntza, produkzioa, banaketa eta merkatuak/kontsumoak. Ondoren promozioa/hedapena, gizarte-premiak eta indarrean dauden politika epigrafeak gehitu ziren. Horiek guztiak aberatsak izan ziren eta gainera plan honetatik kanpo aztertzeko aukera ematen dutenak.

Beste horrenbeste egin zen *jarduera-ildoekin* ere. Horiei ere geroxeago beste epigrafe batzuk gehitu zitzaizkien: politikak eta koordinazioa, baliabideak (prestakuntza, enplegua, lankidetza), enpresa-ehunaren antolamendua (informazioa, arauak...), produktuaren irizpideak (euskara, kalitatea...) eta balio-katea (teknologia eta prestakuntza, sorkuntza, produkzioa, banaketa eta merkatuak/kontsumoak).

## 5.4. KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRA

Hurrengo fasea Batzorde Iraunkorraren eta idazkaritza teknikoaren berariazko lana izan zen. Azpisistema bakoitzeko sektoreen artean komuna zena eta ezberdina zena konpaktatu behar ziren. Lehenengo, sektore guztietako gai-zerrenda ikuskatu behar zen epigrafez epigrafe (politikak, ezagutza eta behatokia, organismo bultzagileak, enpresa, prestakuntza eta teknologia, balore-katea eta merkatuak). Ondoren, azpisistema bakoitzeko multzoari komunak gertatzen zitzaizkion lineak egiaztatu behar ziren —industri politiken, kudeaketa laguntzeko politiken, behatoki politiken, liburu zurien politiken ondorioz politika berezietan lortzen zen aurrezpenarekin—, eta horretan, lehentasunezkoak izanik, homogeneizatzekoak ez zirenak atzeman ziren, hau da, sektore bakoitzean bereziak zirenak. Bizpahiru hitzetan esateko, azpisistema bakoitzaren rolaren balioa handitu egin zen kultur politikaren ikuspuntutik begiratuta.

Jarduera-ildo horiek, ondoren, hasierako ardatz estrategikoekin («aurretiazko dokumentu marko»an adierazi zirenekin) erkatu ziren, hausnarketa orokorragoetan eta epe luzeagoan (Planean zehazten denarekin, 10-15 urte) zehazteko. Diagnostiko berezietatik, halaber, diagnostiko orokorragoak ondorioztatu ziren, eta horiek «aurretiazko dokumentu marko»ko hausnarketekin alderatu ziren, problematika orokorragoen bertsio berria eta behin betikoa ateratzeko.

## 5.5. LAN-METODOLOGIAREN LABURPEN GRAFIKOA

| FASEAK | HELBURUA |
|---|---|
| 0 fasea | Kulturaren Euskal Kontseilua (KEK) izendatu, euskal kulturaren gune bat sustatzeko eta egituratzeko betekizunaz. |
| 1. fasea | Aurretiazko dokumentu marko bat egitea, hala nola kulturaren hiru azpisistemak (kultur ondarea, arte-sorkuntza eta adierazpena, kultur industriak) egituratzeko eratu diren 21 eremuetarako txostenak egitea eta, azkenik, Plana kultur eragileei aurkeztea. |
| 2. fasea | KEKren Batzorde Iraunkorrak txostenak egokitzea. |
| 3. fasea | Kultur eragileen parte hartzea ponentziak indartzeko ahaleginean, batez ere Kulturaren Euskal Sistemaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak zehazteko eta etorkizuneko jarduera-ildoak lantzeko. |
| 4. fasea | Kulturaren Euskal Plana (aurretiazko dokumentua) eta 2004-2005 ekintza plana egitea. |
| 5. fasea | Batzorde Iraunkorrak behin betiko dokumentura egingo dituen ekarpenak. |
| 6. fasea | Kulturaren Euskal Kontseiluak Kulturaren Euskal Planaren zirriborroa onartzea. |

| EMAITZAK | KRONOGRAMA | LAN-METODOLOGIA |
|---|---|---|
| – | 2000 | – |
| Aurretiazko dokumentu markoa. | 2003ko maiatza | – |
| Txostenak. | 2002ko maiatza-2003ko maiatza | Aditu eta aditu-taldeen partaidetza txostenak egiten. |
| Planaren aurkezpen-ekitaldia Juan José Ibarretxe lehendakaria buru dela. | 2003ko maiatzaren 28a | Kulturako 300 lagun baino gehiagoren partaidetza. |
| Txostenak egokitzea eta osatzea. | 2003ko apirila-maiatza | KEKren Batzorde Iraunkorrak materialak ikuskatu. |
| Kulturaren Euskal Sistemaren AMIA analisia. | 2003ko uztaila (2-3 lan-bilera) | – Partaidetza sustatzeko web orria sortzea.<br>– 18 lantalde eratzea, 300 lagunetik gorako partaidetza presentzial eta birtualarekin. |
| Jarduera-ildoak zehaztea. | | |
| Kulturaren Euskal Plana. | 2003ko uztaila-azaroa | – |
| Kulturaren Euskal Plana. | 2003ko azaroa-2004ko otsaila | KEKren Batzorde Iraunkorraren ekarpenak. |
| Behin betiko dokumentua. | 2004ko otsaila-ekaina | KEKren osoko bilkura. |

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA – KANPOKO AHOLKULARITZA

# Eranskina

## I. ERANSKINA. PARTAIDEAK ETA TXOSTENGILEAK

1. KOORDINAZIO OROKORRA

Josean Urdangarin, Ramón Zallo, Imanol Agote (1. fasean)

2. LAGUNTZA TEKNIKOA

IKERTALDE-AIC; KUALITATE (1. fasean)

3. KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUKO BATZORDE IRAUNKORRA

- Miren Azkarate andrea, Kontseiluaren lehendakaria, Eusko Jaurlaritza
- Gurutz Larrañaga jauna, Eusko Jaurlaritza
- Federico Verastegui jauna, Arabako Foru Aldundia (ezin izan duenean parte hartu, Pedro Ignacio Gonzalo-Bilbao jauna)
- Belén Greaves andrea, Bizkaiko Foru Aldundia (ezin izan duenean parte hartu, Ricardo Bilbao jauna)
- Imanol Agote jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Encina Serrano andrea, Gasteizko Udala (ezin izan duenean parte hartu, Enrike Ruiz de Gordoa jauna)
- Jon Sánchez jauna, Bilboko Udala
- Ramón Etxezarreta jauna, Donostiako Udala
- Jon Bagüés jauna, ERESBIL
- Anjel Lertxundi jauna, idazlea
- Santi Eraso jauna, Arteleku
- Javier Echeverria jauna, CSIC
- Ramón Zallo jauna, Euskal Herriko Unibertsitatea
- Josean Urdangarin jauna, kontseiluaren idazkaria, Eusko Jaurlaritza

4. KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA, osoko bilkura

Batzorde Iraunkorreko kideez gain, Kontseiluko kide dira:

- Josu Aboitiz jauna, Eusko Jaurlaritza
- Jesús Altuna jauna, Aranzadi Zientzi Elkartea
- José Antonio Arbelaiz jauna, Eusko Jaurlaritza
- Arantza Arzamendi andrea, Eusko Jaurlaritza
- Miren Dobaran andrea, EUDEL
- Carlos Caballero jauna, Eusko Ikaskuntza
- Mª Angeles Egaña andrea, Bilboko Udala
- Jorge Gimenez jauna, Euskal Editoreen Elkartea

– Javier Gogeascoechea jauna, Gremio de Editores de Euskadi
– Iñaki Goirizelaia jauna, Euskal Herriko Unibertsitatea
– Iñaki Gómez jauna, IBAIA
– Jesús Mari Mujika jauna, irakaslea
– José Angel Muñoz jauna, idazlea
– Andoni Ortuzar jauna, EITB
– Emilia Otaola andrea, irakaslea
– Helena Pimenta andrea, antzerki zuzendaria
– José Antonio Rodríguez jauna, artxibozaina eta historialaria
– Juan San Martin jauna, Euskaltzaindia
– Iñaki Tellechea jauna, Eusko Jaurlaritza
– Mitxel Unzueta jauna, Euskalerriaren Adiskideen Elkartea
– Jon Urrutia jauna, Eusko Jaurlaritza

5. LANTALDEAK

*5.1. KULTUR ONDAREA*

Arloko koordinatzailea: Arantza Arzamendi andrea

TALDEA: 1.1. ONDARE ARKEOLOGIKOA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Agustín Azkarate jauna | Ana Martínez andrea |
| Amelia Baldeón andrea | Armando Llamosas jauna |
| Armando Llanos jauna | Dona Gil andrea |
| Carlos Olaetxea jauna | Josean Mujika jauna |
| Francisco Etxebarria jauna | Juantxo Agirre jauna |
| Iñaki García jauna | Julio Nuñez jauna |
| Iñaki Sagarzazu jauna | Koro Mariezkurrena andrea |
| Jesús Altuna jauna | Mª Fernanda Sánchez andrea |
| José Antonio Fernández jauna | Manu Eizagirre jauna |
| Luis Valdés jauna | Pedro Castaños jauna |
| Mª José Arostegui andrea | |
| Milagros Esteban andrea | |

TALDEA: 1.2. ONDARE ARKITEKTONIKOA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Agustín Azkarate jauna | Iñaki Galarraga jauna |
| Alberto Santana jauna | Iñaki Uriarte jauna |
| Elías Más jauna | Josemi Agirregomezkorta jauna |
| Gaspar Martínez jauna | Ramón Ayerza jauna |
| José Luis Viteri jauna | |
| Juan Ignacio Lasagabaster jauna | |
| Juan Ramón Lombera jauna | |
| Mª José Arostegui andrea | |
| Mikel Garmendia jauna | |
| Nieves Basurto andrea | |
| Rafael Purroy jauna | |
| Sebastían Bayo jauna | |
| Mariano Ruiz de Ael jauna | |

TALDEA: 1.3. ONDARE ETNOGRAFIKOA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Alberto Santana jauna | Anton Aguirre jauna |
| Amaia Basterretxea andrea | Iñaki Irigoyen jauna |
| Ander Manterola jauna | Juan Antonio Urbeltz jauna |
| Fermín Leizaola jauna | |
| Juan Antonio Rubio-Ardanaz jauna | |
| Kepa Fernández de Larrinoa jauna | |
| Mª José Arostegui andrea | |
| Manu Eizagirre jauna | |
| Rafael Zulaika jauna | |
| Roldán Jimeno jauna | |

TALDEA: 1.4. ONDARE INDUSTRIALA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Beatriz Herreras andrea | Eusebi Casanelles jauna |
| Gaizka Camino jauna | Jose Mari Unsain jauna |
| Garbiñe Aja andrea | Mª José Torrecilla andrea |
| José Eugenio Villar | |
| Luis Zufiaur jauna | |
| Roque Rezabal jauna | |
| Teresa Casanovas andrea | |
| Maite Ibañez andrea | |
| Marta Zabala andrea | |

TALDEA: 1.5. MUSEOAK

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Antton Azpitarte jauna | Ana Iturbe andrea |
| Carmen Otxagabia andrea | Armando Llanos jauna |
| Elena Rosales andrea | Aurelio González jauna |
| Iñaki Díaz jauna | Félix López jauna |
| Javier Viar jauna | Fernando Golvano jauna |
| Jesús Alonso jauna | Juan Manuel González jauna |
| Leopoldo Zugaza jauna | Luis Txillida jauna |
| Nekane Goenaga andrea | Manu Eizagirre jauna |
| Sara González de Aspuru andrea | Xabier Martiarena jauna |
| Soco Romano andrea | Jordi Pardo jauna |
| Teresa Casanovas andrea | Juanjo Olaizola jauna |
| Xabier Pérez jauna | |

TALDEA: 1.6. LIBURUTEGIAK

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Arantza Arzamendi andrea | Begoña Urigüen andrea |
| Carmen Bilbao andrea | Elena Roseras andrea |
| Carmen Gómez andrea | Joxe Mari Egaña jauna |
| Carmen Guerra andrea | Juan José Agirre jauna |
| Felisa Sanz andrea | Pruden Gartzia jauna |
| Francisca Pulgar andrea | |
| Jon Bagüés jauna | |
| Nere Erkiaga andrea | |
| Nieves Taranco andrea | |
| Susana Soto andrea | |

TALDEA: 1.7. AGIRITEGIAK

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Anabela Barroso andrea | Begoña Urigüen andrea |
| Arantza Cuesta andrea | Jose Mª Elizondo jauna |
| Borja Aginagalde jauna | |
| Eduardo Jauregi jauna | |
| Gabriela Vives andrea | |
| Jesus Sobrón jauna | |
| Jon Bagüés jauna | |
| José Antonio Rodríguez jauna | |
| Patxi Etxeberria jauna | |
| Ramón Martín jauna | |

*5.2. ARTE-SORKUNTZA ETA ADIERAZPENA*

Arloko koordinatzailea: José Antonio Arbelaiz jauna

TALDEA: 2.1. ANTZERKIA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Carlos Morán jauna | Ana Pérez andrea |
| Carlos Gil jauna | David Barbero jauna |
| Fernando Bernués jauna | Gonzalo Centeno jauna |
| Fernando Pérez jauna | Gonzalo Pérez jauna |
| Frantxis Lopez de Landatxe jauna | Helena Pimenta andrea |
| Garbiñe Losada andrea | Idoia Ayestaran andrea |
| Javier Alcorta jauna | Javier Sabadie jauna |
| José Luis Ibarzabal jauna | Jose Luis Raymond jauna |
| José Ramon Martínez jauna | Pilar López andrea |
| Mikel Etxebarria jauna | Santiago Sueiras jauna |
| Norka Chiapuso jauna | Xabi Puerta jauna |
| Pedro Barea jauna | |
| Santiago Burutxaga jauna | |

TALDEA: 2.2. MUSIKA

PARTAIDETZA PRESENTZIALA

Carmen Rodríguez andrea
Eugenio Gandiaga jauna
Francisco Cruz jauna
Germán Ormazabal jauna
Ignacio Casado jauna
Imanol Arana jauna
Itziar Almagro andrea
J. Iñaki Urruzola jauna
Javier Muguruza jauna
Josean Llorente jauna
Juan Solaguren jauna
Juanjo Mena jauna
Miguel Martín jauna
Nicolás Basarrate jauna
Pablo Cabeza jauna
Paco Ibañez jauna
Sabin Bikandi jauna
Sabin Salaberri jauna

PARTAIDETZA BIRTUALA

Anjel Valdés jauna
Fermín Muguruza jauna
José Angel Serrano jauna
José Antonio Echenique jauna
Joseba Torre jauna
Luis Fernando Rupérez jauna
Marino Goñi jauna

TALDEA: 2.3. DANTZA

PARTAIDETZA PRESENTZIALA

Alicia Gómez andrea
Carmen Tercero andrea
Edu Muruamendiaraz jauna
Filgi Claverie jauna
Francisco Cruz jauna
Imanol Arana jauna
Iñaki Goirizelaia jauna
Iñaki Irigoien jauna
Jon Garmende jauna
Josu Mujika jauna
Juan Antonio Urbeltz jauna
Laura Etxebarria andrea
Lide Arana andrea
Matxalen Bilbao andrea
Natalia Monge andrea

PARTAIDETZA BIRTUALA

Ana Moreno andrea
Blanca Arrieta andrea
Blanca Calvo andrea
Iñaki Landa jauna
Jon Munduate jauna
Pablo Balenciaga jauna
Pedro Ignacio Elosegi jauna
Víctor Olaeta jauna

TALDEA: 2.4. LITERATURA

PARTAIDETZA PRESENTZIALA

Anjel Lertxundi jauna
Arturo García jauna
Begoña Muruaga andrea
Carlos del Olmo jauna
Julia Otxoa andrea
Koldo Biguri jauna
Luisa Etxenike andrea
Mari Jose Olaziregi andrea
Tere Irastortza andrea

PARTAIDETZA BIRTUALA

Iban Zaldua jauna
Iñaki Aldekoa jauna
Iñaki Esteban jauna
Itziar Zubizarreta andrea
Josean Muñoz jauna
Mariasun Landa andrea
Pedro Ugarte jauna

TALDEA: 2.5. ARTE PLASTIKOAK

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Ana Salaberria andrea | Alicia Fernández andrea |
| Araceli de la Horra andrea | Cristina de la Fuente andrea |
| Arturo García jauna | Daniel Castillejo jauna |
| Emilia Epelde andrea | Fernando Illana jauna |
| Fernando Golvano jauna | Ismael Manterola jauna |
| Franck Larcade jauna | Javier Viar jauna |
| Javier Alkain jauna | Manuel Borja jauna |
| Javier Riaño jauna | Nekane Aranburu andrea |
| Jorge Alberto Gorostiza jauna | Nuria Enguita andrea |
| Lucia Onzain andrea | Peio Aguirre jauna |
| Nacho Rodríguez jauna | Roberto Saenz de Gorbea |
| Pedro Carreras jauna | Txaro Garaigorta andrea |
| Peter Rodríguez jauna | Txus Martínez jauna |
| Pilar Mur andrea | |
| Santiago Eraso jauna | |
| Txomin Badiola jauna | |

*5.3. KULTUR INDUSTRIAK*

Arloko koordinatzailea: Ramon Zallo jauna

TALDEA: 3.1. EDIZIOA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Andoni Iturbe jauna | Carlos Muro jauna |
| Ángela Serna andrea | Ernesto Santolaya jauna |
| Iñaki Lopez de Aguileta jauna | Eva Forest andrea |
| Jesús Mª Mujika jauna | Mikel Etxebarria jauna |
| Jorge Gimenez jauna | |
| José Mª Barandiaran jauna | |
| Kepa Murua jauna | |

TALDEA: 3.2. FONOGRAFIA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Andrés Camio jauna | Ignacio Casado jauna |
| Anjel Valdés jauna | Iñigo Argomaniz jauna |
| Imanol Arana jauna | Jon Bagüés jauna |
| Iñaki Zaratiegi jauna | |
| Juan Rekarte jauna | |
| Marino Goñi jauna | |
| Ritxi Aizpuru jauna | |

TALDEA: 3.3. IKUS-ENTZUNEZKOAK

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Araceli de la Horra andrea | Josean Muñoz jauna |
| Bakarne Agirre andrea | Pello Aldazabal jauna |
| Edorta Arana jauna | Ricardo González jauna |
| Gregorio Murua jauna | |
| Haritz Zubillaga jauna | |
| Iñaki Gómez jauna | |
| Jon Artatxo jauna | |
| José Antonio Fernández jauna | |
| Juan Marino Ortuoste jauna | |
| Marian Galarraga andrea | |
| Patxi Azpillaga jauna | |
| Pedro Rivero jauna | |
| Ramón Zallo jauna | |
| Roberto Oñaederra jauna | |
| Veronica Sánchez andrea | |

TALDEA: 3.4. MULTIMEDIA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Aurkene Alzua andrea | Carmelo Garitaonaindia jauna |
| David Mardaras jauna | Eulalia Adelantado andrea |
| Jesus Colet jauna | |
| Jorge de la Herrán jauna | |
| Josi Sierra jauna | |
| Joxerra Aizpurua jauna | |
| Mª Teresa Linaza andrea | |
| Oscar Astier jauna | |
| Sabin Uriarte jauna | |
| Tomás Iriondo jauna | |

TALDEA: 3.5. KULTURA DIGITALA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Francisco Javier Allende jauna | Aitor Jaio jauna |
| Jokin Garatea jauna | Jon Bagüés jauna |
| Jose Ignacio García jauna | Juan Zubillaga jauna |
| Joseba Abaitua jauna | Kepa Korta jauna |
| Josu Aranberri jauna | |
| Kepa Sarasola jauna | |
| Luis Mª Álvarez jauna | |
| Luistxo Fernández jauna | |

TALDEA: 3.6. ESKULANGINTZA

| PARTAIDETZA PRESENTZIALA | PARTAIDETZA BIRTUALA |
|---|---|
| Amaia Mujika andrea<br>Bernat Vidal jauna<br>Blanka Gómez de Segura andrea<br>Fermin Leizaola jauna<br>Jon Cortajarena jauna<br>Jose Pablo Arriaga jauna<br>Karmelo Urdangarin jauna<br>Kepa Oliberi jauna<br>Soledad Santisteban jauna | Eugenio Gandiaga jauna |

## 6. HASIERAKO TXOSTENAK

Enkarguz, eztabaidarako eta norberaren iritzia emateko egindakoak.

### *6.1. ONDAREAK*

– *Arkeologia ondarea*, J. Altuna
– *Arkitektura ondarea*, A. Azkarate, M. Ruiz de Ael, A. Santana
– *Euskal industria ondarea*, M. Ibañez, M. Zabala
– *Etnografia ondarea Euskal Herrian*, K. Fernandez de Larrinoa
– *Museoak*, J. Pardo
– *Euskal Liburutegi Sistema*, A. Arzamendi
– *Agiritegi plana*, B. Aginagalde
– *Arte ondarea*, J. Viar

### *6.2. ARTEAK ETA ARTE ADIERAZPENAK*

– *Euskal antzerkia, gaur eta bihar,* F. Bernués eta taldea
– *Musika (3),* C. Rodriguez Suso
– *Musika (2)*, J.A. Echenique, G. Ormazabal, L.F. Ruperez
– *Musika (1)*, M. Otalora
– *Musika (4)*, E. Gandiaga
– *Euskal balleta*, I. Goirizelaia
– *Literatura sorkuntza*, L. Etxenike, A. Lertxundi
– *Arte plastikoak eta ikustekoak*, S. Eraso, F. Larcade, F. Rodríguez, L. Onzain, N. Rodríguez

### *6.3. KULTUR INDUSTRIAK*

– *Kultur industrietara sarrera*, R. Zallo
– *Edizioa*, J. Gogeascoechea
– *Euskarazko liburugintza*, J. Gimenez
– *Diskoaren industria*, A. Valdés
– *Euskal ikus-entzunezkoen industria,* R. Zallo
– *Kultura digitala*, J. Echeverria, K. Sarasola
– *Multimedia,* S. Uriarte
– *Eskulangintza*, B. Gómez de Segura
– *Itzulpengintza*, EIZIE

### *6.4. ZEHARLERROAK*

– *Euskara Kulturaren Euskal Planean*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.